# Goienkaria

2008ko martxoaren 7a > Egubakoitza > VIII. urtea > 323. zenbakia > Doan banatzekoa

www.goiena.net




**"Heziketa sexista dago familietan, eta horrek tratu txarrak sustatzen ditu"**

**Marije Apodaka**
Psikologoa > 09

**G2a** **Karikatura egile Cele Otañoren erakusketa** > 42-43

**HAUTESKUNDEAK 08**
**Domekako hauteskundeen atarian hautagaien iritziak jaso ditugu** > 02-03

**AZPIEGITURAK**
**Geltoki intermodala Arrasaten non jarri aztertzen dihardute** > 19

**KOMUNIKAZIOA**
**Arrasate Irratia blog bidez sarean entzungai jarri dute** > 51

**EKONOMIA** > EUSKADIKO KUTXA

## Euskadiko Kutxak 209 milioi euroko irabaziak izan ditu

**HAZKUNDEA** Irabazi horiekin, % 18,7ko hazkundea izan du Euskadiko Kutxak 2007 urtealdi amaieran

**BIGARREN** Zerbitzu-kalitate handieneko erakundeen Estatuko rankinean bigarren postuan geratu da

**2008RAKO HELBURUAK** Iazko urtealdian izandako hazkundea berdintzea da aurten Euskadiko Kutxak duen helburua > 05

**GIZARTEA** > MARTXOAK 8

## Emakumeen Eguna bihar, zapatua

Eguna ospatzeko ekitaldi ugari egongo dira; Arrasaten, esaterako, emakume baserritarren azoka > 15

## Makina-erremintaren biurtekoa, ezinbesteko hitzordua gure enpresendako

Bihar (zapatua) arte Debagoieneko hamabi enpresa egongo dira Barakaldoko BECen egiten dihardutén makina-erremintaren biurtekoan. Enpresa horietako gehienek urteak daramatzate erakustazokara joaten eta guztiek egiten dute bat gauza baten: saltzeko baino gehiago, BEC ezinbesteko hitzordua dela harremanak egiteko. Horrekin batera, Debagoieneko enpresek euren produktuak erakusteko gune aproposa ere bada biurtekoa. > 04




**FAGOR ARRASATE S. COOP.** Irudian Fagor Arrasateren gunea. Dauzkaten hainbat negozio ildoren gaineko erakusmahai informatiboa jarri dute. MIREN ARREGI

**AURKIBIDEA**


**Debagoiena** > 04-08
**Elkarrizketa** > 09
**Iritzia** > 10-11
**Gutunak** > 12
**Herriak** > 15-39
**Kirola** > 40-42
**Kultura** > 45
**Sailkatuak** > 46
**Eskelak** > 47
**Denbora-pasa** > 48
**Gazteak** > 50
**Komunikazioa** > 51
**Telebista-Irratia** > 52
**Non-zer** > 54-55








**HAUTESKUNDEAK 08** > HAUTAGAIEN IRITZIAK

# Domekarako abstentzio edo boto eske datoz politikariak

**ASKO JOKOAN** Gehienek azpimarratu dute domekako botazio eguna oso garrantzitsua dela eta asko dagoela jokoan

**ABSTENTZIOA** Hautetsi Independentistek abstentziorako dei egin dute, "salbuespen egoera" bizi dugula argudiatuta



**Lorea Leanizbarrutia**
**EAJ**

Gipuzkoatik lehena Senaturako EAJren izenean. Aretxabaletarra, Donostian bizi da. 51 urte. Diputazioan jardun du urtetan; euskara zuzendaria izan zen.



**Haritz Arrieta**
**PSE-EE**

Sozialista Gazteetako kide da, eta baita Arrasateko PSE-EEko exekutibako kide ere. Horretaz gain, zinegotzia da Arrasateko Udalean. 29 urte ditu.

**E. AZKARATE/ U. MADERA** > BERGARA

Alderdi gehienek azpimarratu dute domekako hauteskundeen garrantzia. Arrazoi ezberdinengatik, baina ia denendako dira garrantzitsuak Espainiako Kongresua eta Senatua aukeratzeko botazioak. Asko dagoela jokoan diote; garrantzitsua dela Madrilen agintean zein dagoen; edo Euskadiko talde indartsu baten ahotsa entzunaraztea dela inportantea; edo gipuzkoarron interesak ondoen defendatzen dituztenak direla...

Ia denek eskatu dute botoa eta jendeari eskatu diote botoa ematera joateko domekan. Hautetsi Independentisten iritziz, ordea, salbuespen egoeran bizi gara, alderdiak legez kanporatu edo euren jarduera etenda, eta testuinguru horretan, onena bozkatzera ez joatea dela diote.

## Lorea Leanizbarrutia

EAJ

### "Abstentzioa da une honetan Euskadiri egin diezaiokegun kalterik handiena"

Lorea Leanizbarrutiaren iritziz, EAJrena izango da domekan botorik erabilgarriena, "Madrilen ezinbestez entzun beharreko ahots indartsua delako". Batez ere, "Estatuaren gehiegikerien aurrean". Horregatik uste du abstentzioa dela une honetan Euskadiri egin diezaiokegun "kalterik handiena". Ezker abertzaleak hartu duen erabakia, hala ere, "errespetagarria eta ulertzekoa" dela dio, baina uste du Madrilen egon behar dela eta "beste marko politiko baten bila joan behar dugula"; horretarako, ezinbestekoa dela "indartsu agertzea".

EAJren hautagaiaren ustez, Rajoik eta Zapaterok gauza berak egiten dihardute Euskadirekiko, "demokrazia izorratzen dabiltza" eta "periferiako abertzaletasuna ezabatzeko tentazioa dute. Horren aurrean isilik ezin gara egon eta Madrilen entzunarazi behar dugu", dio. Zapaterok agintaldi honetan ez duela "ezertxo ere egin" dio, Rajoiri beldur handia izan diolako. "Bakea negozio handia da horiendako", dio, Estatuan lor ditzaketen botoak "hemengo gorabeheren araberakoak direlako". Gainera, dio Euskadiko herritarren ordezkariei, Ibarretxe lehendakariari eta beronek aurkeztutako estatutu berrirako proposamenari ez diotela kasurik ere egin.

Senatari izango balitz Gipuzkoaren alde egingo lukeenaz galdetuta, Euskadiren interesak "defenditzeko" ekimenak bultzatu eta "adi egon" behar da: "Esaterako, portuak eta aireportuak kudeatzeko eskumenak eskuratzen saiatuko gara". Bestalde, galiziar eta katalanekin batera, "eskubide historikoak eta egitate bereizgarria" babestuko dituztela dio.

## Haritz Arrieta

PSE-EE

### "Hauteskundeetan jokoan dagoena da Moncloan Zapatero edo Rajoi egotea"

"Domekako hauteskundeetan jokoan dagoena da Moncloan Zapatero edo Rajoi egotea". Hala dio Haritz Arrieta sozialista arrasatearrak. Bestalde, azken udal eta Foru Aldundirako hauteskundeetan Gipuzkoan lehenak izan ziren neurrian, oraingoan ere hala izatea espero dute.

Debagoiendar baten ikuspuntutik, Madrilen agintean zein dagoen inportantea den edo ez galdetuta, adibide batekin erantzun du: "PP gobernuan egon zenean atzerapen handia egon zen Epeleko araztegia egiterakoan; aldiz, Zapatero Moncloara heldu zenean berehala heldu zion eta lanak hasita eta bide onetik doaz araztegian". Porrot egin zuen bake prozesuaz galdetuta, dio ETAk hautsi zuela, itxaropen onak zituztela, baina Barajasko aireportuan egin zen atentatuarekin "bertan behera geratu" zirela itxaropen guztiak. "Eskatzen diogu ezker abertzaleari aldentzeko ETArengandik. Haiek eman behar dituzte urratsak eta apustu egin bakearen alde. ETAk eta ingurukoek bota dute pikutara bake prozesua", dio. Eta aurrera begira hauxe dio: "ETAk aldebakarreko erabakia hartu behar du: armak utzi; ez dago beste biderik".

Ibarretxeren proposamenaren aurrean dio Madrilera joan beharko duela eta badakiela han ezetz esango diotela. "Legez kanpo dagoen proposamena da", dio.

Politika sozialak bultzatuko dituztela dio: gazteendako 210 euroko dirulaguntza etxea errentan hartzeko, dependentziako legea... Eta ekonomiaz galdetuta, dio arazo ekonomikoak globalak direla eta, Zapaterok esan duen moduan, laster hipoteken arazoa "normalizatu" egingo dela eta "prezioak jaitsi" egingo direla.

## Agurne Barruso

HAUTETSI INDEPENDENTISTAK

### "Bizi dugun salbuespen egoeraren aurrean, onena botoa ematera ez joatea da"

Abstentzioaren alde egingo du domekan Agurne Barruso hautetsi independentistak. Bi arrazoi nagusirengatik: "Ez direlako hauteskunde demokratikoak", EAEk galarazita duelako parte hartzea eta "bizi dugun egoera salbuespen egoera" delako. Horren aurrean, onena "botoa ematera ez joatea dela" dio Barrusok. Horren ildora dio EAJ "beldur dela abstentzioak izan dezakeen indarra" dela-eta.

Amaitu berri den agintaldian porrot egin zuen bake prozesuaren gainean, bestalde, Barrusok dio erantzuleak sozialistak eta jeltzaleak direla: "Prozesua sakontasunera heldu zenean eta mahai gainean jarri zirenean benetako gakoak irtenbiderako, bai EAJk eta bai PSE-EEk ezetz esan zuten".

Sozialistek eta Popularrek hauteskunde kanpainan bake prozesuaren eta elkarrizketaren gainean erakutsitako kontrako jarreraren aurrean hautetsi independentistak dio ez dagoela beste irtenbiderik: "Lehenago edo geroago elkarrizketaren bideari ekin beharko dio Madrilen agintean dagoenak eta hori badakite haiek ere, 30 urteko borrokaren ostean garaipen poliziala ez delako irtenbidea".

Madrilen agintean nor dagoen garrantzirik badaukan galdetuta, Barrusok dio kontua ez dela hori, baizik eta Euskal Herriko alderdiek eta herritarrek "zer jarrera hartzen duten". Hauteskunde hauetan jokoan zer dagoen galdetuta dio "bi proiektu politikoren arteko talka" agerikoa dela eta erabaki behar dela zeren alde egiten den: batetik, "estatu espainolaren proiektua eta horren barruan Euskal Herria asimilatzea" eta, bestetik, Euskal Herriak bere bide propioa egin ahal izatea. "Herri hau bidegurutzean dago eta erabaki egin behar da", dio; eta hauteskunde ostean, "Gernikako Estatutuaren erreformaren alde" egin beharrean, "independentziara eroango gaituen marko demokratikoaren alde" lanean jardun beharko dela adio.

## Nekane Altzelai

EA

### "Erabakitzeko eskubidearen aldeko jarrera eroango dugu Madrilera"

EAren helburua da "EAk Madrilen izan duen eserlekuari eustea", Nekane Altzelairen esane-

ESANAK

**"EAJrena izango da domekan botorik erabilgarriena, Madrilen ezinbestez entzun beharreko ahots indartsua delako"**

Lorea Leanizbarrutia > EAJ

**"Eskatzen diogu ezker abertzaleoi aldentzeko ETArengandik; haiek eman behar dituzte urratsak eta apustu egin bakearen alde"**

Haritz Arrieta > PSE-EE

**"Lehenago edo geroago elkarrizketaren bideari ekin beharko dio Madrilen agintean dagoenak; hori badakite PPk eta PSOEk ere"**

Agurne Barruso
> Hautetsi Independentistak



**Agurne Barruso**
**Hautetsi Independentistak**

Bergarako alkatea. EAEk hauteskundeetan parte hartzea galarazi izan ez balute, hirugarren zihoan Kongresurako Gipuzkoatik. 39 urte. Euskal Filologian lizentziaduna.



**Nekane Altzelai**
**EA**

Gipuzkoatik lehena Kongresurako. Legebiltzarkidea Gasteizen 1994a ezkero. Legazpiarra, Donostian bizi da. 41 urte. Ekonomialaria. Greenpeaceko bazkide da.



**Iñaki Irazabalbeitia**
**Aralar**

Gipuzkoako zerrendaburua Kongresurako. 50 urte. Donostiarra. Euskaltzaindiko urgazle, kimikako doktore eta Elhuyarreko kide ere bada.



**Mikel Izagirre**
**Ezker Batua**

Hirugarren doa Gipuzkoatik Kongresurako. Batzarkidea da Gipuzkoako Batzar Nagusietan Ezker Batua taldearen izenean. 58 urte ditu.



**Itziar Lamarain**
**PP**

Arrasatearra, Gasteizen bizi da. Zinegotzia Arrasateko Udalean. Hautagaia da Kongresurako: lehenengo ordezkoa Gipuzkoatik PPren zerrendan.

tan. Haren ustez, legealdi berriak "eskubidearen aldeko legealdia" izan behar du. Hala, EAk Madrilera eramango du "Euskal Herriaren erabakitzeko eskubidearen aldeko jarrera"; halaber, "gainontzeko alderdiei horren aurrean posizioa harraraztea" da EAren beste helburuetako bat.

Defendatuko dituen bestelako gaien artean, berriz, pentsioak aipatu ditu, "hainbat pentsio aurrezki mailatik behera" daudela dio, eta "pentsioen duintasuna aldarrikatuko" dutela. Lan kontuetan, berriz, "euskal espazrua aldarrikatzen" du, "kalitatezko enplegua" sortzeko eta "soldata duinak bermatu" ahal izateko. Beste arlo batzuetan, Defentsa Ministerioak Gipuzkoan dituen lurrei "erabilera publikoa" ematea defendatuko du. Adibidez, Loiolako kuartelean "gazteendako etxebizitzak" sortu gura dituzte; Jaizkibelen, "tiro probak egiten dituzten lursailak aisialdirako erabiltzea" eta beste. PSOE edo PPren artean aukeratzeko orduan, berriz, EAk ez du "desberdintasunik ikusten". Dio Rajoik ez duela onartzen "Euskal Herrian gatazka politikoa" dagoenik eta ez duela "subjektu politiko moduan onartzen". Horren ondorioz, dio PPrekin ezin dutela "adostasunik sinatu".

Zapaterori dagokionez, berriz, dio legealdia amaitu duela "Rajoiren estrategia kopiatuz"; horrenbestez, orain harekin adostasuna lortzea ere ezinezko ikusten du.

Oro har, EAk uste du " negoziazio eta erabakitzeko eskubidearen bidez konponduko" dela hemengo gatazka.

## Iñaki Irazabalbeitia

ARALAR

### "Aralar da aukerarik onena ezkerreko, abertzale eta independentziaren aldekoendako"

Aralarko Iñaki Irazabalbeitiak dio Gipuzkoako gehiengoa dela bakezalea, abertzalea eta ezkerrekoa eta Aralar dela printzipio horiek ondoen aldarrikatzen dituena.

Era berean, dio Madrilen egotea garrantzitsua dela, han eztabaidatzen direlako hainbat lege proposamen "gipuzkoarroi eguneroko bizitzan eragiten digutenak". Hala, Hautetsi Independentistek abstentzioaren alde egin duten deiaren aurrean, Irazabalbeitiak dio abstentzioa jarrera politiko zilegia dela eta zenbait kasutan erabiltzea "komenigarria" dela, baina uste du "hau ez dela kasua"; abstentzioa eraginkorra izan dadin "hori eskatzen duen bloke handia egon behar delako" atzetik eta "ez dut uste hori denik kasua", dio.

Aralarren ustez, askoz ere eraginkorragoa da hauteskundeetara biltzea jendea eta alde horretatik Irazabalbeitiak uste du Aralar dela "aukerarik onena" bere burua "ezkerreko, abertzale eta independentziaren" aldekoa duenarendako.

Madrilen ordezkaritza lortuz gero egingo lukeen lehen gauza zein izango litzatekeen galdetuta, zera dio: "Gipuzkoarroi egunerokoan eragiten diguten arazoei irtenbidea eman, esaterako, zaborren kudeaketan soluzioak topatu". Bestalde, monarkia abolitzeko eskatuko duela ere zin egin du.

Aralarren programak lau ardatz nagusi dituela dio: batetik, erabakitzeko eskubidearen alde egitea, "horretarako aliatuak bilatuz. Bigarrena, pertsona guztiak, ideia guztiak, proiektu guztiak babestea; hau da, "giza eskubide partikular zein kolektiboen defentsa". Hirugarrena, euskararen alde egitea. Eta laugarrena, ezkerreko politika tinkoen defentsa: "Berdintasunaren, ingurumenaren, gizarte laikoaren, errepublikaren emakumeek abortatzea erabakitzearen... alde". Gutxieneko soldata 1.200 euro izatea ere eskatuko dute.

ESANAK

**"Zapaterok legealdia amaitu du Rajoiren estrategia kopiatuz; ondorioz, orain harekin adostasuna lortzea ere ezinezkoa da"**

Nekane Altzelai > EA

**"Abstentzioa eraginkorra izan dadin, hori eskatzen duen bloke handia egon behar da atzetik eta ez dut uste hori denik kasua"**

Iñaki Irazabalbeitia > Aralar

**"Zapatero izan da Alderdien Legearen bultzatzaile nagusietako bat eta haren aplikaziorik gogorrena egin duena"**

Mikel Izagirre > EB

**"ETA desagertu egin behar da, eta, behin hori gauzatuta, gizarte osoa jar daiteke mahai baten inguruan berba egiten"**

Itziar Lamarain > PP

## Mikel Izagirre

EB

### "Esperantza handiak sortu arren, porrot handiarekin bukatu du legealdia PSOEk"

PSOEk agintaldian "agindu asko eta erantzun gutxi" eman duela uste du Ezker Batuak. Mikel Izagirreren esanetan, "esperantza handiak" sortu arren, "porrot handiarekin" bukatzen dabil legealdia.

Arlo sozialari dagokionez, azpimarratu du "indar ekonomikoak horrenbeste garatu diren garaian" giza talde asko geratu direla "albora" eta PSOEren gobernuak "desoreka" handiagoak ekarri dituela.

Arlo politikoan, berriz, esan du Zapatero izan zela "Alderdien Legearen bultzatzaileetako bat" eta haren "aplikaziorik gogorrena" egin duela; "gure gizartean zenbat atal soziali egin dion eraso" ikustea besterik ez dago, dio EBk.

Ezker Batuaren eskaintzaren barruan, berriz, "ardatz nagusienak aldarrikapen sozialak" direla azpimarratu du, "talde baztertuenak integratzeko". Baina gaineratu du "Zapaterok egin dituen murrizketa politikoen kontrako bidea" egingo dutela. Alderdien Legearen aurrean, "borroka" egin beharko dutela dio, hura "deuseztatzeko", eta baita ere "gizarte honetan gertatzen diren horrenbeste legez kanporatze eta gainontzekoei" aurre egiteko.

Etorkinei buruz, berriz, lege berriak egitea gura dute. Izagirrek nabarmendu du gizarteak etorkinak "behar" dituela, egiten dituztelako besteek "egin nahi ez dituzten lanak". Baina "horren truke", egoera juridiko "eskasa eta kolokan dagoena" ematen zaiela gehitu du Izagirrek. Eta uste du haien "ekarpena errekonozitu" egin behar dela, "gutxienez, arlo juridikoan, eskubideak emanez eta gizarte segurantza eta gainontzekoetan integratuz".

## Itziar Lamarain

PP

### "PSOEk irabaziz gero, Espainiako Estatua apurtzeko arriskua dago"

Alderdi Popularrak azpimarratu du PSOEk irabaziz gero, Espainiako Estatua "apurtzeko" arriskua dagoela; PSOEk Katalunia, Galizia eta Balear Irletan alderdi independentistekin gobernatzen duela gogora ekarri du, "arduratu gabe zein prezio ordaintzen duten horretarako", eta PPk uste du alderdi independentistok "prezio oso handia eskatzen" dutela: "Espainiaren apurketa".

Horrekin batera, Lamarainek argi utzi du ETArekin ez dutela negoziatuko eta bide horretan ez dutela PSOEren jarduna babestuko: "De Juana Chaos kalean uzteko edo De Juana Chaos eta Otegi 'bake gizonak' direla esateko ez gaude prest". Ados daude, hori bai, "ETAri esateko armak uzteko".

Batasuneko ordezkariak kartzelaratzearen aurrean, berriz, dio haiek kartzelan daudela, "epaileen sententziak betetzen". Eta legeekin ados izan ezean Lamarainek zera gaineratu du: legeak egiten dituzten ordezkariengana jo beharko genukeela "lege horiek aldatzeko".

Boterera iritsiz gero, PPk esaten duena da "ETA desagertu egin behar" dela. Behin hori gauzatuta, "gizarte osoa jar daiteke mahai baten inguruan berba egiten, baina arma barik", aditzera eman du ordezkari popularrak.

Bestalde, koalizioren bat osatu behar izanez gero, "alderdi legal guztiekin berba egiteko" gertu daudela nabarmendu du. Eta besteak beste, etorkinei begira, "trabak" ez dituztela ipintzen azpimarratu du, baizik eta gura dutena dela "eskubide berak" guztiendako, "baina betebeharrak ere bai". PPk uste du etorkinek "gure legeak eta bizimodua errespetatu eta bete" behar dituztela.




SORALUZE S. COOP. Bergarako lantegia Danobat taldeko enpresa da eta BECen dagoen erakusmahai handiena da eurena. MIREN ARREGI

**DEBAGOIENA** > MAKINA-ERREMINTAREN BIURTEKOA

# Debagoieneko 12 enpresatako produktuak BECen erakusgai

Ibarreko enpresek diote BEC ezinbesteko hitzordua dela harremanak egiteko

Enpresa gehienek urte mordoa daramate BECen produktuak erakusgai ipintzen

**MIREN ARREGI**> ARRASATE

38 herrialdetako 1.761 enpresarendako tokia egokitu dute BECen. Horien artean, ezin falta Debagoieneko enpresak: Bergarako sei, Arrasateko hiru eta Elgeta, Aretxabaleta eta Antzuolako enpresa banak ipini dituzte produktuak BECen erakusgai. Sektorearen arabera sei pabiloitan banatuta, Debagoieneko enpresak euren produktu eta zerbitzuak merkatuan zabaltzen ahalegindu dira. Erakusmahai guztietako arduradunen iritzi orokorra da erakustazokak, saltzeko baino gehiago, kontaktuak egiteko balio izaten duela.

**DEBAGOIENETIK, HAMABI**

Bergarako Tecnologia y Sistemas para EDM enpresak elektroerosio bidez zuloak egiten dituen makinak aurkeztu ditu BECen: "Hemen ipini dugu elektroerosio bidez 0,1 diametroko zuloak egin ditzaketen makinak", azaldu du enpresako gerente Asier Etxeberriak. Soraluce S. Coop. enpresa Danobat taldeko enpresa da. Fresatzeko makinak egiten dituzte eta BECen dagoen erakusmahai handiena da eurena. Han egoteak irudia eta merkatuan egoteko aukerak ahalbidetzen ditu, Eleazar Raya komertzio arduradunaren esanetan. Orni SL enpresa ere Bergarakoa da, eta piezei bizarra kentzeko makinak egiten dituzte. Bezero bakoitzaren beharren arabera egiten dituzte piezei bizarra kentzeko makinak: "Jantziak neurrira egitea bezala da", esan digu Iban Escribanok, komertzio ingeniariak. Sitalu enpresak, Bergarakoa hura ere, ALUSIC talde italiarrak egindako aluminioa saldu eta komertzializatzen du. BECen erakusgai ipini duten pieza bereziena aire konprimituen instalazioak egiteko erabiltzen dutena da. BECen erakusgai dagoen Bergarako azken enpresa Filtroman enpresa da. Olio eta taladrina iragazketa sistemak egiten dituzte. Merkatuan dagoen ur-arazketa mailarik handienak lortzen dituen ekipo bat dute erakusgai.

Arrasateko enpresei dagokienez, Fagor Arrasatek erakusmahai iformatiboa ipini du. Dituzten negozio ildo desberdinen gaineko informazioa eman dute; hala nola forjarako sistemak, prentsak eta estanpazio sistemak, prentsa hidraulikoak... Arrasateko Lasa Lineas Automaticas enpresak prentsa eta alimentazio linea batuko dituen makina aurkeztu du. Fagor Automationek kontrol numerikoak egiten dituen CNC 8070 makina bat eta Aretxabaletako Mondragon Sistemas enpresak, berriz, industria mailako kontrolak eta laborategiko instalazioen kontrol eta neurketak egiteko moduak aurkeztu ditu.

DATUA

**12**

**ENPRESA DEBAGOIENETIK**

Oerlikon Balzers SA; Mondragon Sistemas de Informatica; Fagor Automation; Fagor Arrasate; Lasa; Filtroman; Grupo TTT; Orni SL; Sitalu SL; Soraluce S. Coop.; Tecnol. y Sistemas EDM; eta Sisteco.

ESALDIA

**"Urte batzuk dira etorri ez garela, baina zerbitzu jakin batzuk merkatura zabaltzeko gogoa genuen. BECek Kontaktuak egiteko bidea ematen du"**

**Gerardo Errasti** > Mondragon Sistemas




**Grupo TTT TIS**

Zerbitzuak eta produktuak eskaintzen dizkiete automobilgintza, aeronautika, makina-erreminta eta beste hainbat sektoreri. Ohiko tratamendu eta estalduratik hasita, gainazal-ingeniaritzako teknologiarik aurreratuenak erabiltzen dituzte.




**Sisteko Maquina Herramienta SL**

Metalezko eta burdinazko material zirkularrak mozteko irtenbideak ematen dituzte. "Merkatuaren %20-25 dugu, oso kalitate handiko produktuak dira", dio Jon Beretxinagak, salmenta zuzendariak. Produktu berriak ezagutarazi dituzte.




**Oerlikon Balzers-Elay Coatin SA**

Estaldurak egiten ditu Antzuolako Balzers enpresak. BECen erakusgai ipinitako berrikuntza da tenperatura baxuetan egindako estaldurak. Modu horretan, estali beharreko piezak ez du eraldaketarik jasaten.




**PRENTSAURREKOA** Argazkian, Juan Mari Otaegi eta Elias Atutxa. ARANTZAZU EZKIBEL

**EKONOMIA** > EUSKADIKO KUTXA

# Euskadiko Kutxako bazkideak %8,8 igo dira

Era berean, hedapen sareko bezeroen kopuruak %22ko igoera izan zuen 2007an; hala, orain, 1.144.598 bazkide ditu Euskadiko Kutxak

**MIREIA BIKUÑA**> ARRASATE
Euskadiko Kutxak 2007. urteko balorazioa egin zuen atzo eguerdian, Arrasaten. Euskadiko Kutxako presidente Juan Mari Otaegi, eta entitateko Zuzendari Nagusi Elias Atutxa gustura agertu ziren Euskadiko Kutxak 2007an lortu zituen emaitzekin. "Bazkideetan, %8,8ko igoera izan genuen iaz, eta orokorrean, %15,5eko hazkundea izan genuen. Hortaz, negozio guztietan, indartsu jarraitzen dugula esan behar dugu". Gainera, 210 miloitako irabaziak izan zituztela azpimarratu zuten. "Horrek esan gura du, 2007an, %18,7ko igoera izan genuela".

**17 BULEGO BERRI**
Beste hainbat datu ere azaldu zituzten atzoko agerraldian. Hedapen sareko, hau da, Euskal Herritik eta Nafarroatik kanpo dauden bulegoetako bezero kopurua %22 igo zen iaz. "Orain, 1.144.598 bazkide ditu Euskadiko Kutxak, eta oso gustura gaude", azpimarratu zuen Elias Atutxak.

Bestalde, 2007an 17 bulego berri zabaldu zituzten, eta dagoeneko 389 bulego dituzte; hain zuzen, haietatik, %34 hedapen sareko bulegoak dira. "Aurten ere 16 bulego zabalduko ditugu: 14 hedapen sarekoak izangodira, eta Madrilen, Kantabrian, Burgosen eta Asturiasen zabalduko dira, eta beste biak, Bizkaian".

**ZIKLO ALDAKETA**
Hipoteka maileguetan ere igoera nabarmena izan zuen Euskadiko Kutxak, hain zuzen, %16ko igoera, eta 2008an bide beretik jarraitu gura dute. "Eraikuntza-enpresen krisia dela eta ziklo aldaketa datorrela uste dugu. Dena dela, gu nahiko baikor gaude, eta hipoteka maileguetan %10eko igoera izatea aurreikusten dugu", azaldu zuen Elias Atutxak. Era berean, Euskadiko Kutxaren negozioaren bolumena %10a haztea espero dute.

**INTERNET BIDEZKO ZERBITZUAK**
Euskadiko Kutxak Internet bidez eskaintzen dituen zerbitzuek ere igoera garrantzitsuak izan zituzten; besteak beste, *cajalaboral.net* web guneak, 34 milioi sarrera izan zituen.

Bestalde, 2008an, 29 kutxazain berri jarriko dituztela esan zuten prentsaurrekoan.

## Zerbitzu kalitate handia ematen duten entitateen rankinean, bigarren

Zerbitzu kalitate handia ematen duten entitate finantzarioen artean bigarren tokian bukatu zuen Euskadiko Kutxak 2007. urtean. Sailkapen hori STIGA izeneko txostenaren arabera egiten da. Txosten horrek, hain zuzen ere, entitate finantzario ezberdinek bezeroarekin duten tratua aztertu eta baloratzen du.

Rankinga egiteko Espainia osoko 103 entitate baloratu dituzte, eta guztiei 0-10 arteko puntuazioa eman zaie, bezeroekin zuten hartu-emanak aintzat hartuta.

Euskadiko Kutxak 8,06ko puntuaketa lortu du, eta sailkapeneko bigarren tokia eskuratu du. "Emaitza oso ona da guretako. Sailkapenak erakusten digu gauzak ondo egiten gabiltzala", azaldu zuen Euskadiko Kutxako Zuzendari Nagusi Elias Atutxak.

Emaitza hori lortzeko, langileriaren lana azpimarratu zuen. "Gure langileak etengabe formatzen dira. Iaz, %90ak formazio ikastaro ezberdinetan parte hartu zuen".

**INGURUMENA**

# Unesco Etxearen ekitaldia Arrasaten

Klima-aldaketari buruzko mahai ingurua egingo dute Kulturaten

**M.B.** > BERGARA
Unesco Etxeak, Arrasateko Udalaren eta Goiena Komunikazio Zerbitzuen laguntzarekin, klima-aldaketari buruzko Nazio Batuen txostena aurkeztuko du martxoaren 11n, martitzenean, 18:30ean. Gainera, txostenaren ildo nagusiak Euskal Herriko ikuspegitik jorratuko dituzte.

Arrasateko Kulturaten egingo den mahai inguruan, klima-aldaketak giza garapenean duen eragina aztertuko dute. Unescoren txostenak dio klima-aldaketaren eragina "sufritzen" gabiltzala dagoeneko. Era berean, txostenak dio klima-aldaketari aurre egin ezean giza garapenak inoizko "atzerapenik handiena" izango duela.

**LAU HIZLARI**
Arrasateko alkate Ino Galparsorok irekiko duen mahai inguruan lau lagunek hartuko dute parte: EHUko Hidrogeologiako irakasle katedradun Iñaki Antiguedadek; EHUko Ingeniaritza Goi Eskola Teknikoko irakasle Gorka Buenok; IHOBE-Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoko teknikari Izaro Basurkok; eta Unesco Etxeko Ingurumen Saileko arduradun Josu Sanzek.

**AZPIEGITURAK** > AUTOBIDEA

# AP-1 autobideak bi zerbitzugune izango ditu bailaran: Arrasaten eta Eskoriatzan

Arrasatekoa Oxina baserriaren ondoan kokatuko dute eta Eskoriatzakoa, berriz, Uztarreta izeneko gunean

**MIREIA BIKUÑA** > BERGARA
Bukatzear dagoen AP-1 autobideko Debagoieneko zatian bi zerbitzugune egongo dira: hain zuzen, Arrasateko Oxina baserriaren ondoan bata eta Eskoriatzako Uztarreta izeneko gunean, bestea. Hala, Oxinalde zerbitzugunea Gasteiztik Eibarrera doazen gidariei emango die zerbitzua. Eta Eskoriatzako gunea, aldiz, Gasteizerako norabidean doazenendako izango da.

**REPSOLEK USTIATUKO DU**
Arrasateko Oxinalde zerbitzuguneak 22.184 metro koadro izango ditu, eta autobidearen 17,750 puntu kilometrikoan kokatuko da. Gainera, Foru Aldundiaren erabakiz, Repsol enpresak ustiatuko du zerbitzugunea datozen 20 urteetan.

Aldundiak jarritako baldintzetan zehazten denez, zerbitzuguneak, gasolindegiaz gain, beste hainbat zerbitzu izan behar ditu: lubrifikatzaileak, erradiadoreendako likido hoztailea, pneumatikoendako airea, ura, autoendako osagarriak, telefonoa eta Interneterako sarrera eta komunak, besteak beste. Gainera, zerbitzua 24 ordukoa izango da, astelehenetik domekara.

**ESKORIATZAKOA TXIKIAGOA**
Eskoriatzan, 24,950 puntu kilometrikoan kokatuko den zerbitzugunean, Oxinalden emango diren zerbitzuak berak egongo dira erabiltzaileen eskura. Uztarretako gunea, baina, 6.000 metro koadrokoa izango da.

AP-1 autobideko bi zerbitzuguneetan emango diren gutxieneko zerbitzuek libre uzten duten tokiaren arabera, beste zerbitzu batzuk jar daitezke Arrasaten eta Eskoriatzan: kafetegia eta denda, autoendako eta kamioiendako aparkalekuak eta autokarenendako tokia, besteak beste.

**URTE BUKAERARAKO AMAITUTA**
2007ko abenduaren 15ean Eskoriatzan egondako lur-jausien ondoren, urte bateko atzerapenaz zabalduko dute AP-1 autobideko Gipuzkoako zatia. Tarte horretan hiru bidesari egongo dira: Eskoriatzan, Etxebarri-Ibiñan eta Lukun. Bestalde, ia bukatuta dago Eibar-Gasteiz autobideko Arabako zatia.

CEREMONIAS 2

Ezkongai jantziak
Amabitxientzako jantziak
Jantzi luzeak

24 hilabeterainoko finantzaketa, interes barik

Donostia
Tel.: 943320275/670857224

**HAUTESKUNDEAK 08** > KANPAINA GUREAN

# Abstentzioa eskatu dute hainbat arrasatearrek

Domekako hauteskundeei begira abstentzioaren alde egiteko arrazoiak eman dituzte asteon Arrasaten, besteak beste

**J.Z.** > ARRASATE
Abstentzioaren aldeko deialdia egin dute asteon Arrasateko Kulturaten egindako ekitaldian.

**ABSTENTZIOAREN ARRAZOIAK**
Abstentzioaren aldeko deialdia egiteko arrazoiak zeintzuk diren azaltzeko orduan, Xabier Zubizarreta alkate ohiak zera esan zuen: "Euskal Herriak gaur egun duen egoeraren sustraiak 1978ko Euskal Autonomia Erkidegoko autonomi estatutuan eta Nafarroa Garaiko amejoramenduan daude". Kulturaten batutakoek iruzur historikotzat jo zituzten bi ekimenok, eta Francok sendotu nahi izan zuen estatu eredua berrezarri zutela salatu zuten. PSOE eta PPren proiektu politikoaren kontra ere egin zuten, eta proiektu hauek EAJren kolaborazio osoz garatu direla gaineratu zuten. Prentsaurrekoaren ostean, bideo emanaldia egin zuten Loiolako negoziazioaren gainekoak azaltzeko. Horren harira, gaineratu zuten, ezker abertzaleak ez duela negoziaziooi berriz heltzeko aukera baztertzen; baina beti ere "lagatako puntu beretik helduz gero, atzerako urratsik onartu gabe".

Debagoieneko beste herri batzuetan ere egin ditu ezker abertzaleak ekitaldiak asteon, Bergaran, Oñatin. Gaurko, martxoak 7, ere Independentzia egunak deituta daude Arrasaten Oñatin eta Bergaran, besteak beste.



**EKITALDI NAGUSIA.** Argazkian, Xabier Zubizarreta beste kide batzuekin. M.A.



**KULTURATEN** Irudian, Leanizbarrutia, Bikuña, Egibar eta Apraitz. GOIENKARIA

# EAJk abstentzio deia gogor kritikatu du

"Oztopoen gainetik Euskadiren etorkizuna eraikitzeko giltza Eutzko Alderdi Jeltzaleari botoa ematea dela" adierazi zuen Bikuñak

**J.Z.** > ARRASATE
Martxoaren 9an egingo diren Espainiako Estatuko hauteskundeetarako aukeratutako *Euskadin bizi naiz ni, zu non bizi zara?* lelopean, Euzko Alderdi Jeltzaleak ekitaldia egin zuen egubakoitzean Kulturaten. Bertan, Juan Luis Bikuña, Lorea Leanizbarrutia, Luis Maria Apraitz eta Joseba Egibar izan ziren.

**PSOE ETA PP AHOTAN**
Senaturako ordezko hautagai Juan Luis Bikuña bergarararrak hasi zuten ekitaldia; hark esan zuen oztopoen gainetik Euskadiren etorkizuna eraikitzeko bermea edo giltza Euskal Herrian EAJri botoa ematea dela. Ezker abertzaleak egindako abstentzioaren aldeko deia ere gogor kritikatu zuen Bikuña bergarararrak.

Joseba Egibarrek, berriz, Alderdi Sozialista izan zuen ahotan, eta adierazi zuen PSOEk argi eta garbi dakiela hauteskundeak irabaziko dituela eta haien jokoa gizartean duda sortzea dela. Hain justu, Egibarrek uste du Alderdi Sozialista jolasean dabilela PPk hauteskundeak irabazteko dituen aukerekin.

# Gobernuaren borondate falta salatu du EAk

"Independentzia hain urrun ez dagoela" adierazi du Garaikoetxeak

**JASONE ZABALA** > ARRASATE
Eusko Alkartasunak mitin nagusia egin zuen asteazken arratsaldean Kulturaten. Bertan, Nekane Altzelai Kongresurako zerrendaburua eta Carlos Garaikoetxea lehendakari ohia izan ziren.

**KONPETENTZIAK**
Altzelaik hauxe aurreikusi zuen: "PPk eta PSOEk ez dituzte inoiz konpetentziak transferituko". Eta zera gehitu zuen: "Ez dugu Espainiarekin bizi nahi. Euskal Herriari ez zaio galdetu zein harreman nahi duen Espainiarekin". Garaikoetxeak, berriz, independentzia hain urrun ez dagoela aditzera eman zuen.


**EKITALDIA** Irudian, Altzelai.

# "Ezker aberria" eraikitzen

Aralarrek aldarrikatu du "ezkerretik eragingo duen politika ausarta"

**JASONE ZABALA** > ARRASATE
Aralarrek Debagoieneko hauteskunde kanpainako ekitaldi nagusia egin zuen pasa den asteartean, martxoak 4, Arrasateko Kulturaten. Bertan, besteak beste, Jon Abril Aralarreko koordinatzaileordea, Aser Lertxundi Senaturako Gipuzkoako zerrendaburua, Rebeka Ubera Gipuzkoako batzarkidea eta Joxe Etxeberria Arrasateko zinegotzia egon ziren.

Jon Abrilek, lehenik eta behin, bozkatzera joatearen garrantzia azpimarratu eta abstentzioari aurre egiteko dei egin zuen. Abrilen ustez, "botoa ematera joatea garrantzitsua da ezkerreko ahotsak eta abertzalegoak ordezkatuak egon behar duelako Madrilen, bertan Euskal Herriarentzat garrantzitsuak diren erabakiak hartzen direlako", eta hauxe gaineratu zuen: "Botorik ez badugu ematen, herri hau PP, PSOE eta EAJren eskuetan utziko genuke eta beraiek bakarrik ordezkatuko lukete Euskal Herria. Hori onartezina da, bai ezkerreko ikuspegitik eta bai abertzale ikuspegitik, PP, PSOE eta EAJk ez dutelako Euskal Herriaren gizartea ordezkatzen, eta horretarako igandean bozkatzera joan behar dugu denok".


**ARALAR** Abril martitzeneko ekitaldian.

**BOTOA EMATEA GARRANTZITSUA**
*Ezker aberri ezkerra berri,* kanpainako leloak biltzen duen moduan, "ezkerra berria da eta Aralar ezker aberria eraikitzen ari da. Hortaz, martxoaren 9an Aralar da herri honentzat, Gipuzkoarentzat eta baita Euskal Herri osoarentzat etorkizunerako apustua", azpimarratu zuen Jon Abril koordinatzaileordeak.

# Sozialistak Epeleko araztegian

**J.Z.** > ARRASATE
Atzo, eguena, Miguel Buen PSE-EEko Kongresurako zerrendaburua Epeleko araztegian egon zen. Besteak beste, adierazi zuen araztegiak onurak ekarriko dizkiola bailarari eta proiektua 2009. urterako amaituta egongo dela.


**ARAZTEGIAN** Irudian, Buen.

# PP alderdiak ekonomia mintzagai

**J.Z.** > ARRASATE
Alderdi Popularrak Arrasaten egin zuen ekitaldia joan den ostegunean, otsailak 28. Bertan, Gipuzkoako hautagai Jose Eugenio Azpiroz izan zen. Azpirozekin batera, Itziar Lamarain Arrasateko zinegotzia egon zen Arrasaten.

Azpirozek adierazi zuen "ekonomia sozialean eredu da Arrasate, ez bakarrik Gipuzkoa edo Euskal Herri mailan, baita mundu mailan ere". Azpirozek esandakoaren arabera, PPk, batez ere, langile autonomoen alde egingo du lan. Modu horretan, gobernuan egon ziren urteetan egindako lanarekin jarraituko dutela esan zuen alderdi popularreko hautagaiak.




**AGERRALDIA** Argazkian, Vicente Atxa, Josu Zabala eta Lander Beloki. GOIENKARIA

**HEZKUNTZA** > TITULAZIO BERRIAK

# MUk europar espaziora egokitutako zortzi titulazio eskainiko ditu

Ingeniaritzari eta enpresa-zientziei lotutako titulazioei esker, MU da europar espaziora egokitu den lehen euskal unibertsitatea

**MIREIA BIKUÑA** > ARRASATE

"Irailetik, Mondragon Unibertsitatearen eskaintza akademikoa Europara egokituta egongo da, europar espaziora egokitutako zortzi titulazio eskainiko ditugueta". Hala hasi zuen MUko errektore Josu Zabalak eguazteneko prentsaurrekoa. Harekin batera egon ziren Goi Eskola Politeknikoko zuzendari Vicente Atxa eta Enpresa-Zientzietako Fakultateko dekano Lander Beloki.

**ZAZPI, INGENIARITZA ARLOKOAK**

Europar espaziora egokitutako ingeniaritzari eta enpresa-zientziei buruzko zortzi titulazioetatik zazpi ingeniaritza arlokoak dira; hain zuzen, Industriako Ingeniaritza; Telekomunikazioetako Ingeniaritza; Ingeniaritza Mekanikoa; Industria Elektronikako eta Automatikako Ingeniaritza; Industria Antolamenduko Ingeniaritza; Informatikako Ingeniaritza; eta, Industria Diseinuko eta Produktu Garapeneko Ingeniaritza. Zortzi titulazio horiek Arrasateko Goi Eskola Politeknikoan emango dituzte.

Zortzigarren titulazioa enpresa-zientzien alorrekoa da: hain justu ere, Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako graduazioa, eta Oñatiko fakultatean emango dute.

**IKASLEAK PROTAGONISTA**

MUk irailetik aurrera eskainiko duen irakaskuntza egokituak oso eredu ezberdina du ohiko irakaskuntzaren aldean. Ereduaren helburua ikasleei gaitasun pertsonal, sozial eta profesionaletan trebatzea da, lan-munduaren erronka berriei aurre egiteko. "Ikasleek gai izan behar dute hezkuntzaren ardura bereganatzeko, taldean lan egiteko, proiektuak zuzentzeko, erabakiak hartzeko, negoziatzeko eta komunikatzeko", azaldu zuen Lander Belokik. Era berean, irakaslearen eginkizuna errotik aldatuko da." Irakaslea tutore antzekoa izango da, eta haren eginkizun nagusia ikaslearen hezkuntza sustatzea izango da", azpimarratu zuen Vicente Atxak.

Plangintzari dagokionez, ikasleak gelan emandako denbora eta ikasgelatik kanpo egindako lana hartuko dira kontuan balorazioa egiteko; hala, azken azterketetan oinarritutako eredua desagertu egingo da.

Titulazio berrien oinarria euskara izango da, baina ikasleek ikasketak amaitzean gaztelania eta ingelesa ere modu berean menderatu ahal izatea da egokitutako titulazioen helburuetako bat.

DATUA

**410**

**IKASLE**

Europar espaziora egokitutako zortzi titulazio berrietan 410 ikaslerendako tokia dago. Hala, Arrasateko eta Oñatiko fakultateetan 50 ikasleko taldeak osatu gura dituzte irailetik aurrera.

ESALDIA

**"Harro gaude eman dugun pausoarekin, baina gizartearen zerbitzurako gauden heinean, hobetzeko lanean jarraitu behar dugu"**

**Josu Zabala** > MUko errektorea

## kontsumoa



Azken urteetan aitaita-amama askok zaintzen dituzte bilobak. GOIENKARIA

### Txikienen zaintza: umezaintzara eraman ala umezaina kontratatu?

**J.Z.** > BERGARA

Umezainen eta umezaintzen eskakizun soziala handituz doa etengabe. Horietako bat edo bestea aukeratzea faktore pertsonalek eta ekonomikoek baldintzatzen dute, baina, edonola ere, kontuan izan behar direnak familiaren premiak eta umearen nolakotasunak dira. Espainian emakumeen %33 ikastetxeko ateak ireki aurretik lanpostuan sartzen dira eta %59k lanaldia amaitzerako, haurrek ikastegiko jardunaldia bukatuta dute. Egoera horrek *hirugarrengoen* zerbitzuak kontratatzea agintzen du. Familia *pribilegiatu* batzuek aitajaun-amandreen edo familiartekoen laguntza jasotzen dute. Gehientsuenek, ordea, umezaintzako zerbitzuak baliatu edo, bestela, umezaina kontratatu behar izaten dute. Umezaintza, orokorrean, umezaina baino merkeagoa da, baina, hala ere, prezioak garrantzi handia badu ere, ez da kontuan hartu beharreko elementu bakarra.



### Jogurtaren azido laktikoak ahoko osasuna hobetzen du

Jogurta jateak hortzen osasuna hobetzen du. Ikertzaile japoniar batzuek egindako ikerketa batean, gaixotasun periodontala zuten 40 eta 79 urte bitarteko 942 pertsonak hartu zuten parte. Ikertzaile japoniarrek ondorio hauek atera zituzten: gaixo haiek hartzen zituzten esneki eta jakien kontsumoa aztertu ondoren, zenbat eta halako produktu gehiago hartu, orduan eta hobea zen hortzen osasuna. Hobekuntza hori azido laktikoa duten jogurt edo edariak hartuta lortzen da.



### Trafiko kutsadurak polenaren efektua handitzen du

Baserrian bizi direnek kalean bizi direnek baino gutxiago sufritzen dute polenaren alergia. Hori, gehienbat, zirkulazioarengatik da. Ihes-hodiak botatzen dituen partikulek –bereziki dieselak diren autoak– polenaren alergia gaitasuna bikoiztu egiten dute, eta halako gaixotasuna duen jendearengan duen eragina 27 aldiz handiagoa da. Gaur egun autoen %70ek erregai mota hori erabiltzen dute, eta alergiak areagotzen ditu diesel motorrak: gasolinazkoak baino 100 aldiz partikula gehiago sor dezake.

gure artekoak

**SAAB 9.3 SPORT SEDAN** > Saab etxeak 2007. urte amaieran merkaturatu zuen 9.3 modelo berria. Etxe bereko beste modelo batzuen moduan, bioetanola erabiltzen duen Biopower motorra eskaintzen du aukeran.

**Xabier Tristan** > Giauto Saab etxeko saltzailea

# "Etorkizun garbiagoaren aldeko apustua egin dugu"

**ARANTZAZU EZKIBEL** > BERGARA

2007. urte amaieran merkaturatu zuen Saab etxeak 9.3 modelo berria. Diseinuari dagokionez, aldaketa nabaria izanan du Saab berriak; aldaketa estetikoak izan dira nabarmenenak, baina baita, motor eta ekipamenduari dagozkien hobekuntzak ere.

"Bi turboko diesel motorra da berrikuntzetako bat (180 ZP); gainera, 200 ZP hartzen duten Biopower motorrak ere berriak dira", azaldu du Xabier Tristan salmenta saileko arduradunak.

**BIOETANOLA, EKOLOGIKOA**

Saab etxearen erronka etorkizun garbiagoa lortzea da; horretarako, lehenengo pausoa eman du Saab etxeak: gutxiago kutsatuko duten autoak egin dituzte. Hala, bioetanol erregaiarekin ari den auto gama zabala merkaturatu du Saabek. Bioetanola ordezkoa eta berriztagarria den erregaia da. "Erregai mota horrekin, Biopower autoek ingurumena zaintzeko ardura hartu dute. Buru-belarri sartu da Saab etxea arazoari aurre egiteko arduran", gaineratu du Tristanek. Bioetanol erregai berriarekin, %80 murrizten dira CO2 isurketak. "Modu horretan, berotegi efektua sortzen duten gasen murrizketa lortzen da", dio Tristanek.



Xabier Tristan Giauto etxekoa, Saab Sport Sedan autoaren ondoan. A.I.

**9.3 Sport Sedan**
**1.9 TID 150 ZP**

| | |
|---|---|
| Prezioa | 30.455 euro |
| Luzera | 4,64 metro |
| Zabalera | 1,80 metro |
| Maletategia | 410 litro[1] |
| Kontsumoa | 5,8 litro /100 km[2] |
| Abiadura | 210 km/h[3] |
| Otik 100era | 9,5 seg. |
| CO2 isurketak | 156 g/km |

(1) Gehienezko edukiera
(2) Batez besteko kontsumoa, hiri barrukoa eta errepidekoa kontuan hartuta
(3) Gehienezko abiadura

**EKIPAMENDU OSOA**

Segurtasunari dagokionez, Saab merkatuan ondo kokatuta dagoen etxea dela gaineratu du Xabier Tristanek, Giauto Saab etxeko saltzaileak. Gainera, ekipamendu osoa dakar Saab 9.3 autoak.

Motorrei dagokienez, aukera zabala eskaintzen du auto berriak. Gasolinazko bost motor: 1.8 i 122 ZP, 1.8 t 150 ZP, 2.0 t 175 ZP, 2.0 t 210 ZP eta 2.8 V6T 255 ZP. Dieselezko hiru aukera: 1.9 TID 120 ZP, 1.9 TID 150 ZP eta 1.9 TTID 180 ZP. Eta biopower motorrei dagokienez, bi aukera daude: 1.8 t 175 ZP eta 2.0 t 200 ZP.

etxeko leihotik



**Aitziber Aranburuzabala** > Goienako Kultura arduraduna

# Ni ere 'superwoman' izateko bidean

Biharko eguna martxoaren 8a izanda, emakumeari buruz idaztera behartuta ikusi dut nire burua. Gure ama edo amamarenarekin alderatuz garaiak aldatu direla esatea ez da-eta guztiz egia. Egia da, bai, gero eta emakume gehiago daudela politika karguetan –ibarrean hiru alkate emakume daude–, unibertsitatean gero eta emakume irakasle gehiago daude, eta baita autobus gidari edo taxilari lanetan ere.

Hala ere, haurrak medikura eramateko orduan, gehienetan emakumeak izaten dira lanetik ateratzen direnak eta baita eskolako bileretara takarrada baten joaten direnak ere. Beraz, garaiak ez dira nik gura beste, behintzat, aldatu.

**"Garaiak aldatu diren arren, oraindik ere ez dira nik gura beste aldatu"**

Etxean eta etxetik kanpo lan egin duten familia bateko hirugarren belaunaldiko emakumea naiz; ez dut, baina, nire burua nire aurrekariak bezteko *superwoman*-tzat ikusten.

Emakume profesionala izateari utziko diot aldi baterako eta emakumeari dagozkion beste lan batzuei helduko diet orain. Hilabete batzuetan, beraz, leihotik begiratu beharrean, leihora begiratuko dut. Laster arte, bada!

**> Bezpera.** Aldarrikapenak egun batera mugatzearen aldekoa ez naiz, baina, era berean, beharrezkoa ikusten dut egutegian horrelako egunak izatea. Aurtengoa *bezpera eguna* izango den pena dut.

**> Hitzen gainetik ekintzak.** Domekako hautetsiei emakumeari buruzko hitz gutxiago eta ekintza gehiago egiteko eskatuko nieke. Guztion onerako da, ez emakumeontzako bakarrik!

begi-bistan



**Aloñako tontorra elurtuta (Oñati) 2008/03/06**

**Argazkia:** Mireia Bikuña.
**Testua:** Mireia Bikuña.

Sasoiak eskatzen duen moduko eguraldia egin du oraingoan eta elurra egin Debagoienean ere. Herriko kaleetan ez du egin, baina mendietan bai: Aloñan eta Udalatxen, esaterako.

**Har ezazu parte:**
Argazkia eta azalpentxoa bidali honako helbidera: goienkaria@goiena.com

izen propioak



**Oskar Arana**

ITZULTZAILEA

Beatriz Zabalondo elgetarrak utzitako tokia hartuko du Oskar Arana aramaioarrak; hain zuzen, 2009. urtera arte EIZIEren (Euskal Idazleen, Itzultzaileen eta Interpreteen Elkartea) presidente berria izango da. Itziar Otegi izango du presidenteorde.



**Xabier Arnaiz**

TXIRRINDULARIA

Aloña Mendi txirrindulari taldeko ziklista laugarren tokian sailkatu zen Errenterian jokatutako denboraldiko lehen lasterketan.

Kirolari oñatiarra, gazte mailako bigarren urteko txirrindularia da, eta Euskadiko selekzioarekin entrenatzen ibili da.



**Jose Javier Barkero**

FUTBOL JOKALARIA

Aretxabaletako jokalaria Albacete taldean dabil, eta Realaren kontra jokatuko du domekan, Carlos Belmonte futbol zelaian. Albacete taldeko jokalarien artean minutu gehien jokatu duen hirugarrena da Barkero(1.964 minutu), eta sei gol sartu ditu.

Marije Apodaka (Bilbo, 1967) psikologoa da. Egun, unibertsitatean ikerketa proiektua egiten dabil, baina neska eta mutilen arteko berdintasunaren gaineko hitzaldiak egiten ditu. Herenegun, Oñatiko Txantxiku ikastolan, tratu txarrei aurre egiteko jarraitu beharreko pausoez eta hezkidetzaz egin zuen berba. Gurekin jarduteko ere tartea izan zuen.

**Marije Apodaka** > Psikologoa

# "Heziketa sexista dago familietan, eta horrek tratu txarrak sustatzen ditu"

**MIREIA BIKUÑA** > OÑATI

**Marije Apodaka psikologoak hitzaldia egin zuen Txantxiku ikastolan; hain zuzen ere, neska eta mutilen arteko berdintasunaz egin zuen berba. Era berean, hezkidetza zein garrantzitsua den azaldu zuen. Harekin berba egin genuen hitzaldia hasi aurretik.**

**Zer da hezkidetza?**

Berdintasunean hezteko filosofia da; hain zuzen, gizonen eta emakumeen arteko berdintasun eta ezberdintasunetatik, eta bi ereduen, maskulinoen eta femeninoen, integraziotik abiatu behar duen prozesua da.

**Hortaz, zein da hezkidetzaren helburu nagusia?**

Hezkidetzak helburu nagusi bat du: guztiok pertsona autonomoak izateko behar ditugun gaitasunak garatzea, gure bizitza-proiektuen jabe izateko eta hurbileko pertsonekin elkarbizitza posible egiteko.

**Tratu txarrak ekiditeko gakoa heziketan dago?**

Heziketan eta beste hainbat esparrutan daude gakoak, besteak beste legeetan, kalean ditugun hartu-emanetan eta bikotekidearekin dugun hartu-emanean. Eguneroko bizitzan, esparru guztietan, hainbat balio hartzen ditugu, eta haietako batzuek tratu txarrak sustatzen dituzte.

**Nolako heziketa profila dute bikotekideari edo ingurukoei tratu txarrak ematen dizkieten pertsonek?**

Ez da profil kontua, ideologia kontua baizik. Emakumeak gizonak baino gutxiago garela uste dutenak edo gizonezkoek eskubide gehiago dituztela uste dutenak sartzen dira talde horretan; alegia, ideologia matxista dutenak.

**Heziketa sexista izaten da oraindik gaurko familiatan?**

Duda barik, bai. Dena dela, gehienok esaten dugu ezetz. Txiki-txikitatik jostailuen bidez nesken eta mutilen balioak jaso ditugu, eta oso ezberdinak dira. Unibertsitate ikasketak aukeratzeko garaian ere heziketa sexista egoten da.

Duela egun batzuk emandako hitzaldi batean, 15 urteko neska batek esan zidan gurasoek ez ziotela futboletan jokatzen uzten, mutilendako kirola zelako. Halako egoera asko daude.



Argazkian, Marije Apodaka, Txantxiku Ikastolako jolaslekuan. M.B.

IDEOLOGIA

**"Tratu txarrak ematen dituzten pertsonek ideologia matxista dute; emakumeak gutxiago garela uste dute"**

TRADIZIONALA

**"Guraso tradizionalek txikitatik ikasi dutena aldatzea ez da batere erraza, baina ahalegindu egin behar dugu"**

ALDERDI POLITIKOAK

**"Tratu txarren gaiak lehentasunezkoa izan beharko luke alderdi politiko guztiendako"**

Bestalde, kalera gauez irteteko unea iristen denean, mutilek eta neskek ez dute askatasun bera.

**Bide horretan, gurasoak hezi behar dira lehenengo?**

Hala izan beharko luke, gurasoak seme-alabendako eredu dira-eta. Hortaz, neska-mutikoek etxean ikusten dutena ikasiko dute: amak etxeko lanak egiten baditu, emakumea delako egiten ditu. Hala, etxeko alabak eginkizun berak izango ditu.

Baina ez da erraza guraso tradizionalei txikitatik errotuta dituzten ohiturak aldaraztea.

**Heziketa sexistak badu eraginik tratu txarretan?**

Bai, hezkuntza sexistak tratu txarrak sustatu eta bermatzen ditu. Era berean, tratu txarrak fisikoak eta psikologikoak izan daitezke. Kontu egin behar dugu tratu txarra ez dela bakarrik genero indarkeriaren barruan dauden heriotzak. Egoera horretara iristeko, aurretik, beste hainbat tratu txar egon dira, besteak beste psikologikoak, fisikoak, moralak edo ekonomikoak.

**Berdintasunean oinarrituta-ko heziketak familian oinarritu behar du? Ikastetxeek ze paper betetzen dute?**

Berdintasunean oinarrituta-ko heziketa eragile askoren lana da, ez bakarrik gurasoena eta irakasleena. Eragile bakoitzak bere esparruan betebehar garrantzitsuak ditu.

**Gaur egungo gizartea matxista da?**

Bai, duda barik, bai. Are gehiago, esango nuke matxista baino gehiago, sexista dela. Emakumeenganako jarrera matxista dagoen arren, gizonezkoek ez dute emakume tradizionalak jokatzen duten papera egiteko aukerarik. Horregatik diot sexista dela.

Era berean, sexismoak ematen digu emakumeoi eta gizonezkooi gure arteko borroka egiteko aukera.

**Gazteak noraino dira kontziente tratu txarren arazoaz?**

Badakite identifikatzen tratu txarrak non sor daitezkeen, eta prest daude haiei aurre egiteko. Baina, praktikan, ez da hain erraza izaten.

**Azkeneko asteak nahiko beltzak izan dira genero indarkeriari dagokionez. Baina badago baikor egoteko arrazoirik?**

Genero indarkeriaren ondorioz pertsonak hiltzen direnean, izugarrizko alarma-hotsa sortzen da. Eta beharrezkoa da, gainera.

Bestalde, biolentzia egunerokotasunean dago, telebistan, marrazki bizidunetan...; hortaz, ohitu gara biolentziarekin bizitzen eta albiste txarrak entzuten.

Horregatik guztiagatik, baikor egoteko arrazoi askorik ez dugula esango nuke.

**Hauteskunde garaian gaude, eta emakumeen aurkako tratu txarren gaia alderdi guztien ahotan izan da. Erakundeek eskura dituzten medioak erabiltzen dituzte tratu txarrei aurre egiteko?**

Legeak eta zerbitzuak daude, baina askoz gehiago behar da. Alderdi politikoendako tratu txarren gaiak lehentasunezkoa izan behar du.



zabalik

Joxemari Muxika

# Politikari maltzurrak

Bi saio, bakoitza ordu eta erdikoa entzun eta zein da estatua zuzentzeko hautagai jarri dizkiguten gizonek eman dizuten itxura?

Erresumako hiritarren ongizatea garatzeko dituzten proposamenak eta zergatik hau edo bestea egingo duten edo proposamenak bideragarriak diren edo ez sakondu ordez, elkarrizketan murgildu ordez, bakarrizketa hutsa egin zuten. Egingo dutenaz enteratzeko aukera izan zitekeena ez da aprobetxagarria izan.

Izan ere, bi saioetan gauza berak errepikatu besterik ez dute egin, denbora guztia elkar deskalifikatzeko erabiliz. Bata "gezurretan aritu zara" esanez eta bestea "zu bai gezurretan aritu zarela" erantzunez. Bazirudien elkarri gezurretan ibili izana leporatzea zutela helburu, heldutasun eskaseko pertsonen jokaera iruditu zitzaidan. Umeak bezala mokoka aritzeak ez du pertsona heldu baten ezaugarria ematen, eta hauek gobernatu behar al dute "Espainiako erresuma?"

> **"Bi saioetan gauza bera errepikatu besterik ez dute egin, elkar deskalifikatuz"**
>
> **"Batak ala besteak Euskal Herrian egin nahi dutenaz eman didaten inpresioa oso ezkorra izan da"**

Estatua osatzen duten kultura, hizkuntza eta biltzen eta lotzen dituen autonomiak gobernatzeko zein irizpide erabiliko duten galderari erantzunik gabe geratu naiz. Guri dagokigunez, batak ala besteak Euskal Herrian egin nahi dutenaz eman didaten inpresioa oso ezkorra izan da. Bi hautagaiek ez dute alde handirik azaldu Euskal Herriko hiritarrentzat duten proiektuaz: eskubide demokratikorik ez aitortzeaz gain, ados daudela ematen du guretzat erabakita dutenarekin, euren alderdiek ezarritako ildotik ateratzen den guztiari, pertsona edo erakunde izan, jipoia.

Ez digute beste aukerarik uzten euskal hiritarroi, alderdi horiek eta euren jokoan dabiltzanak alde batera utzi eta gainerako alderdien inguruan indarrak biltzea izan ezik.

**Goienkaria**

**Argiraratzailea** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
**Lehendakaria** Estepan Plazaola **Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Monika Belastegi **Sailetako arduradunak** Leire Kortabarria (Herriak), Aitziber Aranburuzabala (G2a), Xabi Urtzelai (Kirola), Alex Azkarate (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea) **Erredakzioa** Ubane Madera, Iker Barandiaran, Mirari Altube, Mirian Biteri, Larraitz Zeberio, Arritxu Barruso, Jasone Zabala, Mireia Bikuña, Arantzazu Ezkibel, Irati Agirreazaldegi **Oinarrizko diseinua** Goio Arana **Maketazioa** Alex Azkarate, Kepa Martelo **Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martín, Itxaso Berezibar, Fausto Berazadi **Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa.

**EGOITZA NAGUSIA**
**BERGARA** 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: goienkaria@goiena.com

**ORDEZKARITZAK**
**ARRASATE** 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 00
Posta-e: arrasate@goiena.com
**ARETXABALETA** 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

**Publizitatea** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09
Posta-e: publi@goiena.com

**Harpidetza** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** NA-3329/2000 • **ISSN:** 1577-1210 • **Tirada:** 19.400 ale • **Difusioa:** 19.056 ale.

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

OJD erakundeak ikuskatutako astekaria

LAGUNTZAILEAK

Eusko Jaurlaritza · Gipuzkoako Foru Aldundia · Arrasateko Udala · Bergarako Udala · Oñatiko Udala

Aretxabaletako Udala · Eskoriatzako Udala · Antzuolako Udala · Aramaioko Udala · Elgetako Udala · Leintz Gatzagako Udala

GOIENKARIAK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo kolboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

herritarrak galdezka

## ZUBIKOAKO APARKALEKU ITXIETARAKO DEIALDI BERRIA EGIN DU UDALAK

**Oñatiko irakurle batek Zubikoan egin zituzten aparkalekuen gainean galdetu digu. Irakurleak entzun du izena emateko beste deialdi bat egin dutela eta jakin nahi du ea zein baldintza bete behar diren izena eman ahal izateko.**

Oñatiko Udaletik berretsi dutenez, Zubikoako aparkaleku itxietarako beste deialdi bat egin dute. Hain justu ere, lehenengo deialdian eman barik geratu ziren zortzi aparkalekuak emateko egin du bigarren deialdia.

Irakurlearen galderei erantzunez, bete beharreko baldintzak bi dira: bata, Oñatin erroldatuta egotea edo, enpresen kasuan, egoitza soziala Oñatin alta emanda izatea; bestea, 2.700 euroko behin-behineko bermea jartzea. Aparkalekuok emateko erabakia aurreko asteko osoko bilkuran hartu zuen Udalak eta eskariak egiteko epea zabaldu-ko dute deialdia Gipuzkoako Aldizkarian Argitaratu eta gero.

Zubikoako aparkalekuak herri jabetzako lurretan eraikita daudenez, ezin dira saldu. Hori horrela, Udalak 50 urterako utziko ditu, administrazio-erregimenean. Epe hori beteta, garajeak Udalaren esku geratuko dira. Hala eta guztiz ere, erabiltzaileak Udalarekin duen kontratua edozein momentutan eten daiteke. Hori horrela gertatzen baldin bada, erabilpen urteen arabera kalkulatutako kalteordaina itzuliko dio Udalak onuradunari.

**Galdera egiteko:**
Zerbaitetaz arduratuta bazaude eta gai horren gaineko informazio gehiago jaso nahi baduzu, bidaliguzu galdera eta geu jarriko gara harremanetan dagokionarekin. Galdera egiteko bideak:
- Telefonoz: 943 25 05 05
- Faxez: 943 25 05 12
- Postaz: Goienkaria. Irizar jauregia. Barrenkalea 33. 20570 Bergara.
- Posta elektronikoz: goienkaria@goiena.com

## ODOL ATERATZEAK BERGARAN

**Bergarako irakurle bat odol emailea da eta honako zalantzarekin deitu digu: "Martxoan egongo da odol ateratzerik?"**

Ez. Martxoan ez da odol ateratzerik egingo Bergaran. Bergarako odol emaileen elkartetik adierazi dutenez, aurtengo egutegian, bi hilabetetan ez da egingo ateratzerik: bata martxoan eta bestea, abuztuan. Arrazoia, batik bat, oporraldiak dira, odol emaileen elkartetik adierazi dutenez. Martxoan ateratzerik ez dutenez egingo, hurrengoa apirilaren 2an izango da, ohi bezala Errege Seminarioko egoitzan.

## ERREFLEXOLOGIA IKASTAROA ESKORIATZAN

**Udalak erreflexologia ikastaroa antolatu du eta irakurle batek jakin nahi du ea noiz eta non izango den ikastaroa.**

Apirilaren 3tik ekainaren 12ra izango da ikastaroa, eguenetan, kultura etxean, 18:00-20:00 ordutegian. Izena eman behar da kultura etxean (20 euro).

marrazkiz

Alex Ugalde




blog

# Hego haizea

**Pello Urzelai**
www.berria.info/blogak/pello

Ergel deitu dio Felipe Gonzalezek Mariano Raxoiri, bere buruari buruzko haizez betetako adierazpen batzuk direla medio. Ez da harritzekoa. Batek baino gehiagok gauza bera pentsatu zuen Raxoiz, telebistako buruz burukoan Zapaterok M-11z esandakoa gogoratu zioenean. 2004ko martxoaren 14aren bezperan, *El Mundo* egunkarian, atentatuaren atzean ETA zegoelako uste sendoa agertu zuen Raxoik. Gezurra erabili izana leporatzeko, Zapaterok elkarrizketa hura gogorarazi zionean, aitzakia merkea eman zuen: Ibarretxeri entzun zion nola egozten zion ETAri atentatuaren ardura. Espainiako gobernuburu izan nahi zuen gobernuburuorde izandakoak ez omen zuen informazio iturri hoberik! Felipe Gonzalezen ateraldiak zeresana eman du. Bono bera atera da esatera Gonzalez dagoeneko damututa dagoela. Espainian hego haizeak gogor jotzen duelako seinalea. Zapateroren "gezurrei" irudia jarri dien *In Fraganti* komikia ere kanpainaren norabide eroaren seinalea da.

Euskal Herritik begiratuta, gurpil bipartidista horrek arrotz sentimendua areagotzea baino ez du lortzen. Oraingo honetan, gainera, PP eta PSOEko buruzagiak eskuhutsik etorri dira Euskal Herrira. Horizonterik ez dago beren hitzaldietan. Basamortua, soilik.

Horregatik, egun Kongresuan elkarrizketaren alde onartutako ebazpenaren alde egitea hutsala da, konponbidearen giltza ezer konpondu

plazara

**Bihar Martxoaren 8a da eta emakume askok ospatu egingo dute egun hori. Amaia Oiangurenen esanetan, bada zer ospatu, "emakumeen borrokak fruitu garrantzitsuak eman dituelako aurten: Euskal Herriko Emakumeon Eskubideen Karta, esaterako". Baina borrokan jarraitzeko ere arrazoi ugari dagoela dio arrasatearrak: "Gure eskubideak zapaltzen dituen eredu patriarkala errotik aldatu arte".**

Amaia Oianguren *

# 2008ko Martxoaren 8a

Beste urte batez gainean daukagu Martxoaren 8ko eguna. Mundu osoan zehar milioika emakumek ospakizun ezberdinak egingo dituzte aurreko mendeetatik datorren borroka aldarrikatzeko. Euskal Herriko emakumeok asko daukagu ospatzeko, emakumeon borrokak fruitu garrantzitsuak eman baititu aurten. Horren adibide da Emakumeen Martxarako Euskal Herriko Plataformak horrenbeste esfortzuren ostean aurreko astean aurkeztu duen Euskal Herriko Emakumeon Eskubideen Karta. Dokumentu horretan, mugimendu feministak egungo errealitatearen diagnostikoa egiten du, eraiki nahi den jendarte berriarentzako oinarri batzuk zehaztuz, herritartasunaren gainean hausnarketa eginez eta emakumeon eskubideak zehaztuz. Karta horrek emakumeon eskubideen aldarrikapenerako tresna izatea du helburu.

Borroka eta aldarrikapen feministak ez dira berriak. Egia da aurrerapausoak egin direla berdintasunerako bidean, sufragio unibertsaletik gure egunerokotasunean eragiten duten hainbat lege aldatzeraino. Hala ere, azpimarratu beharrean gaude oraindik ere emakumeok bigarren mailako biztanleak kontsideratuak garela eta emakume jaiotzeagatik, gizonek ez bezala, gure eskubideak borrokatu eta irabazi egin behar ditugula, batez ere arlo publikoan. Horretarako, askatasunean, parekidetasunean eta elkartasunean oinarritutako harreman erlazio berriak eraikitzea beharrezkoa da, gure eskubideak zapaltzen dizkigun eredu patriarkala errotik eraldatuz jendarte parekideagoa sortu eta errealitate berriak marraztea.




MIKEL ARROIABE

Borrokan jarraitzeko hamaika arrazoi dugu. Oraindik orain legeak sexuen arteko berdintasuna bermatu nahi badu ere, errealitatean ez da hala gertatzen. Bestela, nola azaltzen da horrenbeste indarkeria sexista? Zergatik da oraindik orain gizonezkoen kopurua nagusi botere eta erabaki guneetan? Zergatik ez zaie gehienetan emakumeek egiten dituzten zainketa lanei merezi duten balioa ematen? Ikasketa mailan inoiz baino prestatuago gauden garai honetan zergatik ditugu emakumeok lan kontratu prekarioenak eta langabezia tasa altuenak? Gure eskubideek zergatik jarraitzen dute sistematikoki zapalduak izaten?

**"Oraindik emakumeok bigarren mailako biztanle kontsideratzen gaituzte eta, gizonek ez bezala, gure eskubideak borrokatu behar ditugu"**

**"Itotzen gaituen eredu patriarkala kolokan jarri eta jendarte berria sortu eta asmatu behar dugu"**

Azken honen adibiderik garbiena abortuaren kriminalizazioa dugu. Desorekatutako emakumeentzat irtenbide bezala planteatzen du legediak, eta ez gure gorputzaren gaineko erabakiak hartzeko eskubide gaitasun bezala. Osasun zerbitzu publikoak, era berean, ez du abortatzeko bermerik eskaintzen, tramitazioa hainbeste luzatzen denez klinika pribatuetara jo behar izaten baitute ia emakume guztiek. Gurean kasurik larriena Nafarroakoa da. Estatu mailan legeak hiru kasu berezitan bakarrik onartzen du abortua: bortxaketa kasuan eta amaren osasuna edo umearen osasuna arriskuan dagoenean. Nafarroan hiru kasu hauetan ere ez da abortua onartzen. Abortu askea, publikoa eta doakoa aldarrikatu nahi dugu emakume guztientzat, gure gorputzaren eta amatasunaren inguruko erabakiak gurea izan behar duelako.

Hori guztia eta beste hainbat zapalkuntza, diskriminazio eta ikusezintasun egoera salatzeko, emakumeon eskubide eta beharrak aldarrikatzeko eta orain arte mugimendu feministak egin dituen lanak ospatzeko, Martxoaren 8an herrietan egingo diren ekintzetan parte hartzera gonbidatu nahi zaituztegu, itotzen gaituen eredu patriarkala kolokan jarri eta jendarte berri bat sortu eta asmatu behar dugula aldarrikatzeko.

*Amaia Oianguren,
Bilgune Feministako kidea da.

zer deritzozu?

www.goiena.net

## Domekan joango zara bozkatzera?

| | |
|---|---|
| BAI | %60 |
| EZ | %40 |

**> BAI**
Zalantza barik. Beti pentsatu dut bozkatu egin behar dela eta gaur egun ere hori pentsatzen dut. Dena den, hau esanda ez dut gutxietsi nahi abstentzioa eskatzen duen taldearen jarrera.
**Mikel**

**> EZ**
Ni ere bozkatzearen aldekoa izan naiz beti. Baina salbuespenak egin behar direla ere pentsatzen dut. Domekakoak hauteskunde espainolak dira. Era berean, Euskal Herriak bizi duen salbuespen egoerarekin bat egitea da domekan bozkatzera joatea eta makrosumarioen alde egitea, besteak beste. Domekan, abstentzioa!
**Iñaki**

**> NIK BOZKATUKO DUT**
Ez bozkatzeak euskal gizarteari egiten dio kalte. Egunerokoan eragiten diguten erabakiak Madrilen hartzen dira eta horregatik da garrantzitsua ordezkaritza izatea han.
**Aitor**

**DATORREN ASTEKOA: Sukaldaritza ikastaroren baten izan zara?**

Eman zure iritzia **www.goiena.net** atarian. Datorren astean argitaratuko ditugu hemen erantzun interesgarrienak.

-top

nahi ez duenaren esku uzten baita. Azkarragoa da Loiolako elkarrizketei begiratzea, baina bertan izan ziren guztiak aintzakotzat hartzen badira.

ETAk, duela zortzi urte bezala, kanpainan atentatuak egin eta abstentzio aktiborako deia egin du. Irudi luke ez dela ezer aldatu. Errekaren ura, ordea, ez da bi bider toki beretik pasatzen, meandroz meandro bueltaka ibili arren. Labirintoetan gertatzen da. Baliteke irteeratik gertu egotea, baina galduta eta urrun egoteko sentsazioa eduki.

## Datuen babesa eta politika

**Gorka Bikuña**
www. goiena.net/blogak/gorka

Ez dakit alderdi politikotako jentiak ze botere dakon, pentsaitten dot haundi xamarra izango dala, baina herrittar arruntak baino aukera gehixago dakoila ziur nau.

Zeatik esaten doten hau? Ba aurreko astetik hona, nere etxian bost bat karta jaso dittut, datorren domekarako botua eskaketan danak be, ta sobre danen kanpuan nere izen abizenak ta helbidia ondo jarritta. Ta gero kintto afai bat egitteko, ez dotsue padroia emuten!! Nun dau datuen babesa?.

Udaletxeko edo erakunde publikon bateko eskutitzen bat jasotea bale, gure datuak dakoita, baina politikuek ze eskubide dakoi datu horreik eukitteko?

Badakitt ez dala posible izango, baina hemendik eskaeratxo bat datorren hauteskundeetarako, ez dakit noiz ta zetarako izango dian, ez alperrik-galdu hainbeste papel, ta neri ez bialdu bapez faborez!

koplak

Enaitz Alustiza

## 'Egileor'

Azkenaldian albiste txarrak
datozkit belarritara
baina denak ez dira mugatzen
bakarrik politikara.

Lagun handi bat galdu dut eta
tristura ezin disimula
astelehenean aditu nuen
*Egileor* hil zaigula.

Posible nola demonio den
ez dut ulertzen, mekauen...
nere lehenengo bertso saioa
berarekin egin nuen.

Makina jendek hartuko luke
*Egileor*-en bihotza,
buru argia, xamurtasuna,
bertsokera ta ahotsa.

Nahiz topikoak erabiltzea
ez dudan oso gustuko
nere barruan gordeta dago,
ez dut sekula ahaztuko.

Ta igandean jokatzen dena
ere ez da gero txantxa
onena zer den zeuk aukeratu:
mendia ala hondartza?

## 3.322 arrazoi baino gehiago

**Amaia Agirre**
Arrasate

Iaz 490 atxiloketa egon dira arrazoi politikoengatik, 209 espetxeratze, 42 tortura salaketa, 57 zitazio tribunaletan, 123 mobilizazio debekatuak izan dira. Indar polizial desberdinek 148 pertsona zauritu dituzte, horietatik 97 kargetan. Honez gain, dispertsioak Nati hil zuen.

3.322 indarkeria ekintza. Batzuk negoziazio prozesua bizirik zegoenekoak eta besteak negoziazio prozesua amaitu eta gerokoak.

Arrasatek ere ezagutu du errepresio hori; Jon Aguirre eta Josu Uribetxeberria preso gaixoen bahiketa politikoa, Natale Landaren atxiloketa politikoa, herriko presoen sakabanaketaren areagotzea, karga polizialak, 3.333 herritarren ahotsak isilarazi nahi dituzten erabaki judizial-politikoak… Tamalez, amaigabea da zerrenda.

Negoziazio prozesua amaitzerakoan, Rubalcaba ministroak martxoaren 9a baino lehen 200 atxiloketa baino gehiago egongo zirela esan zuen. Ministroak agindu eta epaileak burutu. Espainiako Estatuan botere banaketarik ez dagoela argi uzten digute beste behin ere. Demokraziarik ez, beraz, Espainiako Estatuan.

Batzuk *Atutxa auzia* delakoa eta gero konturatu badira ere, guk aspalditik errepikatzen dugu hori. Horregatik, Espainiako Estatura lotzen gaituen markoaren deslegitimizazioan jarraituko dugu. Marko hau ez delako demokratikoa. Ideiak indarkeria erabiliz legez kanporatu nahi dituen estatu bat ez delako demokratikoa. Espainiako Estatuan salbuespen egoeran bizi garelako.

Otsailaren 14an herri gisa erantzun genion salbuespen egoera honi. Sentsibilitate politiko desberdinetako herritar askok bat egin genuen salbuespen egoera honi erantzuna emateko antolatu zen greba orokorrean. Alberdi politikoetako zuzendaritzek eta komunikabide askok ikusterik nahi ez arren, arrasatearrok badakigu gure herrian ez zela egun normal bat izan. Arrasatearrok badakigu gure herriak jasaten duen errepresioari herri gisa erantzun geniola.

Martxoaren 9an, herri gisa erantzuten jarraitzeko aukera paregabea dugu. Martxoaren 9an herri gisa Espainiako Estatu faxistari erantzun behar diogu.

2007. urteak 3.322 arrazoi baino gehiago eman dizkigu estatu antidemokratiko honi abstentzioaz erantzuteko.

## Tirikitauki

**Atarratz Etxebarria Arana**
Arrasate

Aurrera doan herria; izorraturik daukat gerria. Aurrera doan herria; zuenean igarri ere ez, igo denik saskia. Langile bat hil dela! Hau ez da berria. Gurean hazten den bakarra, izaten da zerria. Aurrera doan herria, porlana eta harria. Norena ote, gomazko pilotek hautsiko duten hurrengo begia? Aurrera doan herria, etxea ordaintzeko izerdia eta larria. Ogasunekoa, zikina eta larria. Aurrera doan herria; azken 100 urteetako abiadura, noiz arte jasangarria? Tirikitauki; 3 eta 4, zazpi ez al dira? Lehendakaria, non bizi haizen, esan ezak egia.

## Aski da!

**Itsaso Galarraga**
Bergara

Errepresioa zentzu zabal eta gordinean eguneroko kontua da hemen: tortura, presoekiko mendeku politika, legez kanporatzeak, espainiar indar okupatzaileen presentzia... eta gehiago!

Oraingoan, baina, zuzenean gure herritar batzuei egindako erasoa salatu nahi dugu. Orain dela egun batzuk, gure herrian eta eskualdean geroz eta sarriagoak diren kontroletako batean Bergarako gazte batzuk gelditu zituzten.

Txapelokerrek ohiko duten moduan jardun zuten. Autoak eta autoan zihoazen lagunak ondo-ondo miatu zituzten. Eta hara! Torturaren aurkako lema zuen txiskero bat eta presoen aldeko boleto batzuk *atzeman* zizkieten. Hortik aurrera, konkistatzaile hauen jarrera bortitzagoa egin zen. Lehenago baketsua bazen, izan ere badakigu hauek nola egiten duten bakea metraileta eta borrak eskuan, eta legea alde dutela.

Gazte hauek, bat-batean, mendi aldera eraman zituzten, automobiletik apartatu eta mehatxatu eta behin eta berriz galdekatu zituzten: txartelak non erosi zituzten, txiskeroa non erosi zuten, dirua norentzat zen… eta herriko beste gorabehera mordo bati buruzko galderak erantzun behar izan zituzten bakean eta alde egiten utzi zituzten arte.

Asko gara, euskal preso politikoek jasaten duten egoeraz jabetuta, bakoitzak ahal duen moduan laguntzen dugunak. Batzuek, gazte hauek moduan, antolatutako zozketetan parte hartzen dute eta kaleratzen den materiala erosten dute. Bertatik ateratzen den dirua dispertsioak eta espetxeak sortutako gastuak ordaintzeko erabiltzen da; gastu juridikoei aurre egin zein bestelako kontu txikitxoak aurrera ateratzeko da.

Gu harro eta pozik gaude gure herrian zein Euskal Herrian jendeak emandako laguntzarekin. Beraiek egindako ekarpen txikiekin errepresioak ez gaitu-eta nahi beste odolustu.

Eskerrak eman nahi dizkiegu presoen alde eta errepresioaren aurka euro bat, bi, hogei… ematen duten lagun guztiei. Eta, bestalde, ez dadila salatu barik geratu elkartasuna erreprimitu nahi duten espainiar indar okupatzaile hauen jarrera. Solidaritatea ez da delitua!

## Abstentzioa!

**Maite Ilarduia**
Bergara

Euskal Herriaren eskubide demokratikoetan oinarritutako proiektu independentistaren alde lan egitea ez da erraza izan inoiz gure herriaren historia hurbilean.

Horren lekuko ditugu azken hamarkadetan gure herriak jasandako zapalkuntza eta errepresioa. Badugu Bergaran horren adibiderik, Espainiako Estatutik PSOEk eta bere bidelagun diren partidu erregionalistek, PNV eta NaBai-k, horrenbeste aldiz eskatu diguten bide politikoa erabiltzeagatik, azken lau hilabeteetan Bergarako herritar diren Xabier Arregi, Mikel Zubimendi, Mikel Garaiondo eta Aitor Aranzabal espetxeratu dituzte, hain zuzen ere politikan jarduteagatik.

Negoziazio prozesuan zehar PSOEk ezetz esan zion Euskal Herriaren eskubideetan oinarritutako irtenbide politikoari, ezetz esan zion autodeterminazioan eta lurraldetasunean oinarritutako irtenbide demokratiko bati. Eta halaber, Euskal Herriaren zapalkuntza estrukturala mantendu eta euskal herritarren kontrako gerra estrategia abiatzea erabaki zuen, morroi leial bezala PNVkoak izan zituelarik. Iruzur berri batean murgiltzen saiatu ziren ezker abertzalea, independentziari ateak itxiko zizkion erreforma berri batean sartu edota ondorenean, Rubalcabaren mezulariek ohartarazi ziguten bezala, egurra jaso haien esanetara ez makurtzeagatik.

Bergaran bagara PNVk Espainiako Estatuari zor dion fideltasun itsuaren lekuko.

Otsailaren 8an Euskal Herrian bizi dugun gatazka politikoaren bi gertakizun adierazgarri eman ziren: Espainiako Estatutik ANV eta EHAKren ekintzen etete agindua eta ETAk Bergarako epaitegiaren aurka egindako ekintza. Hona hemen Euskal Herriak bizi duen zapalkuntzaren eta ukazioaren bi ondorio lazgarri. Egoera honako hau izanda, Bergarako ezker abertzaleak helburu bakarra markatu zuen, bi gertakizunok gatazkaren ondorio gisa aztertu eta Bergarako alderdi abertzale guztien arteko adostasuna lortzea. Badirudi, baina, PNVko agintariek bestelako asmoak zituztela otsailaren 8an. Goizean Bergarako PNVko zinegotziek geure asmoekin bat egiten baitzuten, baina arratsaldean, bestelako iritziarekin etorri zitzaizkigun: "Zuzendaritzak honako testua besterik ez aurkezteko agindu digu"; beraz, elkarrizketarako tarte gutxi!

Bergaran jarrera hau azalduta, orain uler daiteke Espainiari zor dioten fideltasuna. Izan ere, beraiekin dituzten negozioak galtzeko arriskuan daude herri gisa erantzuteko ahalegin txikiena egiten badute. Entzun, bada, Bergarako herritar independentistok, alderdi politikoen gainetik euskal herritar gisa erantzuteko garaia iritsi da!

Ez gaituzte engainatuko, espainiar konstituzio barruan kokatuko den Euskal Herririk ez da posible, ez eta marko zatikatzaile zanpatzaile honetan ere. Erabakitzeko eskubidea bilduko duen eta proiektu politiko guztiak egingarri izango diren autonomia bakarra behar dugu Bizkaia, Gipuzkoa, Araba eta Nafarroarako.

Baina Espainiako Estatuak ez du bakarrik jokatzen Euskal Herriaren aurkako gerra honetan, laguntzaile fidelak ditu PNV eta NaBai. Hitzak oso politak dituzue baita koloreak ere, baina ekintzek ez dute bat egiten esaten duzuenarekin. Ezker abertzalea mapa politikotik desagerraraztea ez omen da bidea zuen hitzetan, baina hori berbera salatzeko manifestazioa deitzen dugunean zuen zaldun beltzak bidaltzen dituzue gu jipoitzeko, 18/98 auziak ez omen du ez buru eta ez hanka, baina ez duzue inongo konpromisorik hartzen epaiketa geldiarazteko; erabakitze eskubidean omen dago gatazka gainditzeko gakoa, baina prozesu negoziatzailean erabakitze eskubideari muzin egin eta mahaitik altxatzen lehenengoak izan zineten!

Ezker abertzaleak, orain 30 urte bezalaxe, borrokarako hautua berresten du. Badakigu urte gogorrak eta momentu latzak pasa ditugula, oraingoak ere ez dira momentu goxoak. Eta argi daukagu gatazka eta sufrimendua luzatzearen arduradun zuzenak nortzuk diren, espainiar gobernua eta beraien burua independentista mozorrotu nahi duten PNV eta NaBai. Baina gogor eta tinko esan nahi dugu herri hau ez dutela berriz salduko, herri honek bere etorkizuna erabakitzeko eskubidea dauka. Eta guk zazpi lurraldez osatutako Euskal Estatu independente eta sozialista eraikitzeko konpromisoari eusten jarraitzen dugu.

## Martxoak 8

**Miren Arregi** (Aralarreko zinegotzia, Oñati Ezkerretik)
Oñati

Emakumeen Nazioarteko Eguna. Emakume langileengandik haratago, emakume guztion eguna. Gaur eta egunero, argi eta ozen esateko, emakumea ere gizarteko eragile aktibo dela, eta ez sexu makina, ezta elkartrukerako animalia. Aurten 77. aldiz ospatuko dugu Berdintasunerako Eguna. Gaurkoak egutegiko data baino gehiago izan behar du, ordea. Borroka feministatik haratago, pertsona eta eragile ororen helburu izan behar du berdintasunak. Denok osatzen baitugu gizartea eta denok eragiten baitugu bertan.

Emakumeok gaur egun ditugun oinarrizko eskubideak urteetako lan eta borrokaren ondorio dira. Hala ere, praktikan eta errealitatean asko dago oraindik egiteko, eta asko lortzeko ere: erabakitzeko esparruetan presentzia gutxi daukagu, behin-behinekotasun laborala gogorrago jasaten dugu, gure gorputzarekin zer egin esaten digute, gizonekiko desberdintasun ekonomiko eta sozial nabarmenak daukagu, eraso fisiko eta sexualak pairatzen ditugu…

Aski da diskriminazioarekin. Aski emakumeenganako indarkeriarekin. Aski promesa faltsu eta oinarri gabeko justifikazioekin. Aldarrikapen eguna da gaurkoa; ordezkaritza, onespena eta errespetua eskatzeko eta exijitzeko eguna. Gizartean, eta batik bat erakundeetan, gizon eta emakumeen parte-hartzeak orekatua izan behar du; aniztasuna zabaldu behar dugu; eta aurreiritziak eta indarkeria desagerrarazi behar ditugu.

Benetako berdintasuna, berdintasun erreala, lortzeko hezkuntzatik hasi behar dugu, etxetik, lagun artetik, eskolatik eta erakundeetatik. Eguneroko lana da. Beraz, nahiz eta martxoaren 8a ospatu, ez digu egutegiko egun batek gogoratu behar berdintasuna lortzeko, gaur egungo egoera hobetzeko, gizartean eragin behar dugula. Elkarlanean lortuko dugu. Denon ardura da, bai emakumea eta bai gizon ororen konpromisoa. Ez martxoaren 8an soilik. Horregatik gaur, berdintasuna eta eskubide guztiak guztiontzat.

**IRAKURLEAREN GUTUNAK** Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 50 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. GOIENKARIAk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

**Barrenkalea 33**
**20570 BERGARA**

**Telefonoa:**
**943 25 05 05**

**Faxa:**
**943 25 05 12**

**Posta elektronikoa:**
**goienkaria@goiena.com**




125 urte, etengabe, gure gizartearen ongizatearen alde lanean. Orain, adituek esaten digute publizitate-kanpaina handi baten bidez eman beharko genukeela aditzera. **Baina ezagutzen gaituzu.** Guk nahiago zuri ama-zelulen eta medikuntza birsortzailearen alorreko gure ikerkuntza-aurrerapenak erakutsi.

Inbertsio osoa Gizarte Ekintzan: 84 milioi €

Gizarte Ekintza, **kutxa**ren izateko arrazoia.




zer nahi duzu bihar?

www.kutxa.net

kutxa


EUSKAL HERRIA
OIHUKATU!
EA
eusko
alkartasuna
herriarenahotsa
euskoalkartasuna.org

**Arrasate** > 18-23 **Bergara** > 24-29 **Aretxabaleta** > 31-32 **Oñati** > 33
**Eskoriatza** > 34-35 **Antzuola** > 36 **Aramaio** > 37 **Elgeta** > 38 **Leintz Gatzaga** > 39



**> BERGARA**
Auditoriuma Seminarioko elizan jartzeko asmoa berretsi du **> 25**



**> ARETXABALETA**
Merkataritza suspertzeko puzgarriak jarriko dituzte, hilero **> 31**



**> OÑATI**
Deialdi berria egin dute Zubikoako aparkaleku itxietarako **> 33**



**> ESKORIATZA**
Skate-gunea egin gura du Udalak gazteen eskariari erantzuteko **> 34**

**ARRASATE** > EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA

# Emakume baserritarren azokak 47 postu izango ditu Seber Altube plazan

**POSTUAK**
Egongo diren 47 pistuetatik hamar arrasatearrenak dira

**ETORKINAK**
Emakume etorkinei lekua gorde diete lehenengo aldiz

**AZOKA**
10:00etatik 14:00etara egongo da, Seber Altuben, eta talogileak ere izango dira



**AZOKA** Seber Altube plazan jarriko dute eta 10:00-14:00 ordutegian egongo da zabalik, baserriko produktuak zein artisau lanak erosi ahal izateko. GOIENKARIA

**MIRARI ALTUBE** > ARRASATE

Emakumeen Nazioarteko Egunean bertan, martxoaren 8an, egingo dute emakume baserritarren azoka Arrasaten. Hamaika urteko ibilbidea du azokak, eta urtetik urtera gora egin dute bai postuek, bai erostera datorren herritar kopuruak.

**BASERRITARRAK ETA ARTISAUAK**

Seber Altube plazan elkartuko dira emakume baserritarrak eta artisauak bihar. 47 postu jarriko dituzte, eta 10:00etatik 14:00ak arte erakutsi eta salduko dituzte ekarritako produktuak: "Otsailean zabaldu genuen izenemate epea, eta astebetean bete ziren postu guztiak. Baina gehiago ez ditugu sartu gura, herritarrak eroso eta gustura ibil daitezen azokan", azaldu du Emakume Txokoko Maite Barreñak.

Kakorratzekin egindako jantziak, larruarekin egindako osagarriak, zeramikazko ontziak, zilarrezko bitxiak, egurrezko jostailuak... eta artisauen beste hainbat lan izango dira ikusgai. Horiekin batera baserritarrek ekoiztutako produkturik onenak: ogia, kontserbak, barazkiak, frutak... Gainera, talogileak etorriko dira, eta azoka ikusi bitartean mokadutxoa jateko aukera eskainiko dute.

**HAMAIKA URTEKO IBILBIDEA**

Orain dela hamaika urte antolatu zuten lehen aldiz azoka. Emakume baserritarrak elkartzea zuen helburu, eta halaxe egingo dute aurten ere. Azokaren garrantziak, baina, gora egin du hamaika urteko ibilbidean: postuak gehituaz joan dira urtetik urtera, eta azokara hurreratzen den herritar kopuruak ere gora egin du. "Arrasatearrek hasieratik egin zioten harrera ona azokari. Eguraldiak zeresana izan ohi du, egia da, eta txarra eginez gero jende gutxiago ibiltzen da. Hala ere, herritarrak gustura etortzen dira, salmenta onak izan ohi dituzte baserritarrek eta artisauek, eta oso giro polita sortzen da", azaldu du Barreñak.

Arrasatearrak bakarrik ez, ibarreko hainbat herritatik ere jende asko gerturatuko da azokara, batzuk goiz pasa eta beste batzuk produktu bila.

EUSKAL HERRIKO EMAKUMEAK

## Gehienak emakume euskal herritarrak izango dira, horietatik hamar arrasatearrak

Azoka baino gehiago da Arrasaten egingo dutena. Emakumeen arteko topaketa da, norberak egindako produktuak dakartzaten emakumeen topaketa. Zenbat ordu lanean, zenbat ardura buruan, eta horren guztiaren emaitza jarriko dute bihar herritarren eskura.

Hamar postu Arrasateko emakumeek beteko dituzte, eta gainerako gehienak Euskal Herriko hainbat bazterretatik datozenek. Espainiatik ere etorriko dira: Burgostik eta Kantabriatik, esaterako. Eta aurten lehen aldiz, emakume etorkinei lekua gordetzea erabaki dute.

## zerbitzuak

### GUARDIAKO FARMAZIAK

**ARRASATE**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zapatua, 8 | Fernandez | Maisu Aranbarri, 14 | 943 79 22 26 |
| Domeka, 9 | Fernandez | Maisu Aranbarri, 14 | 943 79 22 26 |
| Astelehena, 10 | Irizar | Erguin, 1 | 943 79 12 39 |
| Martitzena, 11 | Amezua | Santamarina, 32 | 943 79 09 74 |
| Eguaztena, 12 | Español | Arabako etorbidea, 14 | 943 79 18 65 |
| Eguena, 13 | Ruiz | Nafarroa etorbidea, 1 | 943 79 14 09 |
| Egubakoitza, 14 | Etxeberria | Zarugalde, 42 | 943 77 16 30 |

**BERGARA**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zapatua, 8 | Alvarez-Mozos | Iparragirre, 2 | 943 76 12 15 |
| Domeka, 9 | Alvarez-Mozos | Iparragirre, 2 | 943 76 12 15 |
| Astelehena, 10 | Urrutikoetxea | Orixondo, 4 | 943 76 11 74 |
| Martitzena, 11 | Zabala | Barrenkale, 25 | 943 76 16 87 |
| Eguaztena, 12 | Guallar | San Antonio, 5 | 943 76 11 05 |
| Eguena, 13 | Estella | Matxiategi, 5 | 943 76 19 63 |
| Egubakoitza, 14 | Alvarez-Mozos | Iparragirre, 2 | 943 76 12 15 |

**OÑATI**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zapatua, 8 | Juldain | Kale Barria 6 | 943 78 11 28 |
| Domeka, 9 | Juldain | Kale Barria 6 | 943 78 11 28 |
| Astelehena, 10 | Anduaga | San Lorentzo, 3 | 943 78 21 16 |
| Martitzena, 11 | Anduaga | San Lorentzo, 3 | 943 78 21 16 |
| Eguaztena, 12 | Barrenetxea | Kale Zaharra 1 | 943 78 01 22 |
| Eguena, 13 | Barrenetxea | Kale Zaharra 1 | 943 78 01 22 |
| Egubakoitza, 14 | Garate | Kale Barria, 42 | 943 78 05 58 |

**ARETXABALETA**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zapatua, 8 | Juan Fraile | Herriko Plaza 10 | 943 79 21 99 |
| Domeka, 9 | Juan Fraile | Herriko Plaza 10 | 943 79 21 99 |
| Astelehena, 10 | Juan Fraile | Herriko Plaza 10 | 943 79 21 99 |
| Martitzena, 11 | Juan Fraile | Herriko Plaza 10 | 943 79 21 99 |
| Eguaztena, 12 | Juan Fraile | Herriko Plaza 10 | 943 79 21 99 |
| Eguena, 13 | Juan Fraile | Herriko Plaza 10 | 943 79 21 99 |
| Egubakoitza, 14 | Juan Fraile | Herriko Plaza 10 | 943 79 21 99 |

Guardiako farmazien eskuko telefonoetarako 2008ko egutegia eskuratzeko, bidali SMS bat 7505 zenbakira "farma" hitza jarriz. SMS kostea 0,9 euro + BEZ.

### TELEFONO JAKINGARRIAK

**((112))**
**SOS DEIAK**

**OSASUNA ETA LARRIALDIAK**

Osakidetza (Larrialdia)....943 46 11 11
DYA (Antzuola)....943 78 71 57
Gurutze Gorria (Elorregi)....943 76 55 76
Suhiltzaileak....943 78 28 00
Ertzaintza....943 53 47 20
Osasun Etxeak
- Arrasateko ospitala....943 03 53 00
- Antzuola....943 76 62 23
- Aramaio....945 44 53 40
- Aretxabaleta....943 71 19 59
- Bergara....943 03 54 00
- Elgeta....943 03 54 00
- Eskoriatza....943 71 44 52
- Leintz Gatzaga....943 71 47 46
- Oñati....943 03 54 30

Udaltzaingoak
- Antzuola....943 76 62 46
- Arrasate....943 79 14 39
- Aretxabaleta....943 71 18 63
- Bergara....943 77 91 06
- Eskoriatza....943 71 44 07
- Leintz Gatzaga....943 71 47 46
- Oñati....943 78 04 11

**GARRAIOAK**

PESA....902 10 12 10
Taxiak
- Arrasate....943 79 12 22
- Aramaio....945 44 50 33
- Aretxabaleta....943 77 12 64
- Bergara....943 79 12 22
- Eskoriatza....943 71 40 59
- Oñati....943 78 03 65

**DEBAGOIENA**

Mankomunitatea....943 79 33 99
Hiltegia (Zubillaga)....943 78 15 12
Nekazaritza ganbera....943 76 10 15
Zerga Bulegoa....943 76 58 63
Hondakindegi alternatiboak
- Arrasate....943 77 11 43
- Bergara....943 76 44 42
- Oñati....943 78 36 67

Kiroldegiak
- Aramaio....945 44 53 35
- Arrasate....943 77 16 77
- Aretxabaleta....943 71 26 28
- Bergara....943 76 56 41
- Elgeta....943 76 82 84
- Eskoriatza....943 71 53 28
- Oñati....943 71 63 75

Kultura Etxeak
- Antzuola....943 76 60 65
- Aramaio....945 44 53 74
- Arrasate....943 77 01 05
- Aretxabaleta....943 71 10 27
- Bergara....943 77 91 58
- Eskoriatza....943 71 46 88
- Leintz Gatzaga....943 71 47 46
- Oñati....943 78 03 53

Udalak
- Antzuola....943 76 62 46
- Aramaio....945 44 50 16
- Arrasate....943 79 09 00
- Aretxabaleta....943 71 18 62
- Bergara....943 77 91 00
- Elgeta....943 76 80 22
- Eskoriatza....943 71 44 07
- Leintz Gatzaga....943 71 47 46
- Oñati....943 78 04 11

### URBANOAK

**ARRASATE**

**Gorostizatik Eroskira (2 Linea )**
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00. IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.

**Eroskitik Gorostizara (2 Linea )**
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35. IBILBIDEA: Eroski, J. Bengoa, S. Teresa, C. Obrero, Obenerreka, Makatzena, Iñarra, S. Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.

**Gorostizatik Eroskira (1 Linea )**
08:30, 09:30, 10:30, 11:30, 12:30, 13:30, 14:30, 15:30, 16:30, 17:30, 18:30, 19:30, 20:30 eta 21:30. IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Zarugalde, Muxibar, S. Frantzisko, Iñarra, Makatzena, Obenerreka, C. Obrero, Galizia, Bengoa eta Eroski.

**Eroskitik Gorostizara (1 Linea )**
08:05, 09:05, 10:05, 11:05, 12:05, 13:05, 14:05, 15:05, 16:05, 17:05, 18:05, 19:05, 20:05 eta 21:05. IBILBIDEA: Eroski, Musakola, Legarre, Maala, Ospitalea, Garibai, San Andres, Arimazuri, Alecop, Uribarri, Erguin A eta Gorostiza.

**BERGARA**

**San Lorentzo/San Juandik irteerak**
07:00, 07:55, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:40, 13:30, 14:10, 16:00, 16:40, 17:20, 18:00, 19:00, 19:40 eta 20:20. Geralekuak: S. Juan (Torunsa), Amillaga (Manso), S. Lorentzo (Soraluzen), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zurradero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet), Labegaraieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.

**Labegaraieta/Olabarrenetik irteerak**
07:20 , 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:50 (Olatik), 14:25 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:35, 18:25, 19:20, 20:00 eta 20:30. Geralekuak: Labegaraieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoloia (Mintegi), San Pedro, Arrurriaga (Konde), Zubieta, Mugertza, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.

**ARAMAIOKO AUTOBUSA**

| Arrasate | Aramaio | Gasteiz |
|---|---|---|
| 07:00 | 07:15 | 08:00 |
| 10:00 | 10:15** | |
| 11:00 | 11:15 | |
| 12:00 | 12:15** | 13:00 |
| 15:15 | 15:30 | 16:15 |
| 17:20 | 17:35 | |
| 18:30 | 18:45** | 19:30 |
| 19:00 | 19:15 | |
| 21:10 | 21:25** | |
| **Gasteiz** | **Aramaio** | **Arrasate** |
| | 07:50 | 08:05 |
| 08:30 | 09:00 | 09:15 |
| | 10:15 | 10:30 |
| | 11:15 | 11:30 |
| 13:10 | 13:45 | 14:10 |
| 16:20 | 17:00 | 17:20 |
| | 17:35 | 17:50 |
| | 19:15 | 19:30 |
| 19:30 | 20:10 | 20:25 |

Izardun orduak, eskaeraren arabera, auzoetakoendako. Bezperan deitu: 629 54 59 23

## eguraldia

### DEBAGOIENEAN



**Zapatua, 8**
Egun lainotsua izango da zapatukoa; lainoak ostarteekin tartekatuko dira. Ez du euririk egingo. Tenperatura mantendu egingo da eta haizeak mendebaldetik joko du.



**Domeka, 9**
Goizeko lehen orduetan euriarekin esnatuko gara eta hala segituko du egun osoan, zaparradekin. Tenperatura mantendu egingo da.

### EUSKAL HERRIAN

Zeru iluna izango da astebururuan nabarmenena eta ohikoena. Edozelan ere, zapatua aprobetxatzeko modukoa izango da, lainoak egon arren ateri egongo da-eta. Domekan, berriz, lainoak nagusituko dira eta euria egingo du. Hortaz, euritakoa aldean eramatea komeniko da.



### TENPERATURAK

**MINIMOA**
Eguaztena, 8 — **4 ºC**

**MAXIMOA**
Astelehena, 13 — **24 ºC**

**ASTEKO EURIA** (l/m²) — **45 L**

| | Max. | Min. | Euria |
|---|---|---|---|
| Eguaztena, 27 | 17 ºC | 11 ºC | 10,2 l/m² |
| Eguena, 28 | 16 ºC | 11 ºC | - l/m² |
| Egubakoitza, 29 | 17 ºC | 10 ºC | 0,2 l/m² |
| Zapatua, 1 | 16 ºC | 7 ºC | - l/m² |
| Domeka, 2 | 24 ºC | 7 ºC | 0,3 l/m² |
| Astelehena, 3 | 12 ºC | 8 ºC | 25,5 l/m² |
| Martitzena, 4 | 11 ºC | 4 ºC | 8,8 l/m² |

Bergarako San Juan auzoan jasotako datuak.

### ILARGIA MARTXOAN



| Ilbete | Ilbehera | Ilberri | Ilgora |
|---|---|---|---|
| 7 | 14 | 21 | 29 |

## oharrak eta deialdiak

ARRASATE
**> Urpekaritza ikastaroa antolatu du Udalak**
Getariako KSUB urpekaritza zentroak emango duen ikastaroa apirilaren 4an hasiko da. Dagoeneko izenemate epea zabalik dago; hain zuzen, bazkideek 350 euro ordaindu behar dute eta ez bazkideek, 370 euro. Ikastaroan parte hartzen dutenek nazioarteko urpekari agiria eskuratuko dute, , munduko edozein lekutan urpekaritza egiteko aukera ematen duena. Informazioa: 943 14 01 85 edo 627 93 03 30.

BERGARA
**> Gazteen arteko topaketetan izenematea**
Gazte topaketak antolatu ditu Udalak, 12-16 urte arteko ume eta gaztetxoendako. Apirileko egubakoitzetan izango dira jardunaldiak, eta grafitiak, afari-merienda, patinajea, argazki-rallya... egingo dituzte. Izenemate epea zabalik dago martxoren 13ra arte, nork bere ikastetxean.

BERGARA
**> Udalekuetako begiraleendako izenematea zabalik**
Xipizaro elkarteak zabaldu du uztaileko udaleku irekietan begirale izateko izenemate epea, martxoaren 28ra arte. Agorrosingo ludotekan hartuko dituzte izenak, 17:00etatik 19:30era.

DEBAGOIENA
**> Aste bukaeretako irteerak gazteendako**
Manuel Larramendi Kultur Bazkunak *Euskal Herrian barrena* delako programa berritu eta martxan jarri du berriz. 18-30 urte arteko gazteek irteerak egiteko aukera izango dute. Informazioa: 943 69 64 50.

BERGARA
**> Hainbat ikastaro antolatu ditu Udalak**
Sendabelarren, areto dantzen eta sukaldaritza begetariano eta nutrizioaren gaineko ikastaroak antolatu ditu Udal Kultura Zerbitzuak. Izenematea zabalik dago kultura etxean. Argibideak: 943 77 91 59.

OÑATI
**> Arin-arin eta fandango ikastaroak**
Debagoieneko IV. trikiti eguneko antolatzaileek dantza ikastaroak antolatu dituzte. Oñatz taldeak ematen dituen ikastaroen hurrengo saioa bihar izango da, 12:00etan, taldearen lokalean. Hurrengo saioak martxoaren 11n eta 15ean izango dira.

ARAMAIO
**> Ezker abertzalearen independentzia gaua gaur**
Aramaioko ezker abertzaleak independentzia gaua egingo du gaur. 19:30ean, trikipoteoa egingo dute herriko kaleetan eta plazan bideoa ikusi ondoren, afaria egingo dute bertsolariekin herriko elkarte baten.

ARRASATE
**> Taila ikastaroa, apiriletik aurrera**
Arrasateko Tailaginen Elkarteak oinarrizko taila ikastaroa antolatu du apiriletik aurrera. Izena emateko eta argibideak eskatzeko: 645 70 59 13 (Felix) edo 943 79 77 57 (Jose Mari).

ELGETA
**> Emakumeendako txokolate-jana**
Elgetako emakumeendako txokolate-jana egingo dute gaur, 17:00etan, Espaloia Kafe Antzokian.

BERGARA
**> Errenta teknikari lanpostuko lehen probako emaitzak ikusgai**
Bergarako Udalak kaleratu ditu errenta teknikari lanpostuko azterketaldiko lehen probako emaitzak. Hurrengo azterketa, hain zuzen ere euskarari dagokiona, astelehenean egingo dute, 09:00etan hasita.

BERGARA
**> San Joxepe elkartearen urteko batzarra**
Martxoaren 27an egingo du San Joxepe erretiratuen elkarteak urteko batzarra. Besteak beste, iazko akta onartu eta batzordearako hiru kide berri aukeratuko dituzte. Lehenengo deialdia 16:00etan da eta bigarrena, 17:00etan.

ANTZUOLA
**> Eski irteera Arriola taldearen eskutik**
Arriola mendizale elkarteak eski irteera antolatu du Candanchura martxoaren 29rako eta 30erako. Izena mendi elkartearen lokalean eman behar da, marttzenean, 19:30etik 20:30era. Informaziorako: 943 76 63 94 (Arkaitz).

ARRASATE
**> Dendarien elkarteak ikastaroa antolatu du erakuslehioak apaintzen ikasteko**
Cum artem meam musicam iam ante tempus longum creaverim, tamen hodiernis componistis multis preaferor. Mihi vivo multae res adversae perferendae fuerunt et apud pauperes in sepulcro multitudinis sepultus adversae perferendae fuerunt et apuerunt et apud pauperes in sepulcro multitudinis.

943 25 05 01
goienkaria@goiena.com

**kale inkesta**

# Aretxabaletako Lausitta kaleko norabidea aldatu dute. Ze iritzi?



**Javier Aznar**
Langilea
Legazpia

Hemengoa ez naizen arren ezagutzen dut norabide aldaketa hori, eta ondo iruditzen zait aldaketa. Bestela, herriari buelta dena eman behar zitzaion Arrasatera joateko.



**Jose Olivenza**
Erretiratua
Aretxabaleta

Norabide aldaketarekin hobeto dago. Arrasatera joateko bestela buelta dena eman behar zen lehen. Hala eta guztiz ere, lanak amaitzean bi norabidetara ipintzen badute askoz hobeto.



**Juanjo Estevez**
Langilea
Aretxabaleta

Norabide aldaketa hobeto dago. Hasieran egokia pentsatu ez arren, modu honetan buelta dena eman beharrik ez dago Arrasate aldera joateko. Oraindik ere badaude gauzak hobetzeko .



**Nerea Etxeandia**
Langilea
Aretxabaleta

Ondo ikusten dut, horrela Arrasatera joateko ez da buelta dena eman behar izango. Hala eta guztiz ere, Lausitta auzoan, Eskoriatzara joateko buelta handia eman behar dugu oraindik ere.



**Nerea Arriola**
Langilea
Aretxabaleta

Aldaketa ez dago gaizki. Baina aproposena, Otalora kalea Arrastera joateko jartzea eta Lausitta Eskoriatzara joateko jartzea izango zatekeen, hala, eskola orduetan Santakurtz kalea ixteko.

**txistuak**



GOIENKARIA

# Non dago Masterrekako iturria?

Bergarako Masterreka kalean, Zuloaga-Bereterio etxearen ondoan lanak egiten ari dira, eta hori dela eta urte askoan bertan egon den iturria kendu egin dute. Bertako auzotar batzuek kexa adierazi dute iturri hori kentzeagatik eta jakin nahi dute ea lanak amaitzean berriz ere ipini behar duten iturria.

**asteko datua**

# 15

Oñatiko Bertso Eskolak antolatutako txapelketan 15 bertsolarik dihardute. Lehen kanporaketa martxoaren 1ean jokatu zen; bigarrena bihar Pako tabernan eta hirugarrena, martxoaren 15ean. Finala, martxoaren 29an.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria

**usteak uste**

Jasone Zabala

# Ez al geunden ba udaberrian?

Pasa zen uda, heldu ginen Olentzerok opariak ekartzen dizkigun garaira, eta guztiok, etorriko zen neguari aurre egiteko etxeko armairutik beharrezkoak ziren arropak ateratzen hasi ginen: txamarrak, gorroak, bufandak... Baina norbaitek ziria sartu zigun, ez baitugu halakoren beharrik izan, guztiz alderantzizkoa baizik. Otsailean, negu bete-betean sartuta gauden garaia izan beharrean, udaberriko eguraldiekin: jendea hondartzara eguzkia hartzera... Neure buruari galdetzen nion: oker nago edo urtaroak ez dute elkar ulertzen zeinek noiz etorri behar duen adosterako orduan? Zorionez, nire burua ondo dabil eta berandu bada ere, atzoko mahuka motzeko nikiak, mahuka luzeko jertse sendo bategatik aldatzen hasi beharko gara. Eskerrak. Atzo eguzkipean eta gaur txingorra, elurra, euria, haizea... Nork esango zigun garai hauetan eguraldiak halako buru-hausteak emango zizkigunik? Nor ausartzen da esaten –urtaroek euren artean duten konpetentzia ikusita– irailean ez dela udaberria izango? 2008ko urte amaiera zer, mahuka motzetan ospatu beharko dugu?

**5 galdera...**

# Carmen Olivares

Troko arropa dendakoa
Arrasate

**1. Zein estiloko arropa saltzen duzue zuen dendan?**
Guk saltzen dugun arropa edozein adineko emakumeentzako arropa da. Gure dendan, praka bakero eta niki batetik hasi eta jantziagoa izan daitekeen arropa ere badaukagu. Baita ezkontzetarako arropa, ezkontzako amabitxientzat adibidez.

**2. Beherapenetan igartzen al da jende gehiago joaten dela dendara erostera?**
Urte hau oso ondo hasi genuen, salmentak oso ondo hasi ziren. Nabaritzen da euroak eragina izan duela, eta bere arrastoa utzi duela. Aurtengo beherapen garaian beste urte batzuekin konparatuz askoz jende gutxiago ibili da, eta hori azken aldian asko nabaritu dugu.

**3. Azken aldian egiten duen eguraldiarekin, nola asmatu arropa erosterako orduan?**
Zaila izaten da asmatzea. Guztiok ere zerura begira gaude. Udarako erosten baduzu arropa, beharbada ez du udako eguraldirik egiten, eta salmentak ez dira berdinak. Eskertu behar da denboraldi hasieran ekintza dezente egoten direla, ezkontzak, bataioak, jaurnartzeak... Horrek denboraldia aurrera ateratzen laguntzen digu. Nahiz eta azken boladako eguraldiak ez digun batere laguntzen.

**4. Zeintzuk izango dira udaberri-udaran eramango diren koloreak?**
Batez ere, zuria eta beltza, gris *perla,* kolore estanpatuak, hare tonuak eta baita gorriak ere.

**5. Zer erosi dudatan dagoen bati zein aholku emango zenizkioke?**
Guk batez ere aholku praktikoak ematen dizkiogu, gauden denboraldiaren arabera. Ikusi behar da zertarako nahi duen arropa hori, ezkontza baterako, afari baterako... urtaroaren arabera, gauza bat edo beste aukeratu behar da.



GIZARTEA > MARTXOAREN 8A

# Emakumezkoen parte-hartzea ardatz Martxoaren 8an

Emakumeen parte-hartze sozio-politikoa aztertu eta ikusaraztea da aurtengo helburua

UBANE MADERA> ARRASATE

Gogor dator Martxoaren 8a aldarrikatzeko egitaraua, goizean hasi eta iluntzera arteko ekitaldiak iragarri dituzte-eta,biharko, zapaturako.

Goizekoari dagokionez, eskuz egindako edo eskuz landutako produktuz beteko dute adin eta ohitura guztietako emakumeek Seber Altube plaza, urteroko emakumeen azokan (ikus 15. orria).

**JOLASAK ETA MANIFESTAZIOA**

Arratsaldeari begira ipintzen bagara, berriz, 17:00etan hasiko dituzte ekitaldiak: hain zuzen ere, umeendako jolas ez-sexistak egingo dituzte ordu horretan, Seber Altube plazan.

19:00etan, berriz manifestaziorako hitzordua egin dute. Seberretik aterako dira emakumeen eskubideak aldarrikatzera, trikitilariek lagunduta. Aurten manifestazioan erabiliko duten leloa honako hauxe da: *Geurea da giltza… Emakumeok aurrera!*

Aurtengo Martxoaren 8a emakumeen parte-hartzearen gainekoa da. Hala dio Maite Barreñak, Emakume Txokoko teknikari arduradunak: "Herrigintzan emakumeok parte hartu behar dugula azpimarratuko dugu. Eta parte-hartze hori bi arlotan garatuko dugu: bata da parte hartzera bultzatu eta bestea gaur egun egiten dugun parte-hartzea ikusarazi eta baloratu".

**BIDEO-EMANALDIA**

Hain zuzen ere, parte-hartze hori izango da manifestazioaren ostean egingo duten bideo-emanaldiaren ardatza: "Azkeneko bi urte hauetan gabiltza emakumeen parte-hartze sozio-politikoa bultzatu guran, eta horren inguruko hainbat ekintza egin ditugu. Oraingoan, bideoa egin dugu. Helburua da egun Arrasaten hainbat erakundetan, alderdi politiko, sindikatu zein gainontzeko giza taldeetan dabiltzan emakumeen parte-hartzea ikusaraztea, ikustea eta erakustea emakumeok parte hartzen dugula Arrasateko egunerokotasunean eta guk egiten dugun lan hori inportantea dela, militantziatik abiatutakoa dela eta musu-truk egiten dugula", azaldu du Maite Barreñak.

Udal teknikariak gaineratu du hori erakusteko askotariko emakumeek parte hartu dutela bideoan: "Erakunde askotakoak etorri dira, Hirugarren Munduarekin lotutako elkarteetan dabiltzanak, kirol arloan, arlo kulturalean, euskalgintzan, alderdi politikoetan… 40 emakume inguru etorri dira".

Eta emakume horiek euren bizipenak kontatu dituztela zehaztu du: "Batzuek kontatzen dute zelan iritsi ziren militantzia politikora edo kulturalera. Militantziak zein zailtasun izan dituen. Konparatzen dituzte emakumeen eta gizonen militantziak, eta zein oztopo duen bakoitzak. Erantzukizunak ere aztertu dituzte, zaintzak batez ere; hau da, ume zein pertsona nagusien zaintzak zelako mugak ipintzen dion emakumearen parte-hartzeari… denetik apur bat".

Bideo-emanaldiaz gainera, arratsaldeko ekitaldi nagusian kantu saioa egingo dute emakume batzuek, beste batzuek poesia emanaldia eta beste batzuek komunikatua irakurriko dute.

## Jardunaldien egitaraua

**GOIZEAN**

10:00 Emakumeen azoka, Seber Altube plazan.
12:00 Kale antzerkia.
Margolariak, kalean margotzen.

**ARRATSALDEAN**

17:00etatik 19:00etara umeendako jolas ez-sexistak .
19:00 Manifestazioa (trikitilariekin), Seber Altubetik.
19:30 Herriko plazan ekitaldia.
20:00 Luntxa, udaletxeko osoko bilkuren aretoan.

## Ludoteka ibiltaria Garagartzan

Oraingo zapatuan hasita, ludoteka ibiltaria lau zapatutan Garagartza auzoan izango da: martxoaren 15ean da hurrengo hitzordua eta apirilaren 5ean eta 12an gainerako biak (Aste Santua dago erdian). Patxixenan egongo da ludoteka ibiltaria 11:00etatik 13:30etara bitartean. Eta Garagartza eta Gesalibar auzoetako 3-12 urte bitarteko neska-mutikoek parte hartu ahal izango dute. Biharkoari dagokionez, Emakumeen Eguna dela kontuan hartuta, jolas ez-sexistak eta eskulanak egingo dituzte, besteak beste.



GOIENKARIA



**BIZIKLETAN** Iaz ere egin zuten bizikleta ibilaldia (argazkian). TXATXILIPURDI

GAZTEAK > TXATXILIPURDIREN EKITALDIAK

# Pazko Astean 'rafting' egitera, gazte txokoetatik

Martxoaren 25etik 29ra bitarteko egitaraua antolatu dute; zenbait ekimenetan izena eman beharra dago

U.M.> ARRASATE

Pazko Astea oraindik urrun samar ikusten badugu ere, Txatxilipurdi elkarteak dagoeneko prestatu ditu gazte txokoetako gazteei begira ekitaldiak (12-16 urte), martxoaren 25ean hasi eta martxoaren 29rako. Ekitaldi horietako hirutan parte hartzeko izena ematea derrigorrezkoa da. Eta adi ibiltzea komeni da; izan ere, datorren astean eman beharko da izena, hurrengoa Aste Santuko oporraldia delako.

**'JAIZKIBELGO AMILDEGIETARA'**

Egunak banan-banan aztertuta, martxoaren 25ean gazte txokoak normal zabalduko dituzte; hau da, 17:00etatik 20:00ak arte. Helburua da hurrengo egunei begira izango diren ekitaldien berri eman eta haiek gazteekin batera antolatzea.

Martxoaren 26an, berriz, kirol apurtxo bat egingo dute, areto futbol eta saskibaloi txapelketak egingo dituzte-eta, Iturripeko kiroldegian. Parte hartzeko izena eman beharko da.

Martxoaren 27ari dagokionez, berriz, mendira joango dira. *Jaizkibelgo Amildegietara* izenburua ipini diote irteera horri. Beraz, izenak dioen moduan, Jaizkibel inguruan pasako dute eguna: "Eguraldiak esango du ibilaldia luzeagoa edo motzagoa egingo dugun", azaldu du Lander Juaristik, gazte txokoetako arduradunak. Kontuak kontu, egun guztirako joango dira Pasaia aldera, 09:00etan Garibaitik aterata.

Irteera doakoa da, baina joan gura izanez gero, komeni da izena lehenebailehen ematea, plaza mugatuak izango direlako, "autobusa bete arte".

**'RAFTING' EGITERA**

Hurrengo egunean kirola egiten jarraituko dute; izan ere, bizikleta irteera antolatu dute, kasu horretan, Arrasaten bertan. Garibai-Bedoña-Urkulu izango da ibilbidea: "Lasai-lasai ibiliko gara", dio Juarisitik. Beraz, gaztetxoenek ere parte hartu ahal izango dute ekimen horretan: "Ogitartekoa eramatea komeni da", gaineratu du.

Bukatzeko, martxoaren 29an *rafting*-a egitera joango dira. "Bidarraira joango gara, Iparraldera", zehaztu du Juaristik. Azpimarratu du irteera horretara joateko 20 euro ordaindu beharko dela eta izena ahalik eta lasterren eman behar dela, hor ere autobusa bete arte hartuko dute-eta jendea.

> IKASTAROAK

## Baratze ekologikoaren alde teoriko eta praktikoak landuko dituzte Bedoña auzoan

Bedoña Batuk, Bedoñako kultura elkarteak, baratze ekologikoaren gaineko ikastaroa antolatu du, auzoan, martxoaren 15erako; alde teorikoa eta praktikoa landuko dituzte. Auzotarrendako ez ezik, kanpoko jendearendako ere zabaldu dute ikastaroa. Parte hartu gura duenak datorren martxoaren 13a baino lehen eman behar du izena. Honako telefono zenbakira deitu behar da: 630 05 91 98.

**HIRIGINTZA** > AUZOETARAKO EGITAMU BEREZIAK

# Gesalibar eta Garagartza auzoak ordenatu guran dabil Arrasateko Udala

Bi auzo horien gaineko plan berezien aurre-laburpena prestatu eta jendaurrean ipini du Udalak, iradokizunak jasotzeko

UBANE MADERA > ARRASATE
Gesalibar eta Garagartza auzoetako plan bereziak prestatzen dabil Arrasateko Udala. Bestela esanda, bi auzo horiek hirigintza ikuspegitik ordenatzeko planak lantzen dabil. Eta dagoeneko planon aurre-laburpenak prestatu ditu.

Hain zuzen, oraingo asteko gobernu batzarrean eman diote onespena Garagartzako planaren aurrerakinari. Orain, jendaurrean ipiniko dute bi hilabetez, herritarren iradokizunak edo alegazioak jasotzeko. Horrez gainera, Garagartza auzoko batzordera ere bidali dute ale bat, auzotarren iritzi eta iradokizunak batzeko. Halaxe jakinarazi dute Hirigintza Sailetik.

Gesalibarko plan bereziaren aurre-laburpenari dagokionez, berriz, hura jendaurrean ipinita dago lehenagotik. Eta auzoan ere badute kopia bat, auzotarrek azter dezaten. Kasu horretan, apirilaren 7an amaituko zaie iradokizunak egiteko epea.

**HERRITARREN PARTAIDETZA**
Udal talde berria gobernatzen hasi zenean, iragarri zuen herritarren parte-hartzea bilatuko zuela legealdi honetan. Bada, irizpide horri eutsita dabil Udala bi auzo horietako bizilagunen iritzia eskuratu guran. Hori horrela, auzotarren iradokizunak jaso, aztertu eta alegazioen gainean erabaki eta gero, Udalak irizpideak finkatuko ditu plan bereziak idazteko.

**ERDIGUNEA INDARTU**
Oro har, Garagartza eta Gesalibar auzoak antolatu gura ditu Arrasateko Udalak. Besteak beste, auzoko zerbitzu, azpiegitura, etxebizitza, fabrika eta oro har, elementu guztiak aztertuko dituzte. Garagartzaren kasuan, adibidez, auzoaren erdigunearen izaera indartu gura du eta erdigunearen bueltan dauden etxeen fatxadak bere horretan utzi. Egitamu Berezien beste ardatzetako bat izango da bi auzoetarako sarrera-irteerak (oinezkoendako zein ibilgailuendako) hobetzea.

**AZPIEGITURAK** > GERALEKU INTERMODALA

# Geltoki intermodala non ipini aztertzen

Arruena parke inguruan ipintzea zegoen aurreikusita, baina Udalak ez du han kokatzerik gura

U.M. > ARRASATE
Azken asteotan, Arrasaten eraiki asmo duten geraleku intermodalaren gaia lantzen dabiltza Arrasateko Udala eta Gipuzkoako Foru Aldundia. Bien arteko batzarren helburua da egitasmo hori Arrasaten zela gauzatuko den erabakitzea.

**ARRUENA LIBRE UTZI GURAN**
Ino Galparsorok, Arrasateko alkateak azaldutakoaren arabera, berez aurreikusita zegoen geraleku intermodala Arruena parkean egitea, Eroski hipermerkatuaren ondoko parkean, alegia. Baina parke hori salbatu egin gura du Arrasateko Udalak, "Gobernuan sartu eta segituan aditzera eman genuen Arruena parkea libratu egin behar zela", aditzera eman du Galparsorok.

Hori horrela, geraleku intermodala egiteko beste leku baten bila dabiltza orain. Hain justu, joan den astean izan zuten horren gaineko batzarra, besteak beste, Ino Galparsorok eta Arantza Tapiak, Diputazioko Garraio sailburu-ordeak. Arrasateko alkateak jakinarazi du proposamenen bat aztertu bazuten ere, adostasunik ez dutela lortu oraindik. Horren ondorioz, berbetan segituko dutela gaineratu du Galparsorok.

**EKAINAREN 30A**
Kontuak kontu eta eztabaidak eztabaida, alkateak argi du geraleku hori Arrasaten egingo dutela. Horrekin batera, esperantza erakutsi du urtearen lehen seihilekoa bukatu baino lehen (ekainaren 30erako) definitu ahalko dutela geralekua zelakoa izango den eta non eraikiko duten.

## Bazkaria eta parranda, Biona taberna behar bezala agurtzeko

Oroitzapenerako argazkia atera zuten Biona tabernako lagun gertukoenek joan den asteburuan. Zapatuan egin zuten tabernaren agur bazkaria Udala auzoko Larrinetxe jatetxean. 41 lagun elkartu ziren.

Bapo bazkaldu ostean, Bionara jo zuten, tabernan azkeneko parranda egiteko. "Izugarrizko jendetza etorri zen, sukaldea, biltegia eta patioa jendez gainezka izan zen", dio Pili Negro langileak, "bi belaunaldi elkartu ginen: lagunak eta haien seme-alabak".



GOIENKARIA

KONTRATAK
IRVROK S.L.
ERAIKUNTZAK
Meatzerreka 5 bis - 246 posta-kutxa
Tel.: 943 77 09 92 Faxa: 943 79 78 14
ARRASATE

UGARAN
Jatetxea
Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

BITTORI
ERRETEGIA
Eguneko menua - Kartako menua
Espezialitateak:
legatz kokotxak eta txuletak
Araba Etorbidea 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82

**MUSIKA** > NESKEN TALDEA

# AIN_1 musika taldearen aurkezpena zapatuan

Bost neskak osatu dute, eta musika, poesia, dantza eta marrazkiak elkartzen dituzte ekitaldietan

Emakumeen Nazioarteko Eguna dela-eta egingo duten manifestazio ostean joko dute, plazan




AIN_1 Emanaldiak iragartzeko duten kartela. AIN_1

**MIRARI ALTUBE** > ARRASATE

Proiektu berria sortu dute Arrasateko hainbat neskak. AIN_1 izena jarri diote, eta musika taldea baino gehiago proiektua dela diote. Bihar, zapatua, Emakumeen Nazioarteko Eguna dela-eta egingo duten manifestazio ostean joko dute Herriko Plazan. Aurretik kontzertu batzuk egin dituzte –Gasteizen eta Arrasaten–, baina taldearen aurkezpena izango da biharko ekitaldia.

**MUSIKA AKUSTIKOA**

Boskotea osatu dute lau arrasatearrek eta gasteiztar batek: Ainara Kortabarriak gitarra jotzen du eta ahotsa jarri; Iraitz Agirrek gitarra jo eta poesia irakurri; Olatz Urkiak pianoa eta gitarra jotzen ditu; Amaia Pavonek biolina; eta Itsaso Nabaridas gasteiztarrak dantzan egin eta antzeztu. "AIN_1 izenak esanahi asko ditu: hainbat xelebre, hainbat neska… zabalik dago", diote.

Proiektua Kortabarriak eta Agirrek jarri zuten abian, iaz uztailean, eta abenduan Gasteizko lehiaketa batera aurkeztu ziren: "Azkenan jo genuen, eta ordutik aurrera serioago hasi gara lanean; hala, pianoa eta biolina sartzea erabaki dugu", jakinarazi du Kortabarriak. Ez daki zein izen jarri, egiten duten ikuskizunari: musika akustikoa, folka, musika eta antzerkia lagun dituen poesia irakurketa, dantza garaikidea, inprobisazioa… Eta orain marrazkiak ere sartu gura dituzte.

**DOMEKAN, BERGARAN**

Biharko ekitaldia motza izango da, baina beroa. Izan ere, Arrasateko emakumeen aurrean aurkeztuko dira: "Emakumeek osatutako talde gutxi daude, eta ondo hartuko gaituztela uste dugu. Gasteizen, behintzat, gustura ikusi gintuzten", argitu du Kortabarriak.

Zarata handirik atera barik sortutako proiektua da, baina hemendik eta uztaila bitartean hainbat kontzertu dituzte. Domeka honetan bertan Bergarako Aroztegi aretoan izango dira, 18:00etan; apirilaren 5ean Arrasaten joko dute berriro eta apirilaren 19an, Eskoriatzan. Gero Italiaraino joango dira hiru kontzertu eskaintzera: "Lagunen bitartez antolatu ditugu gehienak, eta ilusio handiarekin gaude".

**KALE ANTZERKIA** > BERDINTASUNA LANTZEN

## 'Eta guztiak arduratzen bagara?' antzezlanak etxeko arduren banaketa aldarrikatuko du

Kontukantoi antzerki taldeak gizonen eta emakumeen rolak utziko ditu agerian bihar, 12:00etan, Arrasateko kaleetan



KALEAN Hernanin aurkeztu zuten antzezlana, abenduan. KONTUKANTOI

**M.A.** > ARRASATE

Emakumeen Nazioarteko Eguna izanik bihar, etxeko lanen eta arduren banaketaren gaineko kale antzerkia ekarriko du Emakume Txokoak. Kontukantoi taldeak *Eta guztiak arduratzen bagara?* lana antzeztuko du 12:00etan, herriko kaleetan.

**UMOREA ETA KLOWN ESTILOA**

Klown estiloan eta umorez betetako antzezlanak etxeko guztien erantzukizuna ezinbestekoa dela erakutsiko du. Zaintza eta etxeko lanen ardura banatzerakoan sortzen diren arazoak utziko ditu agerian. Eta gizonen eta emakumeen paperak zeintzuk diren erakutsiko dute herritarrak sentsibilizatzeko asmoarekin. Antzezlanaren gaia ezaguna da edozein familiarendako: erosketak egitera doa familia osoa; amandrea, aitajauna, aita, ama, alaba eta azken horren umetxoa. Zer gertatuko da? Nor nekatuko da gehien? Nor ibiliko da ondoen? Emakume baserritarren azoka inguruan ibiliko dira, eta egoera barregarriak sortuko dituzte.

**IPUIN KONTALARIAK**

Hernaniko Berdintasun Sailak eskatuta gertatu zuen Kontukantoi taldeak erantzukizunaren gaineko antzezlana, eta hantxe aurkeztu zuten joan den abenduan.

Beatriz Egizabal eta Cesar Marcos bikoteak sortu zuen Kontukantoi, 2005ean. Zortzi urte lehenagotik antzerki taldeetan, ipuinak kontatzen eta klown emanaldiak egiten ibilitakoak ziren biak. Ipuinak kontatzen jarduten dute gehienbat, baina gai zehatzak lantzeko ikuskizunak sortzen dituzte. Hala, *Eta guztiak arduratzen bagara?* antzezlanerako beste aktore batzuen laguntza izan dute: Laura Lopez, Anduriña Zurutuza eta Iñakito.

**KONTZERTUA** > 3.60 ARETOA

## Amsterdameko Sunnpimp eta Los Cretinos gaur (23:00)

**M.A.** > ARRASATE

Punk-rocka egiten duen Amsterdameko (Herbehereak) Sunnpimp talde indartsuak joko du gaur, 23:00etan, 3.60 aretoan. 2002an osatu zuten laukotea, 70eko hamarkadako musikaren eta rock-and-rollaren eraginpean. AC/DC, The Stooges eta MC5 taldeen eraginak, esaterako, euren estilora moldatzen dituzte. *Airbone undies tour 2008* izeneko bira egiten dabiltza, eta Espainiako hainbat herritan eman dituzte kontzertuak. Arrasatera Madrilen jo ostean etorriko dira, eta daukaten guztia ematen saiatuko dira taula gainean.

**LOS CRETINOS ARRASATEARRAK**

Amsterdameko taldearekin batera Arrasateko Los Cretinos hirukotea izango da, gaur. Rock-and-rolla egiten duen taldea 2002an sortu zuten, eta The Stooges, Johnny Thunders eta The Sonics taldeen bertsioak egiten zituzten orduan. Gero, euren abestiak egiten hasi ziren, eta dagoeneko bigarren diskoa gertatzen hasita daude.




Elena
Udaberri-Uda 2008
NEURRI HANDIETAN
ESPEZIALISTAK
48 eta 64 bitarteko
neurriak aukeran
Parisko azken joerak
Elena Jantzi denda
Bizkaia Etorbidea 1
ARRASATE
Tel.: 943 77 14 24


ARKAUZ
MUEBLES
ARETXABALETA
ETXE MOBEL
ALTZARIAK
ARRASATE
ARKAUZ
COCINA INTEGRAL
ARETXABALETA
FAGOR
banatzaile ofiziala
ARKAUZ
ELECTRODOMESTICOS
ARETXABALETA
expert
banatzaile ofiziala
Arkauz zure etxea da.
GRUPO
ARKAUZ
ARETXABALETA • ARRASATE
1950•2008

ATLETISMOA

# Errekor berria Maialen Axpek

X.U. > ARRASATE

Arrasateko atletismo taldeko Maialen Axpek Euskadiko errekorra ondu zuen joan den astean pertika saltoan. Axpek Gipuzkoa ordezkatu zuen Pirinioetako Lurraldekako Txapelketan, eta kadete mailan hiru metroko saltoa eginda lehenengo sailkatu zen. Ordura arte, Euskadiko errekorra 2,95 metrotan zegoen –kadete mailan–, eta Axpek bost zentimetro ondu zuen errekorra.

Beste behin, Arrasateko klubeko atleta gazteak berretsi egin du Mojategin harrobiarekin egiten dabiltzan lana. Aipatzekoa da, esaterako, emakumezko pertika jauzilariekin egiten dabiltzan lana. Zapatuan Naroa Agirrek berak zoriondu zuen Axpe, baina bide luzea du oraindik egiteko.

**PEREZEK 4,90 METRO**

Maialen Axperekin batera, Remi Diosdado, Lore Mar eta Jonathan Perez ere txapelketan izan ziren. Diosdadok 23 segundoan egin zituen 200 metroak, Marrek 2,80 metroko saltoa egin zuen pertikarekin eta Perezek, berriz, 4,90 metroko marka egin zuen.

> MENDIA

## Lizarrustitik Ataunerako mendi zeharkaldia domekan

Domekarako, hilak 9, oinez egiteko mendi irteera antolatu du Besaide mendi elkarteak. Mendi zeharkaldi horretan, Lizarrustitik Sarastarrira egingo dute, oinez, eta handik Ataunera.

07:00etan izango da irteera ordua, autobus geltokian, eta, antolatzaileek aurreikusten dutenez, bazkaltzeko Arrasatera itzuliko dira.

> XAKEA

## Hirugarren dagoen Arrasatek Tolosa izango du kontrario

Inoiz baino errazago gainditu zuten Arrasatekoek asteburuko jardunaldia. Izan ere, Baionakoak, gaizki ulerturen bat tarteko, ez ziren jokatzera azaldu. Easo da lider, Zarautz da bigarrena eta Arrasate hirugarrena –Zarauzkoekin egongo da lehia–. Asteburuan Tolosa-Ibarra taldearen kontra jokatuko du Arrasateko taldeak.




**ZORNOTZA, EZAGUNA** Iazko erretratuan, Gamarra Zornotzako jokalariarekin lehian; aurrean du Kintana. GOIENKARIA

**SASKIBALOIA** > IGOERA FASEA

# Hamar finaletako lehena Zornotzan jokatuko du MUk bihar (18:20)

Lehenengo fasean egindako lanari esker, Arrasateko saskibaloi taldeak lehenengo postuan hasiko du igoera fasea, 15 punturekin

XABIER URTZELAI > ARRASATE

Aurten, berriro ere, Mondragon Unibertsitateak EBAra igotzea ahalbidetzen duen igoera fasea jokatuko du. Iñaki Merinoren mutilek, gainera, aurreko urteotan baino gertuago dute goiko kategoriarako txartela; horrek ez du esan gura eskura dutenik, ezta gutxiago ere; beste barik, abantaila politarekin hasiko dute hurrengo fasea, lehenengo postuan.

**LEHENENGOA GORA DOA ZUZEN**

Hain zuzen ere, hori da aurtengo berritasunetako bat, igoera fasea lider amaitzen duenak zuzenean eskuratuko duela EBAra igotzeko txartela. Eta, bigarren sailkatzen denak *play-off*-a jokatuko du, edo, bestela esanda, azken kanporaketa –seguruenik Gaztela eta Leonen–. Merinoren mutilen erronka lehenengo postu horri eustea izango da.

Nazional mailako lehenengo fasea bi multzotan egon da banatuta, eta bi multzo horietako lehenengo bost taldeak sailkatu dira igoera faserako –beheko taulan daude talde horiek–. Hala, fase berri horretan MUk beste multzoko taldeak izango ditu kontrario: "Daukagun abantaila da, ustez, beste multzoa gurea baino makalagoa zela, eta gure multzoan lehenengo sailkatu bagara, orain izango ditugun kontrarioak ez dira gu baino hobeak", adierazi du aste barruan taldeko kide Gorka Kintanak. Sailkapenari begiratuta E. Leclerc Vitoria eta Viajes Marfil azpimarratu ditu Kintanak: "Gure multzoan egon diren taldeen aurrean abantaila dugunez, beste multzoan aurrean egon diren taldeak izan behar ditugu orain kontuan. Dena dela, bistan da norgehiagoka guztiak izango direla garrantzitsuak".

**ZORNOTZAN, KONTUZ**

Berez, bi multzoetako liderrek sailkapeneko azken postuetan sailkatu diren taldeen kontra jokatuko dute: "Baina tranpa bat baino gehiago dago hor. Etxean jokatuko bagenu, Zornotza ondo hartuko genuke mendean. Baina, etxetik kanpora, kontuz. Talde ezaguna da, ez dugu sorpresarik jasoko; izan ere, aparteko taldea ez bada ere, etxean jokatzen dutenean hazi egiten dira".

Baina, beste multzoan lider izan den E. Leclerc Vitoria taldeak ez du errazago izango: "Horiek ere, akaso, sorpresaren bat edo beste izango dute. Asteburuan Baskonia izango dute aurrean, eta, gezurra badirudi ere, talde hori da gure multzotik sailkatu den azkena".

Hori horrela, Arrasateko zaleek datorren astera itxaron beharko dute Iturripeko harmailak betetzeko; baina Zornotzan ere beharko dute hemengoen babesa.

## Igoera fasea, lidergoan hasi

| | |
|---|---|
| Mondragon Unibertsitatea | 15 |
| E. Leclerc Vitoria | 14 |
| Viajes Marfil | 13 |
| Cafes Aitona | 12 |
| Urdaneta | 12 |
| Fundacion Baskonia | 11 |
| Tabirako Baque | 11 |
| Valsay Ardoi | 11 |
| Zornotza | 11 |
| CNP-UPNA | 10 |

ITURRIA: WWW.BASKETBASKO.COM

**futbitoa zaldibar**

**EMAITZAK**

| | |
|---|---|
| Cipris-Dribling | 0-3 |
| Total Disaster-Iluntz | 2-6 |
| Bar Kokots-McAwenDauen | 4-6 |
| Kalapatxak-Saukelu Abian | 3-1 |
| Ekaitz Tab.-Cicatrus | 6-4 |
| Iturriotz-AT Celaya | 3-7 |
| Equs-Iriztu Taberna | 2-3 |
| Lasagabaster-Abokajarro | 3-2 |
| THC-HLB 108 | 0-1 |
| Dublin Irish Pub-Betrayer | 3-5 |

**PARTIDUAK**

| Martxoak 8, zapatua | Epaileak |
|---|---|
| **11:00** Cipris-Dublin | **Ekaitz** |
| **12:00** Ekaitz-Iriztu | **Cipris** |
| **13:00** AT Celaya-Kalapatxak | **Iriztu** |
| **16:00** Dribling-Iluntz | **HLB 108** |
| **17:00** Equs-HLB 108 | **Iluntz** |

| Martxoak 9, domeka | Epaileak |
|---|---|
| **11:00** Bar Kokots-Cicatrus | **Total Disaster** |
| **12:00** Saukelu Ab.-Total Disaster | **Bar Kokots** |
| **13:00** Betrayer-McAwen Dauen | **Saukelu** |

**SAILKAPENA**

| | | P | J |
|---|---|---|---|
| 1. | McAwen Dauen | 36 | 12 |
| 2. | Dribling | 28 | 13 |
| 3. | Betrayer | 28 | 12 |
| 4. | Cipris | 25 | 12 |
| 5. | Dublin Irish Pub | 22 | 12 |
| 6. | AT Celaya | 21 | 12 |
| 7. | Iriztu Taberna | 21 | 12 |
| 8. | Lasagabaster | 20 | 12 |
| 9. | HLB 108 | 19 | 12 |
| 10. | Ekaitz Taberna | 16 | 12 |
| 11. | Saukelu | 14 | 12 |
| 12. | Kalapatxak | 14 | 12 |
| 13. | Iturriotz | 12 | 11 |
| 14. | Equs | 12 | 11 |
| 15. | Bar Kokots | 12 | 12 |
| 16. | Abokajarro | 10 | 12 |
| 17. | Cicatrus | 9 | 13 |
| 18. | Iluntz | 8 | 12 |
| 19. | Total Disaster | 6 | 12 |
| 20. | THC | - | - |

## Iluntz sei puntu gutxiagorekin eta fidantza barik geratu da

Zigor hori jaso du Iluntz taldeak, sei puntu eta fidantza. Talde horrek Driblingen kontra jokatu behar zuen zapatu arratsaldean, eta, antolatzaileen esanetan, behar baino jokalari gutxiago azaldu ziren Zaldibarrera; hau da, ez zuten gutxieneko kopurua bete. Pena da; izan ere, Iluntz hamargarren postuan sailkatuta zegoen (14 punturekin), eta gertu zituen hurrengo faserako sailkatzeko postuak. Orain, ezer egiteko aukera barik geratu dira.

Asteburuan, berriz, sailkapenari begira hainbat norgehiagoka interesgarri jokatuko dituzte. Batetik, domekan (13:00) oilarren arteko partidua: lehenengo dagoen McAwen Dauen eta hirugarren dagoen Betrayer aurrez aurre.

Horrekin batera, laugarren dagoen Ciprisek bosgarren dagoen Dublin Irish Pub taldearen kontra jokatuko du zapatuan (11:00). Bi talde horien artean ez dago hiru puntuko aldea baino.

kanpotarrak Arrasaten

**Ana Reyes** > Ekuadorrekoa da Arrasaten bizi da

# "Arrasaten arnasten den bakea da gehien gustatzen zaidana"

JASONE ZABALA > ARRASATE

**Ana Reyes duela sei urte etorri zen Arrasatera. Pozik bizi da gurean, senarra ere Arrasatekoa duelako. Jatun ona da, denetarik gustatzen zaio. Ekuadorren utzitako familia gogoan duen arren, ez du uste berriz ere bertara itzuliko denik bizi izatera.**

Ana Reyes ekuatoriarra, Loja probintziakoa da, baina Quiton bizi izan zen etorri arte. 2002ko irailean etorri zen Arrasatera, eta aurretik Madril, Soria, Burgos eta Malagan ere egon zen. Gurean lan eta ikasketak uztartzen ditu. Bere senarra Arrasatekoa da, eta Arrasaten bertan ezagutu zuen. Oraindik ez dute seme alabarik, baina beraiekin batera bizi diren bi txakurrak ondo zaintzen dituzte.

**JATUN ONA**

Ana Reyesen arabera, "hiriburu batetik herri batera bizi izatera etortzea, hori egin zitzaidan arraroena. Quitorekin alderatuta, askoz txikiagoa da Arrasate. Gainera, etorri nintzenean ez nuen inor ezagutzen eta gogorra izan zen". Janariari dagokionez, Reyes jatun ona den arren, badira bi gauza ez zaizkionak gustatzen: "Ezin dut saltsa berdean gertatutako arrainik jan, ezta bildotsa ere. Hala eta guztiz ere, esan behar dut jatun ona naizela". Paisaiari dagokionez, Reyesek zera esan digu: "Arrasaten, trafiko aldetik edo kaleko arrisku aldetik, Quiton baino bake eta lasaitasun handiagoa arnasten da". Aste bukaeretan, inguruko beste herri batzuk ezagutzeko aprobetxatzen du: "Senarrarekin inguruko beste herri batzuk ezagutzera joaten naiz eta hango janaria jaten dut".

**"Arrasaten trafiko aldetik edo kaleko arrisku aldetik, Quiton baino bake eta lasaitasun gehiago arnasten da"**



Ana Reyes.

Ekuadorren, familia handia utzi zuen Reyesek: "Faltan asko botatzen ditudan arren, nire bizitza, gogor lan egin ondoren, hemen dago. Arrasatera egokitzen nire senarrak asko lagundu dit, asko zor diot berari".

txutxu-mutxua

## Arizmendi eskolako neska-mutikoak Anoetan egon ziren domekan

**Pasa den domekan Donostiara joan ziren Arizmendi ikastolako hainbat neska mutiko Reala eta Xerez- en arteko partidua ikustera. Guztira 2.200 sarrera banatu zituen Realak Arizmendiko ikastolan. Arizmendi ikastolari emandako 2.200 sarrerak 4tik 20 urte bitarteko gazte eta langileen artean banatu ziren. Batzuk goizean goizetik joan ziren Donostia aldera, eta beste batzuk arratsaldez. Bakoitza bere aldetik moldatu zen Anoetara heltzeko; batzuk autoetan joan ziren eta beste batzuk autobusetan. Pozik egin zuten itzulera, Realak 4-2 irabazi eta gero.**



ARIZMENDI IKASTOLA

bere ustez


Aitor Eizagirre

## Agur baino, gero arte hobe

Bukatu da hauteskunde kanpaina! Denbora batez lasai egongo garela usteko duzu agian… baina urtebete besterik ez da igaroko eta berdinera itzuliko gara: Euskal Autonomia Erkidegoko eta Europako Parlamenturako hauteskundeak berriz ate joka izango ditugu! Berriro entzun beharko ditugu politikoak beraien promesa sinesgaitzekin, gure kaleak berriro zikinduko dira kartel eta antzerakoekin eta orduan ere postontziak propagandaz josita topatuko ditugu. Euskal Herrian kanpaina ez da ohikoa izan, ETAren su-etenaren amaiera eta gero, Madrilen ezker abertzalea ilegala zela erabaki zuten. Zapateroren jarrera eskolako patioko ume maltzur batena bezalakoa izan da: "Baloia nirea da eta ez dizut jolasten utziko…" Ondorioz, ezker abertzaleak abstentzioa eskatu du, zer erremedio…

**"Zapateroren jarrera eskolako patioko ume maltzur batena bezalakoa izan da"**

Ebrotik behera, ordea, betikoa da, Zapatero eta Raxoi mokoka, proposamen berri gutxi (eta berritzaile gutxiago), eta bakoitzak bere zilborrari so egingo dio martxoaren 9tik aurrera ere. Hori bai, igandetik aurrera Labordeta jada ez da Madrilen egongo, nire miresmena merezi duen politiko bakarrenetakoa izan da bera, eta nik faltan botako dut.

S. CARRASCAL S.L.
Guk egindakoak:
- Sukalde altzariak
- Horma-armairuak
- Trastelekurako armairuak
Erakusketa berria
Ekutio kalea pab. 14-15
Uribarri auzoa 4
Tel. faxa: 943 79 01 82

Txitxinpe
Berezitasunak
Kazuelatxoak
Ogitarteko
hotz eta beroak
Arrasate pasealekua 33
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76

LEIHOAK, ATEAK, ZORUAK, ARMAIRUAK
AGR
García Ripa
ZAHARBERRITZEAK
PVC, ALUMINIOA, EGURRA
Erakusketa eta biltegia:
Kale txiki 3 behea (Musakola)
Tel. eta faxa: 943 77 11 20



**ZERBITZUAK** > HIRI TRESNERIA

# Bizikletak aparkatzeko lau gune jarriko dituzte

Bizikletendako aparkaleku horiek egokituko dituzte San Martin plazan, autobus geltokian, anbulatorioan eta Seminarioko jolas lekuan



**PLAZAN** Irudian San Martin plazan jarri dituzten bizikletendako aparkalekuak. M.B.

**MONIKA BELASTEGI** > BERGARA

Udalak bizikletendako aparkaleku berriak egokituko ditu herriko lau gunetan –batzuk jarrita daude–. San Martin plazan, Ibargaraiko autobus geltokian, anbulatorioan eta Seminarioko jolas lekuan egokitu ditu, hain justu.

Udal arduradunek azaldu dutenez, aparkalekuok jarriko dituzte herritarrek egindako eskariei erantzunez: "Badira herritarrak bizikletaz ibiltzeko ohitura dutenak herrian barrena. Hala, herriko lau gunetan,sartu-irten handiko lau gunetan, bizikletendako aparkalekuak egokitzeko eskariak jaso ditugu eta horiei erantzunez, jarri egingo ditugu", azaldu Enara Minguez Gobernazio buruak.

Udal langileak arduratu dira aparkalekuok jartzeaz eta Obra eta Zerbitzuetako buruak azaldu duenez, ez dira erosi berriak: "Aurretik zeuden biltegian, hori ohikoa da hiri tresnerian, badaezpada *stok*-ean edukitzea materiala. Eta eskariak jaso direnez, biltegian zeudenak aprobetxatu ditugu eskariei erantzuteko", azaldu du obra eta zerbitzuetako buruak.

**ANBULATORIO INGURUA**

Herritarren segurtasunarekin, erosotasunarekin eta irisgarritasunarekin lotura duten bestelako lanak ere egin dituzte azken asteotan obra eta zerbitzuetako langileek.

Anbulatorio inguruan, esaterako. Osasun etxearen irteeran oinezkoendako bidea marraztu dute eta horrekin batera, banatu egin dituzte autoendako eta oinezkoendako bidea zutabe bitartez, segurtasuna bermatzeko asmoz.

**GAZTEAK** > TOPAKETAK

## Izenematea zabalik apirilean egingo diren 12 eta 16 urte arteko gazteendako topaketetan

Apirileko egubakoitzetan izango dira topaketak; izenematea hilaren 13ra arte dago zabalik

**M.B.** > BERGARA

Udaleko Kultura zerbitzuak gazteen topaketak antolatu ditu apirilerako. Topaketok antolatu ditu Jardun euskara elkartearekin, Udaleko hainbat departamenturekin, kale hezitzaileekin eta Xipizaro ludotekarekin elkarlanean.

Topaketok herriko edo herrian ikasten duten 12 eta 16 urte bitarteko neska-mutikoei zuzenduta daude, "askotan instituzioek ahaztuta izaten duten adin tartea", Enara Minguez Kultura zinegotziaren esanetan. Minguezek gehitutakoaren arabera, topaketon helburua da, besteak beste, "herrian dauden ikastetxetako neska-mutikoen arteko harremana bultzatzea".

Izenemateari dagokionez, hilaren 13an bukatuko da epea eta nork bere ikastetxean eman dezake. Bestalde, izena taldeka eman behar da; gehienez sei laguneko taldeak.

Topaketok apirileko lau egubakoitzetan izango dira eta honezkero prest dago egitaraua. Besteak beste egongo dira: graffiti eguna, patinaje eguna eta argazki rallya.

> EMAKUMEAK

### Martxoak 8 ospatzeko ipuin kontakizuna izango da bihar, 19:00etan, Aroztegi aretoan

*Izan ala ez izan, niri ala kontatu zidan* ipuin kontakizuna egingo du Ixabel Agirresarobek, 19:00etan, Aroztegi aretoan, Martxoaren 8ko ospakizunen barruan. Bestalde, egun horretarako txokolatada eta erromeria ere iragarrita zeuden baina Udaletik jakinarazi dutenez, atzeratu egin dira martxoaren 10era.

> IKASTAROA

### Eztia dastatzeko doako ikastaroa antolatu du Udalak eta zabalik dago izena emateko epea

Udalak eztia dastatzeko doako ikastaroa antolatu du. Martxoaren 11n izango da, 19:00etan, eta bi ordu iraungo du. Bestalde, hizlaria izango da Gipuzkoako Erlezainen elkarteko kide Julian Urkiola. Saioak bi atal izango ditu: teorikoa eta praktikoa. Izena emateko deitu kultura etxea: 943 77 91 59 zenbakia.

> HITZALDIAK

### Joxerra Gartzia komunikazioan adituak hitzaldia egingo du eguenean, hilaren 13an

*Zer arraio, kristo, demontre... egin behar dugu euskararekin?* delako hitzaldia egingo du Joxerra Gartziak eguenean, 18:30ean, Aroztegi aretoan. Gartzia EHUko Ikus-entzunezko Komunikazioa eta Publizitatea saileko kidea da eta komunikazioan aditua; baita euskararen kalitatearen txostenaren egileetako bat ere.



GOIENKARIA

## Azken agurra 'Egileor'-i

Ezaguna eta maitatua zen Jesus Alberdi 'Egileor' bertsolaria eta horren isla izan zen astelehenean azken agurra egitera Santa Marina parrokiara hurbildutako jendetza. Bertsolari ezagun ugari batu ziren, Lizaso, Murua, Mendizabal, Sorozabal, Euzkitze eta Xabier Amuriza, esaterako. Sorozabalek "belaunaldi oso garrantzitsu bateko kide" gisa gogoratu zuen eta, Lizasok, berriz, "Egileor'-en heriotzarekin kantatzeko modu bat galduko dugu", adierazi zuen.



EAJ ALDERDIA > HERRIAREN ETORKIZUNERAKO PROPOSAMENA

# EAJ alderdiak berretsi egin du auditoriuma Seminarioan kokatzeko proposamena

Udal gobernuari erantzunez, herriaren etorkizunerako daukan proposamena azaldu dute asteon, eta, era berean, herriko hainbat eraikinetarako dituzten asmoak




AGERRALDIA Rafael Amosarrain, Belen Abarzuza, German Muruamendiaraz, Arantzazu Amosarrain eta Juanjo Arrieta zinegotziak martitzenean, kultura etxean. M.B.

MONIKA BELASTEGI > BERGARA

EAJ alderdiko zinegotziek prentsaurrekoa egin zuten martitzen iluntzean eta herriko hainbat azpiegitura edo eraikinen gainean duten jarrera azaldu zuten. German Muruamendiarazek esandako moduan: "Udal gobernuak azaldu du datozen urteetarako dituen proiektuak arlo akademiko, kultural eta turistikoari dagokienez; bada, horren gainean dugun jarrera azaldu nahi dugu. Hain justu, duela hiru bat aste udal gobernuari azaldutako bera".

### ERREGE MINTEGIA

Muruamendiarazek hauxe adierazi zuen: "Errege Seminarioa baldintzatuta egon da urtetan guztiok ezagutzen dugun jabego arazoengatik. Baina Espainiako Estatuarekin izandako negoziazio prozesu luze eta zail baten ondoren, aurreko agintaldian lortu zen eraikinaren erabilpenaren lagapena UNEDen esku geratzea. Ondorioz, UNEDek bertan jarraitzea ezinbestekoa ikusten dugu eraikuntzaren erabilerak herriaren eskuetan jarrai dezan".

Muruamendiarazek azaldu zuen Gobernu Zentralak lagapena egin zuela baldintza batekin: eurek parte hartzen duten erakunde bati egitea; beraz, UNEDi. Hori horrela, gehitu zuen argi dagoela UNEDen egoitza legal, administratibo eta juridikoa Errege Seminarioa dela. Eta gehitu zuen Aldundiak baduela horren gaineko txosten juridikoa ere, eta txosten horretan aipatzen direla UNED lekuz aldatzeak ekarriko lituzkeen arriskuak.

UNEDek dagoen lekuan jarraitzeko beste arrazoi bat ere eman zuen EAJko ordezkariak: herriari egiten dion ekarpena. Baina ez bakarrik ekarpen akademikoa; herriaren herrialdean kokatuta egonda, "UNEDera datozen ikasleek herriari ematen dioten bizitza", azpimarratu zuen.

Bestalde, UNEDez gain, Errege Mintegian museoa ere badagoela ekarri zuen gogora Muruamendiarazek, eta esan zuen euren proposamena dela dagoen lekuan eta dagoenetan mantentzea.

Azkenik, aipatu zuen Iñaki Azpiazuk auditoriuma Seminarioko elizan kokatzeko egindako proiektua. Zera esan zuen: "Azpiazuren proiektua dago eginda, erdaraz esaten den moduan, *sobre maximos*. Bai eraikinari egin beharreko konponketa aldetik, bai ekipamendu aldetik eta bai material aldetik". Horrekin batera, proiektuaren gaineko azalpenak eman zituen zinegotziak.

### AUDITORIUMA, ELIZAN

Azpiazuren proiektuaren nondik norakoak azaldu eta gero, Muruamendiarazek berretsi egin zuen EAJk garbi duela "auditoriumak eliza horretan kokatu behar duela". Eta gehitu zuen: "Beste gauza bat da proiektu honekin egin behar dugun aurrera, proiektu honen zati batekin, ala beste proiektu batekin". Eta jarraitu zuen: "Egingo denak bat etorri beharko du Bergararen posibilitateekin eta une honetan aukerarik ez badauka proiektu horretan azaltzen diren obra guztiak egiteko, bada, egin beharko litzatekeena da proiektu posibilista bat auditoriuma egiteko, eta horren adibideak baditugu bailaran, esaterako Oñatiko Santa Ana. Eta elizaren egokitzapen horretan, kontuan hartu beharko da baita ondarea ere".

Horrekin batera, gogora ekarri zuen aurreko agintaldian auditoriuma egiteko 1,7 milioi euro inguruko diru partida lortu zutela Aldunditik eta hori aprobetxatu egin behar dela azpimarratu zuen, diru hori barik ez geratzeko. Hori horrela, zera baieztatu zuen: "Diru kopuru horri Udalak beste zati bat gehituta uste dugu Seminarioan egin daitekeela auditoriuma".

Auditoriuma Seminarioan kokatzeko beste bi arrazoi ere eman zituen Muruamendiarazek: batetik, kokapena; herri erdian dagoela, hain justu, eta horrek herriari bizitasuna ekarri ahal diola uste dute. Bestetik, oso zail ikusten dute eliza horri beste erabilpen bat ematea: "Udal gobernuak liburutegi espezializatua, mediateka... aipatzen ditu, baina Bergara bezalako 15.000 biztanleko herri batek ezin ditzake liburutegi bat baino gehiago, mediateka bat... izan".

Udal gobernuak auditoriuma egiteko duen proposamenaren harira –Miguel Altuna institutua–, epe oso luzera joko duela uste dute: "Miguel Altuna institutua eraikin berrira doanerako 2011. urtea izango da; hortaz, orain dagoen eraikina hutsik laga eta auditoriumaren obrak egiten hasi orduko 2014a izango da. Eta Bergarako herritarrak egon daitezke beste sei edo zazpi urte auditorium barik? Eta beste gauza bat: ez dut uste dagoenik inongo aurreproiekturik esaten duenik udal gobernuak proposatzen duen eraikin horrek Seminarioko elizak baino eserleku gehiago emango lukeenik, ezta merkeagoa izango litzatekeenik ere".

### ARRIZURIAGA JAUREGIA

Jauregiak duen kokapena eta inguratzen duen parkea kontuan izanda, Udal Liburutegia han kokatzea proposatzen du EAJk. Era berean, parkea lehenbailehen egokitu behar dela diote. Muruamendiarazek gehitu zuenez, liburutegia han kokatzeko proiektua ere eginda dago–2,5 milioi euroko aurrekontua– eta epe motzera aurrera eroan daitekeen gaia dela uste dute.

Udal gobernuaren proposamenari dagokionez –eraikina UNEDi lagatzea–, "guztiz desegokitzat" jotzen dute, "herritarrek erabili eta disfrutatu beharreko gunea" delako. Bestalde, udal gobernuak proposatzen du nagusien liburutegia Errege Mintegian jartzea eta haur eta gazteena Errotalden, eta hori ere desegoki ikusten dute, adin ezberdinak elkarrekin egotea aberasgarria dela uste dutelako.

### APARKALEKUEN GARRANTZIA

Aparkalekuen garrantzia ere aipatu zuen Muruamendiarazek. Gogora ekarri zuen aurreko agintaldian Udalak Seminarioko jolaslekua erosi zuela lur azpiko aparkalekuak egiteko –225 bat–. Bada, aparkaleku horiek "lehenbailehen egin behar direla" uste dute, "herriak duen gabezia kontuan izanda". Aparkalekuok egiteko aurreproiektua eginda dagoela ere azaldu zuen, baita herriko hainbat gunetan TAO (OTA) jartzeko ere. Eta hori egiten ez den bitartean, EAJk proposatzen du Ibargarain eraikitako azken etxe blokean Udalak jabetzan dituen garajeak ez saltzea eta aparkaleku publiko gisa erabiltzea, "Ikerlekuko aparkalekua bezala".

### ERROTALDE JAUREGIA

Kultura Sailak, erakusketa gelak eta Gazte Informazio Bulegoak Errotalden jarraitzea proposatzen du EAJk . Bestetik, jauregi horrek hartu beharko lituzke euskara eta kultura arloan lan egiten duten elkarte eta taldeak, besteak beste, Jardun eta Berba. Jardunen kasuan, Muruamendiarazek zehaztu zuen, Arrizuriagan liburutegia eginez gero, handik Jardun irten egin beharko lukeela. Hala, Errotalden proposatzen dute Jardunendako lekua.

## "San Martin, Martinez de Iralara eta Aranzadi ikastola, Miguel Altunaren zati berrienera"

San Martin eta Aranzadi ikastetxeen kokapenari dagokionez ere egin zuen badu proposamena EAJ alderiak. Zera proposatzen du: "Aranzadi ikastola eta San Martin ikastetxearen epe luzerako beharrei erantzuna eman nahian, ezinbestekotzat jotzen dugu premien azterketa egitea. Azkerketaren emaitzak jakinda, beharrei erantzuteko soluzioak planteatuko lirateke", azaldu zuen Muruamendiarazek agerraldian.

Bestalde, auziari behin betiko irtenbidea eman nahian proposatzen dute "Martinez de Iralaren erabilera, osotasunean San Martinen esku lagatzea". Eta horretarako, planifikatutako migrazioa planteatzen dute. Bestalde, 2011. urtean Miguel Altuna osotasunean Eginoko eraikin berrira joango dela kontuan hartuta, libre utziko duen eraikinetako bat, berriena, "Aranzadi ikastolak momentuan izan ditzakeen beharrei erantzuteko baliagarria izan" daitekeela uste dute.

**ZINEMA** > GAZTETXEAN

# Zinema zikloko lehen bi hilabeteen balorazioa positiboa izan da

Martxoko emanaldiak 'Zinema soziala' gisa aurkeztu dituzte; domekero izango dira, 18:00etan, gaztetxean

JASONE ZABALA > BERGARA

Bergarako gazte talde batek herrian zinema bultzatu guran zineklub emanaldiak eskaintzea erabaki zuen. Hala, urtarrila ezkero domekero pelikula bat eskaintzen ari dira gaztetxean, arratsaldeko 6etan. Zinema emanaldi horiek bultzatu dituen gazte taldearekin egon gara, eta lehen bi hilabete hauetako balorazioa eskatu diegu. Haien ustez, balorazioa oso ona da orokorrean: "Urtarrileko eta otsaileko emanaldietara nahiko jende etorri da, astero 20-30 pertsona inguru, eta kopuru hori oso ondo dago. Bi hilabete hauetarako aukeratu diren pelikulekin jendea oso gustura agertu da, aukeratutako pelikulak egokiak izan dira", azaldu du taldeak. Martxoko egitarauari dagokionez, guztira bost pelikula izango dira eta hilabete honetako gaia *Zinema soziala* izango da. Joan den igandean, *Llach: LaRevolta Permanent* (Lluis Danes) pelikula eman zuten, Gazteizen 1976ko martxoaren 3an gertatu zena gogoratzen duen pelikula, hain zuzen ere. Hilabete honetarako, beraz, beste lau gelditzuko dira.

**HILERO GAI EZBERDINAK**

Ziklo bakoitzeko pelikulen gaia taldekideek eurek erabakitzen dute. Lehen zikloko (urtarrila eta otsaila) gaia *Bizi-zikloa* izena izan zuen, eta gaiaren arabera erabakitzen dute zenbat denbora izan behar duen ziklo bakoitzak. Datorren zikloa (*Zinema soziala*), martxokoa, hilabete bakarrekoa izango da. Datorren igandean, Iciar Bollainen *Mataharis* izeko pelikula emango dute, zapatuan Emakumeen Nazioarteko Eguna ospatzen dela aprobetxatuz.

## Zineklubaren egitaraua

**Martxoak 9**
Mataharis
Iciar Bollain

**Martxoak 16**
Mad Max
George Miller

**Martxoak 23**
Pelikula sorpresa
(herrian gelditzen direnentzat)

**Martxoak 30**
Camino a Guantanamo
Mat Whitecross

**MUSIKA** > EMANALDIAK

# Orfeoiak eta Gaberok kontzertua

Etzi, domeka, Udal Musika Bandak kontzertua eskainiko du Udal Pilotalekuan, 12:30ean



ORFEOIA Bergarako Orfeoiak kontzertua eskainiko du igandean. GOIENKARIA.

JASONE ZABALA > BERGARA

Asteburu honetan badago zer ikusi eta zer entzun. Gaur, 19.30ean, Mariaren Lagundia elizan udaberriko kontzertua eskainiko dute Gabero abesbatzak, Orfeoi Txikiak eta Orfeoi Txikitxoak. Gabero 28 gaztek osatzen dute; haiek jazz eta musika sakro abestiak interpretatuko dituzte. Orfeoi Txikia 10 eta 13 urte bitarteko 17 neska-mutikoz osatuta dago; haiek euskal kantu batzuk eta ingelesezko abesti batzuk interpretatuko dituzte, eta antzezpen txiki bat ere egingo dute. Orfeoi Txikitxoa 6 eta 9 urte arteko 45 neska-mutikok osatzen dute; haiek guztira bost abesti interpretatuko dituzte, besteak beste euskal abestiak eta abesti afrikarren bat. Kontzertuak ordubete inguru iraungo du, eta hiru abesbatzen zuzendaria Aitor Biain da.

**ORFEOIAREN KONTZERTUA**

Bergarako Orfeoiaren kontzertua, berriz, etzi, domekan, izango da, 19:30ean, Mariaren Lagundia elizan. Kontzertuak bi zati izango ditu: lehenengoan, musika sakroa eta polifonia abestiak izango dira eta bigarrenean, euskal folklorea, jazz, gospel eta musika modernoagoarekin. Emanaldi horrek ere, ostiraleko emanaldiaren antzera, ordubete iraungo du. Orfeoiaren zuzendaria aurreko hiru abesbatzen zuzendari bera da, Aitor Biain.

**MUSIKA BANDAREN KONTZERTUA**

Udal Musika Bandak, bestalde, domekan, martxoaren 9an, eskainiko du kontzertua, Udal Pilotalekuan, 12:30ean. Alfredo Gonzalez Chirlaqueren zuzendaritzapean estilo askotariko bost lan joko dituzte. Aipatzekoak dira, besteak beste, Gonzalez Chirlaquek berak egindako pasodoble bat (*Entre Azahares*), soinu-banda bat eta zarzuelako lan bat.

> IPUIN KONTALARIAK

### Mercedes Carrion ipuin kontalaria izango dugu gurean

Datorren martxoaren 13an, 22:30ean, eta Oihulari Klownek antolatzen duen ipuin zirkuituaren barruan, Mercedes Carrion peruarra (Madrilen bizi da) Bergarako Pol-pol tabernan egongo da, *Ay, que los cuentos se me salen por la boca!* ikuskizunarekin. Ipuinak eta magia konbinatzen ditu era zoragarrian. Martxoaren 14an, berriz, Antzuolako ikastetxean egongo da, 11:00etan.

> MUSIKA

### Koldo Intermusic, Mitximal eta DJ Papi asteburuan Ziripoten

Asteburu honetan DJ gaua egongo da Ziripot tabernan. Gaur, ostirala, gaueko 11etan, Koldo Intermusic eta Mitximal DJak izango dira gaueko giroa animatzen.

Bihar, berriz, musika jartzaile bakarra egongo da, DJ Papi, bertara hurbiltzen diren gorputzak dantzan jartzeko asmoz. Aukera ezin hobea, beraz, asteburu honetan Ziripot tabernak eskaintzen diguna. Sarrera doakoa izango da.

**HURBIL belar denda**

Zure itxura mantentzeaz **arduratzen gara.**

**Ez dugu *mirari*-dietarik erabiltzen**, zure osasunari kalterik ez egiteko eta pisua kentzea osasuntsua eta naturala izateko

**Pisua zaintzeko metodo orekatu eta pertsonala ziurtatzen dugu.**

Aurkituko gaituzu:
**HURBIL**en
Domingo Irala z/g • BERGARA
☎ 943 76 30 08

Pisua eta bolumena soberan badituzu…
NOVA LINE
falta zaizu
**Pisuaren kontrolean**
arrakasta ziurtatuta duzu!




NOVA diet

**Ion Murgizu Pinturak**

Margoketa orokorrean

- Enpapelatuak
- Iztukoak
- Fatxadak
- Eskilarak eta patioak
- Pintura industriala

Zabalotegi 9, 2. esk • **Bergara**
Esozia 24- 2º behea • **Soraluze**
Tel.: 943 75 13 24
Mug.: 652 77 70 30

**ARANZADI IKASTOLAk antolatuta...**





**HITZALDIA**

***ZER ARRAIO, KRISTO, DEMONTRE… EGIN BEHAR DUGU EUSKARAREKIN?***

- **Eguna:** martxoak 13, osteguna
- **Ordua:** 18:30
- **Lekua:** Aroztegi aretoa
- **Hizlaria:** Joxerra Gartzia. EHUko Ikusentzunezko Komunikazioa eta Publizitatea Saileko kide; komunikazioan aditua eta aritua; Kike Amonarriz eta Andoni Egañarekin batera, Euskararen Kalitatearen Txostenaren egilea.

**ILARGIA, SATURNO ETA MARTE IKUSTEKO TELESKOPIOAK**

- **Eguna:** martxoak 14, ostirala
- **Ordua:** 19:30
- **Lekua:** Aranzadi Ikastolako jolastokia
- **Laguntzailea:** Ilatargi Astronomia Taldea

**IKASTAROA**

***0-1 URTE BITARTEKO HAURRENTZAKO MASAJEA***

- **Egunak:** apirilaren 14, 21 eta 28an; maiatzaren 5, eta 14an.
- **Ordutegia:** 17:00-19:00
- **Lekua:** Aranzadi Ikastola
- **Prezioa:** 85 euro



**TAILERRA**

***NOLA LAGUNDU HAURREI BERAIEN EMOZIOETAN***

- **Eguna:** apirilak 23
- **Ordutegia:** 17:00-19:00
- **Lekua:** Aranzadi Ikastola
- **Prezioa:** 17 euro



HAURTXOA

ARANZADI ikastola

**Aurkezpena:** apirilaren 2an, 18:30ean Aranzadi Ikastolan - **Izen ematea:** martxoaren 10etik 28ra Haurtxoa Haurtzaindegian

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

**Hedabide guztietarako**
**telefono berria eta bakarra**
**943 25 05 05**

Goitb Goiena Telebista
ASTELEHENEKO Goienkaria
Goienkaria
FM 107.7 ARRASATE IRRATIA
Goiena.net Debagoieneko Interneteko ataria

TXIRRINDULARITZA > LOKATZA

# Lokatzako taldeak, errepidean

Alebin, infanti, kadete eta gazte mailetako taldeak osatu dituzte Lokatzakoek; 21 mutil ibiliko dira hasi berri den denboraldian

EDU MENDIBIL > BERGARA

Lokatzako txirrindulariek lehengo aste bukaeran jokatu zuten denboraldiko lehen lasterketa. Errenteriara joan ziren gazte mailakoak eta aipatzekoa da Xabier Aranzetak lortutako 11. postua. Bihar, zapatua, kadeteen txanda izango da. 42 kilometro bete beharko dituzte Zarautzen, eta tartean Meagaseko gaina izango dute.

Hasi berri den denboraldian 21 mutil dabiltza Lokatzan: alebin mailako taldean, Pello Garitano zuzendariaren esanetara, Ignacio Dulanto, Martin Telleria eta Martin Martinez ibiliko dira; infantil mailan, Asier Taboada, Jon Odriozola, Iñigo Agirrezabal, Txomin Larrañaga, Mikel Muxika, Andoni Lasa, Julen Irizar eta Aitor Kortabarriak osatzen dute taldea (horretan ere Pello Garitanok jardungo du zuzendari); kadete mailan, bestalde, Iñigo Larrañaga da zuzendaria eta txirrindulari hauek osatuko dute taldea: Ander Telleria, Anartz Gartzia, Jon Rivero, Unai Retolatza, Hodei Orobengoa, Mikel Aristi, Aitor Laskurain eta Eneko Lizarraldek; eta, azkenik, gazte mailan bi txirrindulari baino ez daude taldean: Xabier Arantzeta eta Unai Martinez. Iker Sanchez dute entrenatzaile.

**HARROBIA LANDU**

Iñigo Larrañagaren hitzetan, "helburua betikoa da: mutikoak formatzea eta txirrindularitzarekin goza dezatela". Oraindik ere, Lokatzan parte hartu nahi duten gaztetxoek badute horretarako aukera: eguenetan, 20:00etan, Lokatzako arduradunak Herri Lagunak kalean, Seminariorako sarrera ondoan, dagoen garajean egoten dira. Federatu txartela egiteko edo taldeko bazkide egiteko ere bertara jo dezakete interesatuek. Argibideak: 619 73 95 07 (Mikel Larrañaga)







**LOKATZA** Goian, alebinak eta infantilak; behean, kadeteak eta gazteak. LOKATZA

## Bergarako Txirrindulari Elkartekoak, Dorletan

Ohikoa denez, Bergara Txirrindulari Elkartekoek Dorletara egin zuten denboraldiko lehen irteera, joan zen domekan. Buelta ederra egin ondoren, hamaiketakoa egin zuten Otxandion eta handik etxera itzuli ziren. Domekan, martxoaren 9an, Landa eta Gamarra aldera joango dira, 09:00etan San Martin plazatik aterata. 80 kilometroko ibilbidea aurreikusi dute.



BTE

### labegaraieta

**EMAITZAK**

| | |
|---|---|
| Tiki Taka-Irubide | **5-5** |
| K. Piperrak-Belengua | **7-1** |
| Latinos.com-Irish Pub | **4-6** |
| Tiki Taka-Errotagain | **3-6** |
| Dep. Oriente-Irubide | **3-12** |
| Los Blus-Carboneros | **4-2** |
| Hamaika Jintxi-Niu Tim | **5-10** |

**PARTIDUAK**

| Martxoak 9, domeka | Epaileak |
|---|---|
| **10:00** Hamaika Jintxi-Irish Pub | **Los Blus** |
| **11:00** Los Blus-Errotagain | **Irubide** |
| **12:00** K.. Piperrak-Irubide | **Errotagain** |
| **16:30** Depor. Oriente-Niu Tim | **Belengua** |
| **17::30** Tiki Taka-Belengua | **Niu Tim** |
| **17::30** Latinos.com-Carboneros | **Tiki-Taka** |

**SAILKAPENA**

| | | P | J |
|---|---|---|---|
| **1.** | Erotagaiu | 43 | 16 |
| **2.** | Irish Pub | 38 | 16 |
| **3.** | K. Piperrak | 38 | 16 |
| **4.** | Los Blus | 34 | 16 |
| **5.** | Carboneros | 28 | 16 |
| **6.** | Niu Tim | 22 | 16 |
| **7.** | Tiki-Taka | 20 | 16 |
| **8.** | Belengua | 17 | 16 |
| **9.** | Irubide | 13 | 16 |
| **10.** | Hamaika Jintxi | 10 | 16 |
| **11.** | Latinos.com | 9 | 6 |
| **12.** | Deportivo Oriente | 0 | 16 |

> MENDIA

### Pol-Poleko beteranoek hasi dute denboraldia

Domekan egin zuten Pol-Poleko beteranoek denboraldiko lehen irteera. Kantabria eta Bizkai arteko zeharkaldian 48 lagunek hartu zuten parte. Hurrengo irteera apirilaren 13an egingo dute, Sodupe eta Eretze aldera.

> KARATEA

### Gipuzkoako Karate Txapelketa domekan Labegaraietan

Domekan, martxoaren 9an, infantil eta gazte mailako Gipuzkoako Karate Txapelketa jokatuko da Labegaraietan, 10:00etan hasita. Aurreko aste bukaeran, Donostian, Shotokan taldeko Haizera Iñarra txapelduna izan zen infantil mailan eta Jon Urkia eta Egoi Gartzia hirugarren geratu ziren infantil mailan (katetan hirurak). Kumitean, Jon Urkia bigarrena izan zen; Haizea Iñarra bigarren sailkatu zen eta Uxue Azpiazu eta Jone Agirrezabal hirugarren tokian sailkatu ziren.

AZPEITXI
Jatetxea
Aranerreka 13 behea. Bergara
943 76 55 00

CAMACHO
Drogeria
Usaindegia
Bidekurutzeta 24
BERGARA
943 76 13 35

GURIA
Taberna
Bidekurutzeta 5
BERGARA
943 76 20 34

Mujika
gozotegia
Bizkotxoak
Erreilenoak
Tostoiak
Artekalea 3 BERGARA
943 76 10 34

bergararrak kanpoan

**Maite Maiztegi** > Gaztelaniazko klaseak ematen ditu Bonn-en bizi da

# "Hasieran kosta egin zitzaidan Bonn-eko bizitzara moldatzea"

JASONE ZABALA > BERGARA

**Maite Maiztegik, Salamancan Filologia Alemana hasi zen ikasten 2003. urtean. Hiru urteren ostean, Erasmus bekarekin azken urtea egitera Berlinera joan zen 2005. urtean, batez ere alemanera hobetzeko asmoz. Hizkuntza ikasteko denbora gutxi izan zuela eta, 2006. urtean Bonn-era joan zen alemanera hobetzeko asmoz, eta irakasle lanetan dabil bertan.**

Maite Maiztegik Bonn-eko unibertsitatean ematen ditu klaseak. Filologia hispanikoa ikasten dabiltzanentzat gaztelaniazko klaseak ematen ditu: gramatika, itzulpengintza, elkarrizketa saioak... Gustuko du irakasle lana, eta gainera bide batez alemanera ikasteko balio dio. Bonn herria gustuko du Maiztegik, nahiz eta berak dioen moduan: "1991. urtean Gobernu Federal guztia Berlinera aldatu zenean, Bonn bizitza handirik gabe gelditu zen. Ordutik, gobernuak 1.700 milioi euro inbertitu ditu Bonn-en galdutako bizitza hori berreskuratzeko, eta 30 kilometrora dagoen Kolonia bezalako hiriburu batekin alderatu ezin badaiteke ere, ondo dago". Kulturalki Bonn herria Berlinekin alderatu ezin badaiteke ere, Maiztegiri bertan bizitza errazagoa egiten zaio, "bizikletarekin erraz molda daiteke eta sarritan jende ezagunarekin egiten dut topo kalean", dio Maiztegik.

**"Bizikletarekin errez moldatu daiteke Bonn-en, eta sarritan jende ezagunarekin egiten dut topo kalean"**



Maite Maiztegi.

**EUSKAL HERRIAREN ANTZA**

Beste pertsona batzuek non dauden ikusita, Bonn ez dago Bergaratik hain urruti Maite Maiztegirentzat.

Negua nahiko gogorra denez, asteburuko plan asko etxean egiten ditu Maiztegik, bai lagunekin edo baita pisukideekin ere, eta horregatik, "hasieran kosta egin zitzaidan Bonneko bizitzara eta ohituretara moldatzea", dio bergararrak.

Izaera aldetik ere aldeak nabari ditu Maite Maiztegik: "Adibide bat jartzearren, klaseak ematera noanean, dena ondo gertatuta joan behar naiz, den dena galdetzen dute eta, beti zerbait esateko prest".

Amaitzeko esan, Bonn inguruan Aratuste astea dela urteko garrantzitsuena.

bere ustez



Jon Suinaga

## Burutazioak, telezaborra eta martiztarrak

Zurrumurru bat bueltaka dabil sarean; gizateria ergeltzeko konplot mundial bat dagoela. Esamesak izango dira bakarrik, baina egia izango balitz, egileak ze ondo egiten dabiltzala aitortu beharko zen.

Telebista gizakiak lelotzeko konplotaren arma nagusiena izango zen. Kutxa leloaren programen kalitatea eta saio arrakastatsu gehienak gizonemakumeen adimenerako irain bat dira. Adibidez, prentsa arrosako programak, telesail espainiar gehienak, reality-showak edo Tele5-ko *Senar-emazteko agerraldiak* ikustea eta zerebroa kaltetua ez izatea ezinezkoa da. Politiko eta gobernariak estralurtarrak ematen dutela konplotaren teoria indartzen du ere. Beraien arabera hil bukaerara ezin ailegatzea ez da hipoteka altu edo soldata baxuagatik, arazoa da kafea hartzerakoan eskupeko handia ematen dugulako. Haien ustez ekosistemaren degradazioa tontokeri bat da, *El señor de los Hilillos*-ren lehengusua hala esaten duelako. Gure artean, Lehendakariak konfliktoa konponduko duela uste du; inozoa, erregeak gurasoak direla ere ez du jakingo oraindik. Baina beno, bakarrik zurrumurru bat da… ezta?

**"Telebista gizakiak lelotzeko konplotaren arma nagusiena izango zen"**

hau be badaukogu

## Irteera ornitologikoa Salburuara

Otsailaren 10ean, Mendia Bizirik eta Pol-Pol mendizale taldeak antolatuta, Salburuako (Araba) gune berdera joan ziren 15 bat lagunez osatutako taldea. Autobusa goizean goiz hartu zuten eta Araba aldera joan ziren. Bertan, Rosa Lasagabaster biologo bergarararrak gidatuta, guneari buruzko hainbat datu eta zehaztasun jaso zituzten. Horrekin batera, zenbait hegazti ikusi eta ezagutzeko aukera ere izan zuen taldeak, horrelako guneetan animali aniztasun handia eta aberatsa egoten baita. Giro bikaina izan zuten egun guztian zehar eta oso ondo pasa zuten.



POL-POL MENDIZALE TALDEA

GOIERRI
AUTO GIDARIEN ESKOLA
Edozein eratako gidabaimenak atera ditzakezu
Fraiskozuri plaza 5 Tel.: 943 76 41 50 BERGARA

BEHEKO TABERNA
Menestra eta untxia dira gure berezitasunak
ANGIOZAR
Tel.: 943 76 55 74

Jose M. Martin
pinturak - paper pintatuak
sintasola - moketak - gotelea
pintura industriala
Errekalde auzoa 5, 1.a
ANTZUOLA
Tel.: 943 76 62 02 / 666 517 295

PINTXOAK eta OGITARTEKOAK SEKULAKO MARTXA!!
EUXEBIO II
Irala z/g
Bergara
943 76 07 92

Aretxabaleta eta Eskoriatzako taberna eta jatetxeen gida

# hemen bada giro!




























hemen bada giro!




hemen bada giro!

**MERKATARITZA** > SUSPERTZEKO AHALEGINA

# Merkataritza suspertzeko asmotan puzgarriak jarriko dituzte hilero

*Jendea non, giroa han. Aretxabaleta bizirik* leloa jarri diote merkataritza suspertu eta herriko giroa biziberritzeko kanpainari



**PUZGARRIAK** Aretxabaletako umeak puzgarrietan jolasean. M.A.

**MIRARI ALTUBE** > ARETXABALETA

Herriko merkataritza suspertu gura du Udalak, eta horretarako lehen pausoak ematen hasi da: hileko zapatu baten puzgarriak egongo dira umeendako. Bihar, hain zuzen, jarriko dituzte Gipuzkoa plazan, 11:00etatik 13:00etara bitartean.

**PUZGARRIAK HILEAN BEHIN**

Udaleko Merkataritza Sailak, herriko merkatarien elkarte Aretxartek eta Erostegik, Aretxabaletako ostalaritzarako eta komertzio txikietarako zerbitzuen zentralak, adostu dute umeendako puzgarriak jartzea. Erostegik jarriko ditu umeek jolas egiteko guneak, oraingoz hilean behin, eta sarriago izan daitekeela adierazi du Lore Martinez zinegotziak: "Urtarrilean Txapel Txin egunean jarri genituen; otsailean, 23an; eta martxoan, bihar izango da. Erabakitzeko dago hilean behin baino gehiagotan jarriko ditugun, Aretxarteren erantzunaren zain gaude".

**56.000 EURO MERKATARITZARI**

Merkataritza Saila iaz sortu zuten Udalean, eta 2008ko aurrekontuan 56.685 euro aurreikusi dituzte merkataritza eta turismoa indartzeko. "Puzgarriak antolatzearen ideia Erostegirena izan zen, aisialdia sustatu gura zuelako hark", azaldu du Martinezek, eta gaineratu du: "Udaletik erantzun genion aisialdia ahaztu barik merkataritza zela suspertu beharrekoa, eta hala, herriari bizitasuna emango geniola". Horregatik puzgarrien kokalekua aldatu egingo dute hilabete batetik bestera: "Ahal dela dendak eta ostalaritzako zerbitzuak dauden inguruneetan kokatuko ditugu, eta zapatuetan aretxabaletarrak herrian geratzea izango da helburua".

Herriko merkataritza bultzatzeko lehen pausoa eman dute, baina gehiago ematea gurako lukete. Hala ere, hurrengo pausoak zehaztu barik dituzte: "Ez da samurra zer egin asmatzea. Baina horretan gabiltza", bukatu du Merkataritza zinegotziak.

**ERRETIRATUAK** > BATZAR OROKORRA

# Batzar orokorra du Basotxok eguenean

Iazko kontuak azalduko dituzte, aurtengoak aurkeztu eta batzordea berrituko dute

**M.A.** > ARETXABALETA

Eguenean, martxoak 13, egingo du Basotxo erretiratuen elkarteak batzar orokorra. 16:30ean izango da, Basotxon bertan.

Iazko diru kontuak eta egindako ekintzen berri emango dute lehenengo, eta ondoren, 2008ko aurrekontua aurkeztuko dute. Zuzendaritza batzordeko hainbat kideri agur esatea dagokie: Martin Zaloña presidenteari, Jose Maeztu idazkariari, eta Antonio Garcia diruzainari. Eta horien ordez sartuko diren bazkideak aurkeztuko dituzte. Gainera, 2008rako kuotaren igoera eztabaidatuko dute, eta estatutuak gaur egungo arauetara egokitzeko zer egin azalduko dute.



**BATZORDEA** Zuzendaritza batzordea utziko duten hiru kideak. M.A.

> ELKARRETARATZEA

### AHTren aurkako elkarretaratzea gaur, 19:00etan

Aretxabaletako AHT gelditu! Elkarlana taldeak deituta elkarretaratzea egingo dute gaur, hilak 7, AHTren aurka. Mitarte kalean, Haizea taberna pareko aldapan izango da, 19:00etan.

Bestalde, martxoaren 14rako, egubakoitza, berbaldia antolatu du aipatutako taldeak. AHTren gaineko azken kontuen berri emango du Mila Elortzak, Bergarako Angiozar auzoko alkate eta AHT Gelditu! Elkarlana taldeko ordezkariak. Udaletxe zaharrean izango da ekitaldia, 19:00etan.



KOOP. E.
EGUZKIGRAF
inprimategia
Aretxabaletako Industrialdea F-0-4
20550 Aretxabaleta
Tfnoa: 943 791 844 - Faxa: 943 792 941
E-mail: info@eguzkigraf.com

KIROLAK

# Trialsin txapelketako proba, domekan

### Porrukotxarako baso inguruan egingo dute, 10:30ean

**M.A.** > ARETXABALETA

Domekan, hilak 9, Gipuzkoako trialsin txapelketako laugarren proba jokatuko dute gurean. Urtero legez, Porrukotxara baso inguruan jarriko dituzte trialsinlariendako zonaldeak. 10:30ean hasiko dute proba eta 13:30ak inguru arte ibiliko dira norgehiagokan. Bukatutakoan sariak banatuko dizkiete onenei. Antolatzaileek jakinarazi dute edonork parte har dezakeela domekako proban. Horretarako 10:00ak inguruan hurreratu behar da izena ematera, eta antolatzaileek bizikletak utziko dizkiete.

**BOST ARETXABALETAR**

Hainbat aretxabaletar dabiltza Gipuzkoako txapelketan norgehiagokan, eta domekan ere jardungo dute: Markel Uriarte, junior mailan; Aitor Murua, infantil mailan; Unai Zunzunegi, alebinetan eta Itziar eta Mikel Murua anai-arrebak, benjaminetan. Guztiak ere txapelketa polita egiten dabiltza, eta domekan ez dute hutsik egin gurako.

Horiez gain munduko txapeldun izandako trialsinlariak elkartuko dira Aretxabaletan: Iker Lezeta donostiarra eta Diego Barrio gasteiztarra, esaterako.

Gipuzkoako txapelketa martxoaren 30ean bukatuko da, Urretxun egingo duten proba jokatu ostean. Orduan erabakiko da zein postutan geratu diren sailkapenean.

> XAKEA

## Denboraldiko azken partida dauka bihar Arlutz xake taldeak

Bihar, martxoak 8, jokatuko dute denboraldiko azken partida Euskadiko txapelketa jokatzen dabiltzan xake taldeek. Sestaon elkartuko dira ohorezko mailako eta lehenengo mailako talde guztiak.

Arlutz xake taldeak (9.) galdu egin zuen joan zen asteko partida Sestaoren aurka (4-0), eta ezustekorik gertatzen ez bada behintzat ezingo dio mailari eutsi. Azken partida Abadiñoren aurka dauka (10.), eta irabazteko itxaropenarekin doaz. Mailaz jaitsita ere hurrengo denboraldian berriro igotzeko asmoa daukate aretxabaletarrek.

**HEZKUNTZA** > ARIZMENDI IKASTOLA

# Identitatea landu dute 'Xamar' idazlearekin

**MIRARI ALTUBE** > ARETXABALETA

Identitatea lantzen jardun dute Arizmendi ikastolan azken asteotan, eta Juan Carlos Etxegoien *Xamar* irakasle eta idazlea izan dute ikastaroaren gidari. *Orekan*, *Orhipean* eta *Euskara jendea* liburuen egilea da *Xamar*.

**EUSKAL KULTURA EZAGUTZEN**

Identitatea eraikitzen laguntzeko egitasmoa du abian Arizmendi ikastolak. Zeregin honetan ezinbestekoa ikusi dute Arizmendi osatzen duten guztiek –gurasoak, ikasleak eta langileak– euskal kulturaren oinarrizko ezagutza eta ikuspegia izatea. Kudeatzaileak, proiektuetako arduradunak, orientatzaileak eta arloko buruak elkartu dira *Xamar* idazlearekin, eta gai asko landu dituzte: erriituak, ahozko kultura, mitologia, urtearen aroak eta festak… ". Aurrera begira, gainera, ildo honetatik jarraituko dugu lanean", adierazi dute ikastolako arduradunek.



**LANEAN** Arizmendiko hainbat arduradun *Xamar* idazlearekin lanean. ARIZMENDI




ODILO VAZQUEZ

## Karatekak bikain Donostiako txapelketan

Donostiako eskola arteko karate txapelketa jokatu zuten joan zen domekan, eta Ekaitz Irusta aretxabaletarrak bigarren postua eskuratu zuen 60 kilotik gorako Kumite estiloan. Ekaitzekin batera norgehiagokan jardun zuten: Gorka Gonzalo, Oxel Vazquez eta Iker Hervas.

> IKASTAROA

## Apirilean egingo duten makrobiotikaren gaineko ikastarorako izenemate epea zabalik dago

Makrobiotikaren gaineko oinarrizko ikastaroa egingo dute apirileko egubakoitzetan, 19:00etatik 22:00etara, Kurtzebarri eskolan. Donostiako makrobiotika jatetxeko sukaldari Gorka Gereñok egingo du. Izena Loramendi EEn eman behar da 100 euro ordainduta.

Mobiliario ARENAZA
• ALTZARIAK
• DISEINUA
• APAINKETA
Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

Zenbaki
Aholkulariak
TÜV EMPRESA CERTIFICADA ISO 9001:2000
• Juridikoa:
- Zibila: Banantzeak, Dibortzioak, Herentziak, ....
- Penala: Hutsegite epaiketak, Salaketak, Zirkulazio istripuak, ...
- Administratiboa: Zigortzaile txostenak, Errekurtsoak, ...
- Merkantila: Kontratuak, Sozietateen eratzeak, …
•Laborala: Ezintasuna, Erretiroa, Erreklamazioak, …
•Fiskala: Etxebizitzen salerosketak, Enpresen balorazioak, Bideragarritasun-Txostenak,...
•Kontalibilitatea: Pertsona fisiko eta juridikoak, ...
Basabe poligonoa F-O-10, 1. ARETXABALETA. Tel.: 943 71 21 12 • www.zenbaki.es

TXILARRA belar denda
Zure itxura mantentzeaz arduratzen gara.
Ez dugu *mirari*-dietarik erabiltzen, zure osasunari kalterik ez egiteko eta pisua kentzea osasuntsua eta naturala izateko
Pisua zaintzeko metodo orekatu eta pertsonala ziurtatzen dugu.
Aurkituko gaituzu:
TXILARRAn
Durana 35 behea • ARETXABALETA
☎ 943 79 10 15
Pisua eta bolumena soberan badituzu…
NOVA LINE
falta zaizu
Pisuaren kontrolean arrakasta ziurtatuta duzu!

NOVA diet



**KIROLDEGIA** Argazkian dauden plaza itxiak dira adminstrazio-erregimenean emango direnak. MIREIA BUKUÑA

**APARKALEKUAK** > DEIALDIA

# Zubikoako aparkaleku itxietarako deialdi berria

Lehenengo deialdian eman barik geratu ziren zortzi aparkalekuak 50 urterako utziko ditu Udalak, administrazio-erregimenean

**MIREIA BIKUÑA** > OÑATI

Oñatiko Udalak deialdi berria egin du kiroldegiko sotoan dituen zortzi garaje itxiak emateko. Pasa den asteko osoko bilkuran baldintzak onartu zituzten. Deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoren zabalduko da eskaerak aurkezteko epea.

Kiroldegiko aparkalekuak herri jabetzako lurretan jasotako eraikinak direnez, ezin dira saldu; hortaz, Udalak, 50 urterako, administrazio-erregimenean utziko ditu. Epe hori beteta, garajeak Udalaren eskura itzuliko dira. Dena dela, erabiltzaileak Udalarekin duen kontratua edozein momentutan eten daiteke. Hala bada, Udalak erabilpen urteen arabera kalkulatutako kalte-ordaina itzuliko dio.

**BI TAMAINAKO GARAJEAK**

Lehenengo deialdian eman barik geratu ziren zortzi garajeak bi tamainakoak dira: 30 metro koadroko bost garaje, eta 23 metro koadroko hiru. Gainera, aparkaleku bakoitzak duen azaleraren arabera, erabilera eskubidearen truke ordaindu beharreko kanona ezberdina da: 27.500 euro, handienen kasuan, eta 21.500 euro, txikienean kasuan. Kanon horiei BEZa gehiatu behar zaie.

**BI BALDINTZA BETE BEHAR DIRA**

Zozketan parte hartu ahal izateko bi baldintza bete behar dira: Oñatin erroldatuta egotea edo enpresaren egoitza soziala Oñatin alta emanda egotea, eta turismo baten jabe izatea. Gainera, zozketan parte hartzeko, 2.700 euroko behin-behineko bermea ordaindu beharko da.

Garajeen esleipena egiteko zozketa egingo dute jasotako eskaera guztiekin.

**ERRETIRATUAK** > IKASTAROA

## Argazkigintza digitalari buruzko beste ikastaro bat antolatu du Pake Leku elkarteak

Gorka Salmeronek emango duen ikastaroa martxoaren 31n hasiko da eta 30 ordukoa izango da, astean bi egunez

**M.B.** > OÑATI

Urtarrilean egindako argazkigintza digital ikastaroak izandako arrakasta ikusirik –16 lagunek egin zuten–, Pake Leku erretiratuen elkarteak ikastaro berria egitea erabaki du. Urtarrilaren 31n hasiko den ikastaroaren irakaslea Gorka Salmeron legazpiarra izango da. Astean bi egunetan izango da, astelehenetan eta martitzenetan, hain justu ere, 16:30etik 18:30era.

Teoria erretiratuen elkartean bertan landuko dute, eta besteak beste, argazkigintzako hitz en esanahiak azalduko ditu Gorka Salmeronek, "hasierako klaseak nahiko astunak dira, hitz berri asko erabili behar direlako: diafragma, obturadorea...; hain zuzen, argazki onak egiteko kontutan hartu beharreko kontzeptuak dira. Baina erretiratuek ikasteko gogo handia dutela erakutsi didate".

**ESKOLA PRAKTIKOAK, GAZTELEKUAN**

Bestalde, ikastaroko eskola praktikoak gaztelekuko informatika gelan egingo dituzte. "Argazkiak deskargatzen irakatsiko diet, besteak beste", azaldu du Salmeronek.

**BERTSOLARITZA** > TXAPELKETA

## Bertsolari txapelketako bigarren kanporaketa bihar

Final handia, martxoaren 29an jokatuko da Arrano elkartean

**M.B.** > OÑATI

Oñatiko Bertsolari Txapelketako bigarren kanporaketa bihar, zapatua, jokatuko da Pako tabernan, 18:00etan. Joseba Igartua, Xabier Paskual, Julen Romaratezabala, Mikel Kortabarria, Gorka Larrea eta Iñaki Olalde ibiliko dira, nor baino nor.

Gai-jartzaile Mirari Sagarzazuren aginduetara hainbat lan egin beharko dituzte; hain zuzen, gaia emanda zortziko nagusian eta zortziko txikian; lau oinak emanda eta bi punturi erantzunda beste hiru saio egingo dituzte, eta kartzelako gaiarekin beste saio bat.

Bigarren kanporaketako bi bertsolari onenek finalerako txartel zuzena lortuko dute.

Dagoeneko, Joseba Lasagabasterrek eta Ander Lizarraldek lortu dute finalerako txartela, martxoaren 1ean jokatutako kanporaketan onenak izan ziren-eta. Haiekin batera lehiatu ziren, Andoni Goitia, Egoitz Aizpuru, Urko Egaña eta Josu Igartua, iazko txapelduna.Pako taberna lepo bete zen txapelketa ikusteko.

**HIRUGARRENA, HILAREN 15EAN**

Bertso Eskolak antolatutako txapelketako hirugarren kanporaketa, martxoaren 15en jokatuko da. Arantzazu Sagarzazuk, Egoitz Atxagak, Endika Ruizek, Iñaki Igartuak eta Beñat Alberdik kantatuko dituzte bertsoak Mirari Sagarzazuk jarritako gaiei erantzunez. Hirugarren kanporaketako bi onenak finalerako sailkatuko dira.

**FINALA, MARTXOAREN 29AN**

Bertsolari Txapelketako finala, Aste Santuko oporrak bukatu ondoren jokatuko da: martxoaren 29an. Hiru kanporaketetako sei bertsolari onenak lehiatuko dira. Txapelketako kanporaketak Pako tabernan jokatu diren arren, final handia, Arrano elkartean izango da.

Bertsolari Txapelketa, Bertso Eskolaren 25. urteurreneko ospakizun ekitaldien barruan dago.



**PAKO TABERNA** Argazkian, lehen kanporaketako une bat. EGOITZ AIZPURU

> AFARIA

### Afari solidarioa egingo du Pastoral Barrutiko Misio taldeak, gaur, 20:30ean, Bidaurretan

Patata tortilla letxugarekin da Bidaurretako fraideen lokalean, 20:30ean egingo den afari solidarioko menua. Ondoren, Donostiako Elizbarrutiko Misio taldeko kide Leire Atxegarekin datozen Angolako hiru lagunen hitzaldia egongo da. Era berean, Misio Taldeak, 2008. urterako duen proiektuaren nondik norakok azalduko ditu.



SKATE-ZALEAK Argazkian, herrian skatean ibiltzen diren eta Udalari eskaera egin zioten gazteetako batzuk. IKER BARANDIARAN

**AISIALDIA** > SKATE-GUNEA

# Skate-gunea egin gura du Udalak, aspaldiko eskaerari erantzuteko

Udalak diru partida bat bereiztu du aurrekontuetan, skate-gunea egiteko, eta laster batzartuko dira gazteak eta Udala, gunea definitzeko

**IKER BARANDIARAN** > ESKORIATZA

Aspaldikoa da herrian skatea egiteko gune baten eskaera. Aurreko udal gobernuek ere gaia esku artean izan zuten, eta 2008rako udal aurrekontuetan 10.500 euroko partida bat onartu berri dute horretarako.

Udaleko Kultura zinegotzi Edorta Barandiaranek jakinarazi digunez, horrelako gune bat egiteko eskaera formala aurreko agintaldian heldu zen Udalera, baina une hartan ez zuten horretarako partidarik onartu.

**GAZTEEKIN BATZAR BAT**

Ezer eraikitzen edo erosten hasi aurretik, Udalaren asmoa da eskaera egin zuten gazteekin elkartu eta zelako gunea behar duten jakitea: "Lehenik eta behin, euren premia zehatzak zeintzuk diren jakin gura dugu. Eta horrela, zer ekipamendu lortu behar ditugun zehaztu", azaldu zigun Edorta Barandiaranek.

Herrian skatean ibiltzeko zaletasuna daukaten gazte nahikotxo daude, nahiz eta elkarterik eratuta ez izan. Gazte horietako gehienek 13 eta 20 urte bitarteko adina dute, eta bi urtetik gora daramatzate zaletasun horrekin gozatzen.

Bai Udalak eta bai gazteek jakinarazi digute laster elkarrekin batzarra egingo dutela, ekipamendu horren nondik norakoak zehazteko.

Aipatutako gazteak skatea egiten hasi zirenetik Luis Ezeiza eskolako patioan aritzen dira ahal duten guztietan, gauez zein egunez.

Baina, azaldu digutenez, patio horretan skateaz gozatzeko oso elementu gutxi dituzte: "Espaloiko ertzak (bordilloak) besterik ez ditugu, eta hori ez da nahikoa".

Arrazoi horregatik, askotan Eskoriatzatik kanpo jo behar izaten dute: Arrasatera, Eibarrera eta, batez ere, Bergarara.

**GOIKO GELTOKIAREN INGURUAN**

Udala aztertzen dabil gunea goiko tren geltoki zaharraren inguruan jartzea. Hala, leku lasaia aukeratu gura izan dute, egunez zein gauez bizilagunei kalterik ez egiteko. Horrekin lotuta, Udalaren asmoa da Aldundiak Sorautzetik Aingeru Guardara egingo duen bide-gorri tramuaren bukaeran skate-gunea kokatzea. Gazteek, berriz, esan digute modulutan banatutako eta estalitako gunea gurako luketela.







> BERDINTASUNA

## Generoen papera aztertzeko kafe tertulia egingo dute

Martitzenean, hilaren 11n, *Gizonak eta emakumeak: aldatzeko elkarren beharra ote dugu?* izeneko kafe tertulia egingo dute, 18:30ean, Ibarraundi museoan.

Udaleko Prebentzio Sailak antolatu du, Emakumeen Nazioarteko Egunaren ekitaldien barruan; eta gidaria Ana Larrieta psikologoa izango da.

Larrietak azaldu digu tertulian emakumeen eta gizonen, bien esku-hartzea ezinbestekoa izango dela, bi generoen gaineko kontzeptuak berrikusi gura dituztelako. Horregatik, gizonezkoei gonbidapen berezia egiten diete. Tertuliaren helburua da berdintasunaren alde egitea.

> UDAL BATZORDEAK

## Ander Agiriano da Kiroletako zinegotzi berria

Joan den asteko ohiko osoko bilkuran, Pedro Lasagabaster alkateak Ander Agiriano izendatu zuen Kiroletako azpibatzordeko zinegotzi.

Azaroan Juan Carlos Bengoa alkate ohi eta Kiroletako zinegotziak dimititu zuenetik, kirolen ardura ez du beste inork hartu: "EAkoek beste norbait izendatzeko zain egon gara, baina azkenean ordezko bat aurkitu behar izan dugu", azaldu digute udal gobernutik.

"Kiroletako gaiak pilatzen hasiak ziren, eta komeni zen norbaitek heltzea, guztiak eguneratu ahal izateko", azaldu zigun Turismo eta Merkataritza azpibatzordeetako zinegotzi ere baden Ander Agirianok berak.

> IKASTAROAK

## Erreflexologiaren gaineko ikastaroa egingo dute

Apirilaren 3tik ekainaren 12ra bitartean erreflexologiaren gaineko ikastaroa egingo dute, eguenetan, kultura etxean. 18:00etatik 20:00etara bitartean emango dituzte eskolok.

Interesatuek kultura etxera jo beharko dute eta 20 euro ordaindu. Izena emateko azkeneko eguna martxoaren 18a izango da.

Erreflexologia da gorputzaren desorekak sendatzen dituen teknika bat. Hori lortzeko, hanka eta eskuetako erreflexu-puntuetan oinarritzen dira. Ikastaroan teknikaren beharrezko ezagutzak jasoko dituzte, eta erreflexuak interpretatuko dituzte.



**ERABILERA HANDIKOA** Olaeta auzoan dagoen estali bako frontoia gazte askok erabiltzen dute. IKER BARANDIARAN

**AZPIEGITURAK** > KIROL ZERBITZUAK

# Olaetako frontoia estali edo ez aztertuko dute

## Auzoko gazteek inguruan bizi diren auzotar askoren sinadurak batu zituzten, Udalak pilotalekua eta ingurua hobe zitzan

**IKER BARANDIARAN** > ESKORIATZA

Olaeta plazan kokatuta dagoen pilotalekua estaltzea aztertzen dabil Udala. Horretarako, hainbat alternatiba berrikusten dabiltza.

Kontu hori iaztik dator. Hain zuzen ere, joan den urtean auzoko hainbat gazte etxerik etxe joan ziren helduen sinadurak batzera, eta horiek guztiak (100etik gora) udaletxera eraman zituzten. Gazteen helburua zen auzoan duten pilotalekua estaltzea, sarea gorago jartzea eta frontoiaren ondoan saskibaloirako saskiak jartzea. Udal hauteskundeen aurretik Juan Carlos Bengoa orduko alkatearekin batzartu ziren, eta Udala lanean jarri zen.

**AUZOTARREN ESKAERA**

Irailean, saskibaloian jokatzeko bi saski jarri eta frontoiko sarea igo zuten, baina oraindik pilotalekua noiz estali zain daude.

"Auzotar askok eta Unibertsitateko ikasleek ere erabiltzen dugu frontoia frontenisean, palan, futbolean edota esku-pilotan jokatzeko. Auzoaren eskaera da hori", azaldu ziguten frontenisean harrapatu genituen gazte batzuek. Eta gaineratu zuten argien gaineko kexa ere badutela: "00:00ak arte ez dituzte pizten, eta guri komeni zaigu ilundu ahala argiak jartzea".

**KIROL PROIEKTU GEHIAGO**

Horrekin batera, Udala aztertzen dabil udal pilotalekua berritzea, boulder aretoa egitea, Luis Ezeizako kantxa berritzea eta kiroldegia konpontzea.

**ELKARTASUNA** > SAHARAR HERRIAREN ALDEKO JAIA

# Saharar herriaren aldeko jaiaren balorazio ona

## Eskoriatzakoa EAE mailako Sahararen aldeko elkarteek antolatu zuten

**I.B.** > ESKORIATZA

Saharar herriaren aldeko jaia antolatu zuen Otsailak 27 Koordinadorak jakinarazi du oso pozik daudela ekitaldiek izan zuten jarraipenarekin.

Goizean herriko plaza jendez beteta egon zen. Zaki magoaren laguntzaileek zirku-tailerra egin zuten, eta esku-hartzea ikaragarria izan zen.

Argazki erakusketa ere oso ikusia izan zen. Tindufeko kanpamenduko eta Sahara mendebaldeko gaur egungo argazki erreal eta gordinak jarri zituzten ikusgai, kanpamentuetan bizi duten egoera erakusteko asmoarekin.

**EKITALDI POLITIKOA**

Eguerdian, Pedro Lasagabaster alkateak, EAEko Fronte Polisarioko ordezkari Mohamed El Mamun-ek eta Otsailak 27 Koordinadorako ordezkari Olaia Sagredok Sahararen egoeraren gaineko ekitaldia egin zuten. Egoera azaldu zuten, eta konponbidea bilatzeko herritarren esku-hartzea eskatu zuten.

Horren ostean, bazkaria egin zuten, eta baliatu zuten EAEko Fronte Polisarioko orain arteko ordezkariari omenaldia egiteko, Valentziara doalako. Mamun Galiziatik datorren Fronte Polisarioko Matmak ordezkatuko du.





**HERRI BAZKARIA** Bazkarian, elkarteetako kideak eta sahararrak. GOIENKARIA

**EKITALDIAK** > BERTSO AFARIA

# Presoen aldeko bigarren bertso afaria egingo dute gaur, egubakoitza, Egokiena elkartean

## Txartelak salgai daude 15 eurotan Inkernu eta Aldatz tabernetan, eta 50 lagunendako jana emango dute antolatzaileek

**I.B.** > ESKORIATZA

Aurten, bigarren aldiz, presoen aldeko bertso afaria egingo dute herrian. Gaur, egubakoitza, egingo dute, Egokiena elkartean, 21:30ean. Elgetako Ainhoa Agirreazaldegi eta Villabonako Amaia Agirre izango dira afarian. Interesatuek Inkernu eta Aldatz tabernetan eskuratu ahal izango dituzte txartelak, 15 eurotan. 50 lagunendako lekua egongo da.

Joan den urtean ere presoen aldeko bertso afaria egin zuten. Orduan, Xabier Silveira, Ainhoa Agirreazaldegi eta Iñigo Manzisidor *Mantxi*-k jardun zuten, eta giroa paregabea izan zen.



MIRENTXU
TABERNA
*Kafe goxoa hartzeko*
Tel.: 943 71 41 67

**bere ustez**


Antonio Deogracias

## Adiskidetasuna eta laguntasuna

Beste behin ere gaztaroko abestien bilduma egiten aritu naiz. CDan gorde, titulua jarri eta autora jaitsi dut; egun batzuetan behin eta berriz entzungo dut, ziur! Ia guztiak amodio kantak dira; maitasuna beti zurekin zihoan urte haietako kantak. Gero, urteak pasa ahala, gure bihotza jada ez dela hain erraz maitemintzen ohartu naiz. Denboraren poderioz, eta nola jakin gabe, desamodioz bete dugu bihotza. Ez dut ezer berririk esango, baina egunetik egunera

**"Agian, zoro samarra naiz; igarotako sasoi bateko azken erromantikoa-edo"**

urrunago bizi gara bata bestearengandik; auzokideen artean ere ez dugu garai bateko hartu-emanik.

Gure bizitzak tristuraz eta bakardadez bete ditugu, askotan arazo ez direnekin obsesionatzeraino. Gorpu ibiltariak dirudigu; triste, ilusio bakoak. Behin etxean tokadiskoa piztu eta garai batera bueltarazten nauten kantak jartzen ditut; ordu batzuetan zoriontsu naiz. Baina atzera kalean, eguneroko-tasun krudelaz ohartzen naiz. Ez dut inondik lagun izango zaidan adiskidetasunik sumatzen; gaztetan benetakoa zirudien adiskidetasunaren arrastorik ere ez. Agian, zoro samarra naiz: igarotako sasoi bateko azken erromantikoa-edo.

**AZPIEGITURAK** > AHT

# AHTren aurkako panel informatiboa kalean ikusgai

Antzuolako AHTren aurkako taldeak ipiniko du panel informatiboa

AHTk, besteak beste, Goizper aldea, Antigua, Errekalde eta Basalde auzoetan eragingo du


**AHT PROIEKTUA ANTZUOLATIK** Irudian, Antzuolatik nondik nora pasako den AHT. ANTZUOLAKO AHT-AREN AURKAKO TALDEA

**J.Z./I.A** > ANTZUOLA

Antzuolako AHTren aurkako taldeak panel baten bitartez jakinarazi die herritarrei Abiadura Handiko Trenak herrian zein eragin izango dituen. Kalteak orokorrean Euskal Herri guztiari egingo dizkio proiektu horrek, baita Antzuolari ere.

**HERRIARI KALTEAK**

Fernando Iturbe AHTaren aurkako kidearen esanetan "AHTk zarata ikaragarria ateratzen du, eta Goizper aldea, Antigua, Errekalde eta Basalde auzoak osasunarentzat kaltegarria den zarata jasan beharko dute. Proiektu horrek Basalde auzoa desitxuratu egingo luke AHT aldenik alden pasako delako eta Aitzabasalde baserria, San Blas ermita eta Erautza baserria suntsitu egingo lituzke". Iturbek zera adierazi zuen: "Kontuan hartu behar da, Aitzabasalde eta San Blas ermitaren artean 100 metroko distantzia besterik ez dagoela, hemendik zubi bat pasatuko da, eta Goizper lantegitik 50 metro baino gutxiagora beste bat". Iturberen arabera, beste kalte bat proiektu hori egiteko erabiliko den materialak sortuko duen zaborra izango da. Horregatik guztiagatik, haren ustez, AHT beharrezkoa den edo ez ikusteko eztabaida soziala egin behar da, proiektu horretarako erabiliko den dirua beste zerbaitetarako erabil daitekeelako, badaudelako, Iturberen ustez, "AHTk baino lehentasun handiagoa duten beste gai batzuk".

> DEIALDIA

### Yoga eskoletan jardun dutenendako oharra kaleratu du Udalak

Udaletik jakinarazi dutenez, yoga eskoletan jardun duten hainbat pertsonak materiala ahaztuta laga dute Olaran etxeko biltegian; mantak eta koltxonetak, hain justu ere. Hori horrela, erredakziora bidalitako oharraren bitartez Udal eko arduradunek jakinarazi nahi diete herritar horiei udaletxera joan daitezela, lehenbailehen, ahaztutako material hori batzera.

> LANA

### Kale eta udal eraikin garbitzaile lan poltsak sortzeko dei egin dute

Udaletik jakinarazi dutenez, kale garbitzaileen lan poltsa eta udal eraikin garbitzaileen lan poltsa sortzeko deialdia egin dute. Bi deialdietarako ezinbesteko baldintzak dira, beste batzuen artean, 16 urte beteta izatea eta eskolaritate-agiria izatea.

Eskabideak aurkez daitezke martxoaren 10era bitartean. Bestalde, oinarriak udaletxean jaso daitezke.

> KULTURA

### Mercedes Carrion ipuin kontalariaren saioa hilaren 14an, barikua

Mercedes Carrion ipuin kontalari ezagunak emanaldia egingo du datorren egubakoitzean, hilaren 14an, 11:00etan, herriko ikastetxean. *Los cuentos de la bruja arruguitas* izeneko umeendako ikuskizunarekin dator Carrion herrira, Oihulari Klown taldeak antolatutako ipuin zirkuituaren barruan. Ipuin kontalari peruarrak –Marilen bizi da gaur egun– ipuinak eta magia uztartuko ditu.

> KIROLA

### Asteburuan bukatuko da frontenis txapelketako ligaxka

Frontenis txapelketa aurrera doa; aste bukaeran bukatuko da ligaxka –zapatuan hiru partidu jokatuko dira eta domekan bi– eta finalaurrekora pasako diren lau bikoteak nortzuk diren jakingo da. Finalaurrekoari dagozkion partiduak egubakoitzean, hilak 14, jokatuko dira. Finala, berriz, domekan, hilaren 16an, izango da, 11:00etan. Egun horretan erabakiko dira 3. eta 4. postuak ere.

LARREA
TABERNA
Kalebarren 17
ANTZUOLA

ANTZUOLA
Apainketak eta isolamenduak
•
Pladurrezko dibisioak
Kalegoi 21 ANTZUOLA
676 997 400
Biltegia: 943 78 70 40

Tomas Gezalaga
Zoruen kutxilatu eta bernizatzea
Kalegoi 21
Tel.: eta faxa 943 76 64 07
Poltsikokoa 616 277 999
ANTZUOLA / BERGARA

GAILUR
taberna eta gozotegia

Buztinzuri 13 ANTZUOLA
Tel.: 943 78 70 32

Tomas Gezalaga
Apainketarako eta industriarako pinturak
•
Paper margotuak
•
Moketak eta tapizatuak
Kalegoi 21
Tel.: eta faxa 943 76 64 07
Poltsikokoa 616 277 999
ANTZUOLA / BERGARA



**KARABIETAN** Asteon, askotan gurutzatu ditugu elurra kentzeko makinak errepidean. L.Z.

**ELURRA** > UDALAK PROTOKOLOA MARTXAN

# Lan gutxi izan dute elurra kentzeko makinek

Neguko lehenengo elur malutak asteon ikusi ditugu herrian, baina ekaitza ez da izan, inondik ere, adituek iragarri bestekoa

**LARRAITZ ZEBERIO**> ELGETA

Martitzenerako igarrita zegoen elur, txingor eta haize ekaitzak ez du, azkenean, aparteko eraginik izan gurean. Egunotan, Eusko Jaurlaritzak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak prest izan dituzte elurra kentzeko hainbat makina. Elgeta inguruan, bi talde egon dira alerta egoeran, Kanpanzarren eta bat Karabietan. Ekaitza ez da uste bezain gogorra izan, eta lan gutxi izan dute.

**UDALAK NEURRIAK**

Udalak ere hartu zituen neurriak eta martxan ipini zuen elurraren gaineko protokoloa: "Ez du elur askorik egin eta ez da azkenean inongo arazorik sortu", adierazi du Udaletik Juan Ramon Irazabalek. "Elgetan elurrik genuen ala ez galdezka pare bat dei jaso ditugu, baina besterik ez. Kanpotik zetozen kamioi gidariek eskatu dute informazio hori". Aurrera begira, Udalak mila kilo gatz erosi ditu eta pilatuta dauzka biltegian. Behar izanez gero, gehiago erosiko dute.

**EURIA, ASPALDIKO PARTEZ**

Berandu iritsi da aurten negu giroa. Aurreko urtean urtarrilaren 23an bota zuen lehenengo elurtea. Gogoz bota zuen eta berehala zuritu ziren bazterrak. Aurten, udaberri giroa izan dugu martxora arte eta urteko lehenengo bi hilabeteetan euri gutxi egin du. Egunotako euriak mesede egin die zelai eta baratzei: "Txingor apur bat ere egin du, baina gutxi", esan digu elgetar batek. "Ortuak eskertuko du euria, aspaldiko partez".

**GAZTETXEA** > URTEURRENA

# Gaur, drogen kontsumoaren gaineko hitzaldia gaztetxean

Urteurreneko ekitaldien barruan Umeen Eguna egingo dute bihar, zapatua

**LARRAITZ ZEBERIO** > ELGETA

Elgetako gaztetxeak Udal Ongizate batzordearekin elkarlanean drogen kontsumoari buruzko hitzaldia antolatu du. Gaia ondo ezagutzen duen erizain batek egingo du hitzaldia, 22:00etan hasita.

Hitzaldian, gainera, drogen munduan eroritako hiru kideren bizipen pertsonalak bertatik bertara ezagutzeko aukera egongo da. Errehabilitatutako mutil batek bere esperientzia kontatuko du, baita errehabilitatzeko saiakeran urtebete daraman beste mutil batek ere. Bietako baten neskalagunak ere bizi izandakoaren berri emango du. Kokainaren eta anfetaminen kontsumoan murgilduta ibili diren bi mutil dira.

**UMEEN EGUNA ZAPATUAN**

Eta gaztetxearen XII. urteurreneko ospakizun ekitaldien barruan, Umeen Eguna egingo dute zapatuan. Goizez eta arratsaldez, 10:30etik 15:30era, ekintza ugari prestatu dituzte gaztetxoendako, hala nola irteera bat, jokoak, tailerrak, bazkaria eta abar.

> MARTXOAK 8

### Txokolate-jana eta herritarrek emandako argazkiekin erakusketa inauguratuko dute gaur

Elgetako emakumeak gaur, barikua, Elgetako Espaloia Kafe Antzokian egingo den txokolate-janera gonbidatuta daude. Udalak antolatutako ekintza da. Horrekin batera, herritarrek emandako argazkiekin osatutako erakusketa inauguratuko dute. Hil amaierara arte egongo da ikusgai Espaloian.

> ERAKUSKETA

### Emili Cadiñanosek erakusketa ipini du Espaloia Kafe Antzokian hil amaierara arte

Eskulanak egiten ditu Emili Cadiñanosek eta horietako batzuk ikusgai ipini ditu Espaloia Kafe Antzokian. Zeramika, beira, papera... material asko erabiltzen ditu Cadiñanosek diseinuak sortzeko. Eta erakusketa zabala ipini du Elgetan. Hil amaierara arte egongo da zabalik, ohiko ordutegian.

> PILOTA

### Gaur, 21:30ean, jokatuko dira kluben arteko euskal txapelketako finalak Udal Pilotalekuan

23 urte azpikoen txapelketako finalak jokatuko dira gaur, barikua, Elgetan. Bi norgehiagoka izango dira. Banakako finalean, Usansoloko Gilek Baztango Otxandorena izango du aurrez aurre. Binakako partidan, Azpeitiko Larrañaga eta Uztudunek Irurtzungo Idoate eta Etxeberriaren aurka jokatuko dute.

> HIRUNAKO SASKIBALOI TXAPELKETA

### Aste Santurako 8-16 urte bitarteko umeendako saskibaloi txapelketa antolatu du Udalak

Martxoaren 14an, 17an eta 18an jokatuko da txapelketa, 18:00etatik 20:00etara. Eskola Kirola batzordeak, Egokik eta Udalak antolatu dute 8-16 urte bitarteko neska-mutikoendako. Lau laguneko taldeak osatu behar dituzte eta bakoitzak hiru euro ordaindu. Izena emateko epea zabalik dago udaletxean hilaren 12ra arte.

> HELDUENDAKO ESKOLAK

### Udalak datorren ikasturtean helduendako eskolak ipini nahi ditu martxan herrian bertan

Udalak datorren ikasturtean helduendako eskolak eskaini nahi ditu: "Herritarrek herrian bertan eskolak jasotzeko aukera izan dezaten gura genuke", adierazi du Rekeba Ubera zinegotziak. Irakurketa, idazketa, ingelesa eta euskara eskolak izango dira. Gutxienez hamar lagun behar dira taldeak osatzeko. Udalak bilera deituko du laster.

## Erretiratuak karta jokoan aritu dira

Erretiratuek urteroko karta joko txapelketa egin zuten eguaztenean. Hiru ordu eta erdiko saio egin zuten Ozkarbi elkartean. Musean, tutean eta briskan aritu ziren.

Musean, Jose Luis Irazabal eta Tomas Arizmendiarrieta irten dira txapeldun. Briskan, Itziar eta Nati Arrieta ahizpak eta tutean, berriz, Patxi Arantzabal eta Juanito Irazabal.

Arratsalde pasa ederra egin zuten bertaratutako erretiratuek, lagunartean. Hurrengo txapelketa noiz etorriko zain daude orain.



ZEZILIO TOTORIKAGUENA

**KULTURA**> TXIRRITOLA ELKARTEA

# Ikuskizuna taldearen dantza eta musika emanaldia bihar

Txirritolak antolatuta, 'Geroago' antzezlana egingo dute Ikuskizuna taldekoek zapatuan

Joan den urrian, bertan behera gelditu zen emanaldia protagonista gaixotu egin zelako

**ARRITXU BARRUSO** > ARAMAIO

Txirritola Euskara Elkarteak antolatuta, Ikuskizuna taldeak *Geroago* dantza eta musika emanaldia egingo du zapatuan. Joan den urrian egin behar zuten antzezlana, baina emanaldia bertan behera gelditu zen, protagonista gaixotu egin zelako.

Ikuskizuna taldea zortzi pertsonak osatzen dute. Koreografo, musikari, dantzari eta dekoratzaileak daude tartean. Horren guztiaren gainetik, baina, lagun talde baten ametsa dela diote Ikuskizuna taldeko kideek. Ikuskizun berezia eta originala egin nahi zutela argi zeukaten, eta hori lortzeko lanean hasita, mila bider errepikatu zuten *ikuskizuna* hitza. Hortik dator, hain justu ere, taldearen izena.



**IKUSKIZUNA TALDEA** *Geroago* lana antzeztuko dute zapatuan kultura etxean. IKUSKIZUNA

**'GEROAGO'**

*Geroago* lana da Ikuskizuna taldearen lehenengo antzezlana eta hainbat gauza konbinatzen ditu: gorputzaren adierazkortasuna eta imajinazioa, besteak beste. Taldearen hitzetan, ahaztuta zeuzkaten hainbat zaletasun berreskuratu behar izan dituzte proiektu hori aurrera eramateko. Lan horrekin bizitzaren alde onak eta txarrak erakutsi nahi dituzte, azken finean bizitza hori da-eta.

Askotariko erritmoak erabiltzen dituzte antzezlanean, baina musika klasikoak protagonismo berezia dauka. Dantzak ere era guztietakoak dira, eta musika klasikoa ez ezik gaur egungo dantzak ere erabiltzen dituzte antzezlanean. Euskal folkloreak ere badu bere tokia *Geroago* antzezlanean.

**IPUIN LEHIAKETAKO SARIAK**

Datorren eguenean, martxoaren 13an, banatuko ditu Txirritola Euskara Elkarteak ipuin lehiaketako sariak. 19:00etan izango da sari banaketa, kultura etxean. Sariez gain, lehiaketan parte hartu duten guztiek diploma bana jasoko dutela jakinarazi dute Txirritolakoek.

> UDALA

## Jai batzordeak bilera egingo du herriko jaiak antolatzeko

Udaleko Jai batzordeak bilera egingo du datorren eguaztenean, martxoak 12, Aramaioko jaiak prestatzeko. Herriko elkarte eta talde kulturalei deialdia egin die batzarrera joateko. Dena dela, herritar guztiek har dezakete parte deialdian proposamenak egin eta jaietako egitaraua lantzen laguntzeko. Batzarra 19:00etan egingo dute, udaletxean.

> INDEPENDENTZIA GAUA

## Independentzia gaua antolatu du gaurko ezker abertzaleak

Ezker abertzaleko kideek independentzia gaua ospatuko dute gaur, barikua. 19:30ean triki poteoa hasiko dute. Herriko plazan egin dute hitzordua. Megafonia eta guzti ibiliko dira Aramaioko kaleetan zehar, tabernaz taberna. 21:30ean, gero, afaria egingo dute herriko elkarte batean. Bertsolari talde batek berotuko du giroa.

> BERTSO TXAPELKETA

## Manex Agirre Arabako Bertso Txapelketako finalerdian, domekan

Domekan Gopegin egingo den Arabako Bertso Txapelketaren lehenengo finalaurrekoan izango da Manex Agirre. 17:00etan hasiko da saioa Gopegiko kultura etxean. Bigarren finalerdia Aramaion egingo dute martxoaren 16an.

## Jon Agirrek 66 urte beteko ditu bihar, hilak 8

Agirreren urtebetetze eguna dela-eta, lagunak Untzillan elkartu ziren, animoak eta indarra emateko. Argazkia atera zuten eta opari gisa bidaliko diote. Jon Agirrek 27 urte beteko ditu aurten kartzelan. Espetxe askotatik pasa da urte hauetan, baina orain Langraitzen dago. Osasun arazo larriak ditu: hipertentsio arteriala, diabetesa eta miopia, besteak beste. Horregatik lagun eta senitartekoek Agirre berehala askatzeko eskatu dute.




NAIA BAILEZ

**EGURALDIA** > ELURRA

# Elurra kentzeko makinak gertu egon dira Arlabanen

Udala ez zen elurraren beldur eta ez du larrialdi planik egin; ezta gatzik banatu ere

Tontorrik garaienak bakarrik zuritu ditu astean, bai Olaun aldean, bai Goierrin




**ELURRA KENTZEKO MAKINAK** Aldundiaren makinak lanean hasteko gertu egon dira Gure Ametsa jatetxe alboan. M.A.

**MIRARI ALTUBE** > GATZAGA

Elurra iragarri zuten asterako, martitzenean 300 metroraino jaitsiko zela esan zuten eguraldi adituek. Gatzagako Udalean, ostera, ez dira beldurtu, eta ez dute larrialdi planik abiarazi, ezta gomendiorik egin ere.

**ALDUNDIAREN MAKINAK GERTU**

Negu giroa iritsi da astean. Euria, elur ura eta txingorra egin du, batez ere martitzen eta eguaztenean; gainera, haize bolada zakarrak ibili dira. Gatzagako tontorrik garaienak zuritu ditu bi egun horietan, Olaun aldean zein Goierrin, baina herrian ez da elurrik geratu.

Udal batzuek elurrari aurre egiteko gomendioak egin dituzte, eta gatza gertatu dute elurra eta izotza kentzeko. Gatzagako Udalak, ostera, ez zuen beharrezkoa ikusi halako neurririk: "Ez dut uste hainbesterako izango denik. Aurtengo negua elur barik pasatu beharko dugulakoan nago", esan zigun Eusebio Villar alkateak martitzenean.

Ikusi egin beharko da herriak zurituko diren edo ez; hala gertatuz gero, traktorea dauka Udalak gertu, eta pala jartzen dio bideak garbitzeko. Herriko kaleak eta inguruak eta baserrietara doazen bideak garbitzen dituzte udal langileek. Gainerako errepideak garbitzeaz Aldundia arduratzen da. Lanean hasteko gertu egon dira egunotan elurra kentzeko hiru makina Arlabanen.

**OSPAKIZUNA** > EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA

# Bazkaltzera joango dira 'sorginak' bihar

Urtero legez Gure Ametsa jatetxean izango da bazkaria, eta ostean isuskiak banatuko dituzte

Martxoaren 14an, egubakoitza, 'Zai beti zai' antzezlana eskainiko du Oihulari Klown taldeak



**BAZKALTZEN** Sorginak emakume elkarteko kideak bazkaltzen, iaz. GOIENKARIA

**M.A.** > GATZAGA

Sorginak emakume elkarteak Emakumeen Nazioarteko Eguna ospatuko du bihar, martxoak 8. Urtero legez, bazkaria egingo dute Gure Ametsa jatetxean. Aste guztian jaso dituzte izenak Labidea dendan.

**BAZKARIA ETA DANTZALDIA**

Herriko bertako eta baserrietako emakumeak elkartuko dira bihar, Gure Ametsan, eta giro bikaina sortuko dute. Bazkalostean, eta ohiturari jarraituz, isuskiak banatuko dizkiete elkarteko hiru emakumeri. Dagoeneko gehienek dituzte isuskiak, baina beti dago kide berriren bat, eta haiei emango dizkiete. Eta musika izango dute lagun bazkalostea girotzeko. Nekatu artean egin izan dute dantzan batzuek eta kontu kontari egon izan dira beste batzuk. Jolasak egiteko ohitura ere badute Gatzagako emakumeek, eta barreak lehertu beharrean izaten dira.

**MARTXOAREN 14AN, ANTZERKIA**

Udaleko Gizarte Zerbitzuak, ostera, antzerkia antolatu du martxoaren 14rako, egubakoitza. Oihulari Klown taldeak *Zai beti zai* antzezlana eskainiko die gatzagarrei. Hainbat emakumek jasotako heziketa afektiboaren gaineko parodia aurkeztuko dute klown pailazoek. Virginia Imaz da antzezlanaren egilea eta zuzendaria. Kultura etxean izango da, 19:00etan. Eta bukatutakoan mokadutxoa eskainiko du Sorginak emakume elkarteak, Toki Eder gastronomia elkartean.

> UDALA

## Zaborraren tasa ordaintzeko epea zabalik apirila arte

2008ko lehen seihileko zaborraren tasa ordaintzeko epea zabalik dago. Otsailaren 26ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zuten deialdia, eta apirilaren 3a arte egongo dela zabalik jakinarazi dute. Zaborrak jaso, garraiatu eta tratatzeko Udalak ezarritako zerga da ordaindu behar dutena. Zerga horri, hain zuzen, %14ko igoera ezartzea onartu zuen Udalak urrian. Halaxe egin zuten Debagoieneko gainerako herrietan ere, Sasietako Mankomunitateak garestitu egin duelako zerbitzua.

Ordainagiria helbideratu barik dutenek udaletxera jo beharko dute ordaintzera. Eta herritarren batek erreklamazioren bat edo desadostasunena aurkeztu gura badu, datorren astera arte dauka epea.

> INTERNET

## Gaur, hilak 7, egingo dute ikastaroa KZgunean

Egun bakarra daukate gatzagarrek martxoan, Interneten gaineko ikastaroren bat egiteko. Gaur izango da, hilak 7, eta Aitor Madrid arduraduna 09:00etatik 11:00etara bitartean egongo da herritarren zerbitzura.

Hainbat ikastaro eskainiko ditu. Batzuk aisialdiarekin zerikusia dutenak: mikologia ezagutzeko, aste bukaera non pasatu jakiteko, Internet bidez egunkaria irakurtzeko edo irratia entzuteko… Eta beste batzuk administrazioarekin zerikusia dutenak: sinadura elektronikoa eta osasun txartel elektronikoa zertarako diren jakiteko, justizia kontuak ezagutzeko… Guztiak 16 urtetik gorakoendako dira. Horrez gain, herritarrek dituzten zalantzak argituko ditu Madridek.

> HAUTESKUNDEAK

## 205 gatzagarrek eman dezakete botoa domekan

Espainiako Kongresu eta Senaturako hauteskundeak egingo dituzte domekan, hilak 9. Gatzagak dituen 263 biztanletik, 205 lagunek daukate botoa emateko eskubidea, eta hala egin gura duenak haur eskolan egongo den hauteskunde-mahaira joan beharko du. 09:00etatik 20:00etara egongo da zabalik, eta ondoren, botoen kontaketa egingo dute.

Beste herri batzuetan ez bezala, Gatzagara ez da alderdirik joan hauteskunde kanpaina egitera.



Ezkerretik eskumara, Asier Altuna *Txokito* (Arrasate), Andoni Sotil (Bergara), Aitor Ortueta (Arrasate) eta Eder Antia (Aretxabaleta) Formigalgo snow parkean. TXOKITO

**Andoni Sotil eta Aitor Ortueta** > Formigalgo 'freestyle' taldeko eskiatzaileak

# "Salto batean hainbat gauza hartzen ditugu kontuan, lana dago atzean"

XABIER URTZELAI> BERGARA

**Andoni Sotil (Bergara, 1984) eta Aitor Ortueta (Arrasate, 1982) artistak dira eski gainean. Baina elur gainean baino airean daudenean gozatzen dute gehien. Eski barruan, estilo librean moldatzen dira ondoen, *freestyle* deritzonean. Euren salto bat ikusita, erotuta daudela esango dute askok, eta eurek ere onartu egiten dute hori. Erotasun horren barruan, baina, zentzutasun handiz jokatzen dute.**

**Noiztik eskiatzen?**

Sotil: Txikitatik, 8 urte nituenetik. Gurasoekin joaten nintzen Jacara, eta Astunen eskiatzen nuen asko. Hango snow parkean ibiltzen nintzen, baina iaz ez zuten horrelakorik egin, eta Formigalera egin nuen.

Ortueta: Ni ere oso gazte hasi nintzen eskiatzen, oinez hastearekin batera-edo... Gurasoekin Formigalera joaten nintzen, eta hasieran eski klasikoa egiten nuen, makilak-eta gainditzen eslalomean. Baina gusturago ibiltzen nintzen saltoak-eta egiten, eta snow parkean hasi nintzen.

**Zergatik *freestyle*-a?**

Ortueta: Beti gauza ezberdinak egin gura izan ditudalako. Sekula ez naiz izan futbolean jokatzen duten horietakoa, beste kirol batzuk aukeratu izan ditut; zerbait esatearren, adrenalina handiagokoak.

**"Egia da 'freestyle'-a eroarena egitea dela, saltoak egin, barandak jaitsi... Denoi gustatzen zaiguna, ala ez?"**

**"Eski estazioetan konturatu dira jendea erakartzeko fundamentuzko snow parkea behar dutela"**

Sotil: Azkenean, egia da *freestyle*-an eskiatzen ibiltzea eroarena egitea dela: saltoak egin, barandak jaitsi... Denoi gustatzen zaigu horrela ibiltzea, ala ez? [Barre].

**Zelan iritsi zarete Formigalgo *freestyle* talderaino?**

Sotil: Talde hori aurten sortu dute, eta snow parka ere berria da. Azken batean, konturatu dira eski estazio batek erakargarria izateko fundamentuzko snow parkea behar duela, eta inbertsio handia egin dute aurten. Horrekin batera, *freestyle*-eko taldea ere sortu gura zuten, eta hori bultzatu duena Head markako komertzial bat izan da; lehenagotik ezagutzen gintuen eta hark deitu zigun taldean sartzeko proposamena egiten.

**Zer esan gura du horrelako talde baten barruan egoteak? Babesleek asko estutzen zaituztete?**

Sotil: Aurten ez digute inongo baldintzarik jarri, ezta eskaerarik egin ere. Egia da lehenengo urtea izan dela, eta eurek ere ez zekitela zer moduz irtengo zen dena.

Ortueta: Noizean behin galdetzen digute ea txapelketetan zelan ibili garen. Baina gehien arduratzen dituena da prentsan zenbatetan azaltzen zaren, euren marka ikusten ote den... Niri, adibidez, orain arte askotxo exijitu didate, babesle batzuek ordaindu egiten zidatelako. Urte amaieran denboraldiaren gaine-



*Txokito*, lanean hartutako hutsarte batean, snow parkean dagoen kaxetako batean. TXOKITO

SNOW PARKEAN LANEAN

## 'Txokito': "Polita da norberak egin duen lanarekin jendea gozatzen dabilela ikustea"

Asier Altuna *Txokito*-k eta Eder Antiak Formigalgo snow parkean egiten dute lan: "Ederrek snow parkeak egiten dituzten enpresako arduradunak ezagutzen zituen, eta hark animatu ninduen lan hau probatzera".

Oraingo egunetan bota duen elur guztiarekin, lanpetuta ibiliko dira biak: "Lan handia dugu egiteko, martitzenean 30 zentimetro elur bota zuelako. 09:00etarako parkean izaten gara. Makinak pasa ostean arrapala guztiak txukun jartzen ditugu, palak hartu eta elurra bota behar den lekura bota, barandak jarri, inguruak txukundu, publizitateko kartelak ipini, babes-sareak... Batzuetan lan gogorra da, baina parkea ondo dagoenean jendeak eskertu egiten dizu egindako lana, eta polita da jendea gozatzen dabilela ikustea". Lan egitearekin batera, baina, beti izaten dute hutsarteren bat edo beste, eta taula hartzen dute orduan.

Horrelako leku batean lanean egonda, lesioen gainean ere egin du berba: "Askok ez dute bururik, eta batek baino gehiagok min hartu du hemen, ideiarik izan barik arrapala handienetik salto egin duelako. Saltoak buru apur batekin egin behar dira, gutxika joanda".

ko txosten bat aurkezten nien, zer egin dudan eta non azaldu naizen azalduz.

**Zenbat urte daramatzazue babesleekin lanean?**

Sotil: Nik hiru urte inguru. Astunen hasi nintzen txapelketetan eta horrelakoetan parte hartzen, eta gaur arte.

Ortueta: Nik lau urte inguru daramatzat. Urtebete egin nuen Andorran lanean, eta bizpahiru urte hango eski talde barruan.

**Snowa egiteko taulak izan ziren *freestyle*-a ekarri zutenak, baina eskiak aurre hartzen ari dira, ala?**

Sotil: Bai, lehen snow parkeak taulan ibiltzen zirenendako bakarrik ziren, eta segidan, eskiak eskiatzeko modu horretara moldatzen hasi ziren. Eta nire ustez gaur egun *freestyle*-an eskiak aurre hartzen dabiltza. Kanpoan zabiltzanean gehiago igartzen da hori.

**Zer moduz doa urtea?**

Sotil: Egia esan, denboraldia beti hasten gara motibazio handiarekin, baina azken asteotan elurra oso gaizki egon da, eta snow parkea egoera txarrean dagoela ikusita, motibazio guztia joan egiten da. Orain artekoa ikusi eta gero, amai dadila aurtengo urtea, eta datorren urtean gehiago!

Ortueta: Beste urte batzuekin alderatuta, aurten oso denbora laburra izan dut eskiatzeko, asteburuetan baino ez. Eta egin duen eguraldiarekin txapelketa asko bertan behera utzi behar izan dituzte. Formigalen ibili gara aurten, etxean gaude han.

**"Lehen snow parkeak taula gainean ibiltzen zirenendako ziren; eskiak estilo horretara moldatu zituzten gero"**

**"Salto handi bat ezin da egun batetik bestera egin, poliki joan behar da, eta gauza asko kontuan hartu"**

**Nongo txapelketatan ibili zarete? Eta zer moduz?**

Ortueta: Txapelketei dagokienez, ez da izan nire urte onena. [Barre]

Sotil: Egia esan, baina, lehenengo txapelketa denboraldia hasi eta berehala egin zuten. Eta, guretako oso goiz zen.

Ortueta: Gainera, lehen Formigalen txapelketa bat antolatuz gero, inguruko jendea etortzen zen, Candanchukoak edo Astunekoak. Orain, baina, kanpotik jende asko etortzen da, Andorratik edo Sierra Nevadatik, esaterako, eta maila oso ona egoten da.

**Zelan entrenatzen zarete?**

Sotil: Denbora laburra izaten dugu guk entrenatzeko, aste bukaeretan bakarrik joaten garelako. Alde horretatik, *domingero* samarrak gara. Formigalen lehentasuna dugu guk, baina asko aste barruan ibiltzen dira entrenatzen, eta hori igarri egiten da.

Ortueta: Andorran, esaterako, selekzio bat egin dute eta egunero entrenatzen dira: ohe elastikoetan astean bi saio, egun bat patinatzen, lan fisikoa... Sekulakoa! Guk, neurri batean, *freestyle* munduan atzetik datozenendako bidea egin dugu.

**Zuen saltoak ikusita, berez gaitza dena erraz egiten duzue, dohain hori duzue.**

Sotil: Txikitatik egin izan dugun gauza bat da; ez diogu aparteko garrantzirik ematen.

**Zer dago horrelako salto baten atzean?**

Ortueta: Lan handia. Salto handi bat ez da egun batetik bestera egiten, poliki-poliki joan behar da. Gauza asko izaten ditugu kontuan: ze abiadura hartu behar dugun, arrapala zelan dagoen, zelako harrera duen eta zer egin gura dugun, besteak beste. Lesio handienak saltorik egiten ez dakiten eroek egiten dituzte, burua behar da horretarako ere.

**Zeuek izan duzue lesio larririk?**

Sotil: Nik ez. Bueno, gaztetan eskumuturra hautsi nuen baranda batean.

Ortueta: Nik bai, Alpeetan. Behe-lainoarekin *half pipe*-ean nenbidela –*U* itxurako gunea– goitik behera erori nintzen, eta saihets bat hautsi nuen. Hilabete egin nuen Grenobleko ospitale batean, ohean, geldi.

**Aurrera begira, esku artean duzuen proiekturik?**

Sotil: Hain justu ere, joan den astean hasi behar genuen bi urte barru argia ikusiko duen film bat grabatzen. Baina elurra ez zegoen behar den moduan, eta atzeratu egin behar izan dute.



Aitor Ortueta, Formigalgo arrapaletako batean saltoa egiten. TXOKITO



GOIENKARIA

## EHU Vasconia izango da Azkoagainen

Aloña Mendik (25) jaitsiera postuetatik urruntzeko kontrario zuzena du EHU Vasconia (27); domeka arratsaldean jokatuko dute (16:30) hiru puntu baino gehiago jokoan egongo den partidua, Azkoagainen.

Mondrak (39) ere etxean jokatuko du, Mojategin (zapatua, 16:30), postu bat gorago dagoen Ondarroako Aurrera (40) taldearen kontra. Mondra da sailkapeneko aurreko taldetxoko azkena –zazpigarrena–, eta bihar du aurrerapausoa egiteko aukera. Aretxabaletak (41) beste horrenbeste egin dezake Trintxerperen (42) etxean.

> ESKUBALOIA

## Barakaldora joango da Bergara zapatuan eta Portugaletera bidaia egingo du Ford Mugarrik

Euskadiko Txapelketako bi ordezkariek Bizkai aldera egingo dute bidaia bihar. Bergarak ligako talde indartsuenetako baten kantxan jokatuko du (16:30) Barakaldon, hain zuzen. Orgaizen mutilendako gaitza izango da handik punturen batekin itzultzea.

Ford Mugarrik, berriz, puntu batera dagoen Portugaleteren kontra jokatuko du (18:30). Joan den astean Lea Corazonistasen kontra Iturripen galtzeak min egin zuen; mingarria Arrasatekoendako, baina baita mahoneroendako ere. Izan ere, jaitsiera postuetan lehian, Gasteizko Lea Corazonistas Bergararen kontrario zuzena da. Mailari eusteko gehiago okertu zaizkio gauzak Bergarari.

> ESKU PILOTA

## Zabalik dago Debagoieneko lagun arteko esku pilota txapelketan izena emateko epea

Aretxabaletan egingo dute Debagoieneko lagun arteko esku pilota txapelketa, martxotik ekainera arte. Eta, dagoeneko zabalik dago izenemate epea –Aretxabaletako kirol etxean, 943 71 26 28–.

Txapelketa hori federatu barik dauden pilotazaleei zuzendu ta dago, eta bi maila bereiztuko dituzte: A mailan erdi mailako pilotariak egongo dira, federatu ohiak direnak edo maila txukuna dutenak. Pilotari horiek Pumpa pilotekin jokatuko dute. Eta B mailan egongo dira maila txikiagoko pilotariak; horiek pilota goxoekin jokatuko dute. Kirol zerbitzuetako abonatuek 10 euro ordainduko dituzte eta gainontzekoek, 15 euro.

> ESKUBALOIA

## Euskadiko Txapelketan dabilen Oñatiko senior mailako taldea animatzera joateko dei egin dute

Verkol Aloñak partidu erabakigarria jokatuko du zapatuan Leioan (20:00). Oñatikoek jaitsiera postuak atzean uzteko helburua dute; izan ere, hiru talde daude jaitsiera postuetan, eta bi norgehiagoka geratzen dira. Hain zuzen ere, Leioako taldea da jaitsiera postuetan dagoen beste taldeetako bat, oñatiarrek baino puntu bat gehiagorekin.

Hitzordu garrantzitsu horren aurrean, Oñatikoek autobusa jarri dute zapatu arratsaldean Leioara joateko, taldea animatzera. 17:45ean irtengo da autobusa, eta klubeko ordezkariek norgehiagokara joateko dei egin dute.

**IGERIKETA** > GIPUZKOAKO TXAPELKETA

# Igerilari gazte onenak Bergaran aste bukaeran

Junior eta promesa mailako Gipuzkoako Txapelketa jokatuko da aste bukaeran Agorrosinen; ibarreko 26 igerilari lehiatuko dira



**GAZTETXOAK** 13 eta 16 urte arteko gaztetxoak izango dira lehian Bergaran. ARTXIBOA

**EDU MENDIBIL** > BERGARA

Aste bukaeran junior eta promesa mailako Gipuzkoako Txapelketa jokatuko dute Bergaran, Agorrosin Kirol Gunean. Probintziako igerilaririk onenak etorriko dira Bergarara. Hauek izango dira parte hartuko duten taldeak: Bidasoa XXI, Bardulia, Oarsoaldea, Buruntzaldea, Easo, Fortuna, Atletico San Sebastian, Tolosaldea, Zarautz, Urbat (Eibar), Zubiaurre (Azkoitia), Izarraitz (Azpeitia), Legazpi, Ordizia, Andoaingo KE, Aloña Mendi eta Bergara.

Ibarreko ordezkariei dagokienez, Bergara Igeri Elkarteko hamar igerilarik hartuko dute parte proba ezberdinetan eta Aloña Mendi ordezkatuz 15 lagun etorriko dira Oñatitik. Aloñan neskak dira nagusi (12 neska eta 3 mutil) eta Bergaran aldiz mutilak (6 mutil eta 4 neska). Era berean, Bardulia selekzioan dabilen Ander Zarketa oñatiarra ere lehiatuko da aste bukaerako saioetan. Bizkar estiloan faboritoetako bat dugu Zarketa.

Zapatuko saioa 10:30ean hasiko da eta arratsaldean 17:00etan emango zaie hasiera lasterketei. Domekan, goizeko saioak amaiera emango dio txapelketari. Domeka arratsaldean igerilekua erabiltzaileendako zabalduko dute. Ez ordea, zapatuan eta domeka goizean.

**OMENALDIA SABIN GALLASTEGIRI**

Gipuzkoako Txapelketa Sabin Gallastegi zenaren omenez izango da. Bergarako Igeri Elkartearen alde lan ugari egindakoa, iaz zendu zen Sabin Gallastegi.

## aste bukaerako hitzorduak

### FUTBOLA

**Kadeteen euskal liga**
Zaramaga-Aretxabaleta
Zapatua. 18:30. Zaramaga

**Bigarren erregion. Igoera**
Aretxabaleta B-Trintxerpe B
Domeka. 16:30. Ibarra

BTLS-Union Txiki
Domeka. 15:45. Ipintza

Amaroz-Mondra B
Zapatua. 17:30. Usabal

**Bigarren erregion. Kopa**
Elgeta-Eibartarrak B
Zapatua. 15:30. Unbe

**Ohorezko mailako gazteak, igoera fasea**
Aretxabaleta-Hondarribia
Zapatua. 16:30. Ibarra

Bergara-Beasain
Zapatua. 16:15. Agorrosin

**Ohorezko mailako gazteak, kopa eta jaitsiera**
Santo Tomas Lizeoa-Aloña Mendi
Zapatua. 17:30. Berio

Mondra-Elgoibar
Zapatua. 18:30. Mojategi

**Lehen mailako gazteak**
Luberri-Aretxaba. B Arizm.
Zapatua. 12:30. Herrera

Bergara B-Amaikak Bat
Zapatua. 18:00. Ipintza

**Ohorezko mailako kadeteak, igoera fasea**
Aloña Mendi-Real Union
Zapatua. 11:00. Ibarra

Añorga-Bergara
Domeka. 12:00. Rezola

**Lehen mailako kadeteak. Igoera fasea**
Arrasate-Urola
Zapatua. 12:00. Mojategi

Aretxabaleta B-Aurrera Ondarroa
Domeka. 12:00. Ibarra

**Kadeteak, Kopa**
Ilintxa-Bergara B
Zapatua. 11:00. Bikuña

Zestoa-Arizmendi
Zapatua. 09:45. Zestoa

**Kadete Txiki. Kopa**
Eibartarrak B-Arrasate
Domeka. 17:00. Unbe

**Ohorezko mailako infantilak, txapeldunen fasea**
Bergara-Aretxab.Arizme.
Zapatua. 12:30. Ipintza

Arrasate-Urola
Domeka. 12:00. Mojategi

**Lehen mailako infantilak**
Oiartzun-Aloña Mendi
Zapatua. 10:30. Ugaldetxo

**Infantil txikien kopa**
Aretxabaleta B-Sanse B
Zapatua. 11:30. Ibarra

Arrasate B-Lagun Onak B
Zapatua. 10:00. Mojategi

**Emakumezkoen igoera**
BTLS-Vasconia
Domeka. 17:45. Ipintza

**Emakumezkoen kopa**
Zestoa-Arizmendi
Zapatua. 17:30. Zestoa

Bergara-Urola
Domeka. 12:45. Ipintza

**Emakumezkoen F11 Kadeteak, kopa**
Beti Ona-Aloña Mendi
Zapatua. 11:30. Beraun. Errenteria

**Emakumezkoen F8 Kadeteak**
Euskalduna-Bergara
Zapatua. 11:00. Allurralde

### SASKIBALOIA

**Gipuzkoako seniorrak**
Candy Bergara-Lehioak Zarautz
Zapatua. 16:00. Labegaraieta

Novamark-Aloña Mendi
Zapatua. 16:30. Ipurua

Mondragon-Donibane
Zapatua. 18:00. Iturripe

**Gipuzkoako ligako senior maila, emakumezkoak**
Eskoriatza-Ordizia
Zapatua. 18:00. Intxaurtxueta

**Junior maila, gizonezkoak**
Bergara-Take Orbela
Zapatua. 16:00. M. Lagundia

### ESKUBALOIA

**Euskadiko emakumezkoen Txap., gazte maila**
Verkol Aloña Mendi-Bus Soleto
Zapatua. 16:30. Zubikoa

**Bigarren maila territoriala**
Bergara-Groseko Cocinas
Zapatua. 18:30. Labegaraieta

Aloña Mendi-Irungo Gaztiak
Domeka. 11:45. Zubikoa

**Gazte maila, gizonezkoak**
Arrasate-Aloña Mendi
Zapatua. 17:00. Musakola

### GIMNASIA

**A mailako eskolarteko txapelketa**
Zapatuan, Ibarran, goizez eta arratsaldez. 80 bat gimnasta elkartuko dira.





**> GAZTEMANIAK KONTZERTUA**
The Woggles eta Las Membranas taldeak Oñatin **> 45**



**> ARRASATE IRRATIA**
Estreinatu duen blogaren bitartez saioak entzungai**> 51**

**> MAITE LAZKANO**
Bergararra da hura, dantzari trebea eta baita dantza irakaslea ere; futbolaria izandakoa, kirola atsegin du. Zinemazalea ere bada eta bidaiatzea du gustuko **> 50**





# Cele Otaño

## Bergarar sentitzen zen karikatura egilea, margolaria eta grabatu egilea

Cele Otaño artistaren lanak ikusgai martxoaren 7tik 30era Aroztegi aretoan

Irekieran izango dira, besteak beste: Sara Otaño margolaria, Jesus Zulet karikatura egilea...

**A. ARANBURUZABALA** > BERGARA

Cele Otaño (Bilbon 1912-Donostian 2003 baina Bergaran hilobiratua) artistaren lanak daude ikusgai gaurtik martxoaren 30era bitartean Bergarako Aroztegi aretoan. Erakusketaren helburua da hainbat bizitoki izan zuen arren bere burua bergarartzat zuen artista omentzea.

Erakusketan daude: Otañok egindako lanak –karikaturak, oliozko margoak eta grabatuak–, eta horrez gain, Nikaraguan batu zituen kolonaurreko zeramikak.

**ARTISTA POLIFAZETIKOA**

Otaño Amerikako karikatura egilerik onenetakoa izan zen; talde-karikaturak eta fikzio-karikaturak egitea zituen bereizgarri. Grabatu egile moduan ere teknika oso berritzaileak erabiltzen zituen. Eta margolanetan ere abila zen; oliozkoak egiten zituen, paisaiak zein erretratuak.

Arkeologia ikertzailea ere izan zen, Nikaraguan,eta kasualitatez, kolonaurreko zeramika batzuk aurkitu ondoren. >44

MARRAZKIA: CELE OTAÑO

# Cele Otaño

(43. orrialdetik dator)



CELE OTAÑO Venezuelako Baseball jokalari batzuei karikatura egiten ari den unea. SARA OTAÑO

Migel Angel Elkoberezibar Bergarako ikertzailea eta Sara Otaño, Celedonio Otañoren alaba, izan dira. Honela azaldu dio Elkoroberezibarrek GOIENKARIAri: "Cele Otañoren berri, Domingo de Iralari buruzko ikerketa lana egiten ari nintzela izan nuen lehenengo aldiz, Iralarena zelakoan Otañoren grabatuarekin topo egin nuenean. Hondarribian bizi den alabarekin harremanetan jarrita, artistaren obra eta bizitzaren berri eman zidan. Liluratuta, bergarar sentitzen zen artista, herrian ezezaguna zela ikusita, omenaldia prestatzen hasi ginen". Udalak hasieratik asmoarekin bat egin zuela gaineratu du Elkoroberezibarrek: "Ideia aurreko agintaldian sortu eta oraingoan gauzatu da".

**BIZITZA IBILTARIA ETA SUHARRA**

Celedonio Meliton Otaño Bilbon jaio zen 1912ko martxoaren 3an. Jaio eta gutxira, Otañotarrak Gasteiza joan ziren bizitzera. Gasteizen egin zituen lehen ikasketak, eta Xabierko barnetegira joan zen gero; handik Durangoko Jesuitetara eta Loiolara ondoren. 21 urterekin nobiziatua amaitu zuen.

Errepublika garaian, jesuitak Espainiatik bota zituztenean, Otaño Belgikara joan zen; han Filosofia eta Letrak ikasi zituen. Caracasera bidali zuten gero, eta han Giza Zientziak ikasi zituen. Hara heldu eta bi urtera, Lagundia utzi zuen; 1935.urtean Bergarara, familiaren bizitokira, etorri zen.

**BERGARAREKIN HARREMANA**

Elkoroberezibarren esanetan, Otaño Bergaran aldi batez bakarrik bizi izan bazen ere, asko dira Bergararekin zituen loturak: "Elisabeth Muxika Agirre bergarararrekin ezkondu zen eta Bergaran jaio zen alaba Sara; Celeren aitajauna ere, Jose Luis, Bergarako semea zen; Celeren anaia, Jose, Bergarako geltokiburua izan zen; Rikardo Otaño Bergaran bizi den lumatxo artista ezaguna Celeren anaia da; Fernando Azkargorta eta Simon Arrieta Bergarako margolariekin harreman handia izan zuen... Horrez gain, bizitzako azken urteak Donostian egin bazituen ere, Bergaran hilobiratu zutela kontuan izatekoa da".

**MUNDU OSOKO ABERTZALEA**

Gerra askotan egon zen nahasita, erbestean ere urteak egin zituen: "Euskalduna eta abertzalea naiz, baina mundu osoko abertzalea", zioen Otañok berak. Venezuelara alde egin behar izan zuen Eusko Jaurlaritzaren erresistentziako talde batentzako pasaporteak, bisatuak eta horrelakoak faltsutzen ibiltzeagatik.

Kartzelan ere izan zen, Espainiako gerran, baina bere dohain artistikoei esker –Lizarrako kuartel militarrean erlijio margolan bat egitearen truke–, askatasuna eman zioten.

**KARIKATURA EGILE BERRITZAILEA**

Venezuelan karikaturengatik egin zen ospetsu Otaño: "Taldekakoak egitea eta fisionomista dohainak izatea zituen bereizgarri. *Karikatura psikologikoaren* sortzailetzat jo izan dute", dio Elkoroberezibarrek.

Hainbat izan ziren Venezuelan Otañok egin zituen lanak. 1950eko hamarkadan, erredaktore eta marrazkilari moduan hasi zen lanean *La Esfera* egunkarian. Egunero politikari baten karikatura marrazten zuen. Ondoren, Tipografia Vargas enpresako zuzendari artistikoa izan zen; aldizkariak, liburuxkak eta kartelak diseinatzeko ardura zuen. "Martin Ugaldek, Otañoren lagunak, zuzentzen zuen *Elite* aldizkaria zen horietako bat. Erredaktorea eta karikatura egilea zen. Horrez gainera, beste hainbat aldizkariren sortzaile ere bai. Otañok esana da bere aldizkariak batez ere inperialismoaren aurkakoak zirela", dio Elkoroberezibarrek.

Artista autodidakta izan zen, baina askoren irakasle izandakoa gero: Sara alabarena, Rikardo anaiarena eta Iñaki Martiarena *Mattin* prentsa eta aldizkarietako karikatura egile ezagunarena, besteak beste.

**BERGARAKO AROZTEGI ARETOAN**

Atzerrian hainbat tokitan daude Otañoren lanak: Miraflores Venezuelako gobernuaren egoitzan, Caracasko Euskal Etxean... Martxoaren 30era bitartean, baina, Bergarako Aroztegi aretoan dago Otañoren lanekin egindako erakusketarik osatuena.











Cele Otañok margotutako Bergarako Zubieta kalea. SARA OTAÑO

## Artista polifazetikoa zen, oliozko margoak eta grabatuak ere egiten zituen

Hiru mediku belaunaldiko familiakoa bazen ere, txikitatik erakutsi zuen pintzel eta grabatuetarako labana erabiltzeko zuen abilezia eta zaletasuna. Margolanei dagokienez, bizi izan zen toki guztietako paisaiak margotu zituen: Euskal Herrikoak eta atzerrikoak; horrez gain, erretratuak ere egiten zituen, besteak beste: alabarenak, emaztearenak eta baita bere buruarenak ere. Bergarako pintoreekin zuen harremanaz gain, Gipuzkoako artista askoren laguna ere bazen, horien artean, Oteizarena.

Grabatu egile moduan ere nabarmendu zen Otaño, eta argazki xafletan egindako grabatuen akabera bereziak eta teknika berritzaileak erabiltzea zituen bereizgarri.

Otañoren zaletasunik handiena, baina, arkeologia izan zen; *arkeologiako igeltserotzat* zuen bere burua. Anaia Manuelekin Nikaraguan zegoela ohartu zen, osteratxo bat ematen zegoela, Nikoia indioen zeramika puskak aurkitu zituenean. Harrezkero, ikertzen hasi eta kolonaurreko arkeologian aditu bilakatu zen. Caro Barojak gomendatuta, hitzaldi ugari egin zituen, besteak beste, Alemanian. Horrez gain, Leon Croizat botanikari ospetsuaren *El oceano pacífico en la prehistoria de las américas* liburuan parte hartu zuen.

### Manu Muniategiandikoetxea > Margolaria

# "Erakusketan azken urteotako proiektu bereziak elkartu ditut"

**MIRARI ALTUBE** > BERGARA

**Manu Muniategiandikoetxea margolari bergarararrak erakusketa zabaldu zuen atzo Donostiako Koldo Mitxelena Kulturunean. *Behar gorria. Primavera azul* izeneko erakusketan, azken urteotako hainbat proiektu elkartu ditu.**

**Erakusketaren irekiera erditze baten antzekoa da?**

Erakusketa handia da, eta ni azken momentura arte lanean ibili naizenez, bai. Bukaera arte tentsio momentuak bizi izaten dira.

**Erakusketa berezia da?**

Bai, bakarkako oso erakusketa handia da, eta hori ez da ohikoa. Aretoa handia da, eta konpromisoa ere bai.

***Behar gorria. Primavera azul* izena jarri diozu erakusketari. Zer dago horren atzean?**

Euskarazko izena eta gaztelerazkoa jarri izan diet, baina ez da izaten itzulpena, joko bat da gehiago. Izenak, lanarekin zerikusia izan beharrean, neure egoera pertsonalarekin izaten du. *Behar gorrian* izan zitekeen, momentu latza edo aldaketa momentu bat adierazteko. Baina ikusten nuen bazetorrela aldaketa, eta *Primavera azul,* hain justu, aurkakoa da. Gainera, hitzek gorputz berezia hartzen dute, hiztegian ikusi eta objektu bat balira bezala. Hortaz, joko bat da, lau hitzeko jokoa.

**Egindako proiektuen bilduma da erakusketa?**

Sei sala eta tartean hiru plazatxo ditu erakustaretoak; hortaz, pentsatu nuen ondo legokeela azken urteotako proiektu bereziak elkartzea, baina bakoitzak bere autonomia izanik. Liburu erotikorako egindako jatorrizko marrazkiak erakusten ditut batean. Donostiako bosgarren zubiaren proiektuan sartuta nago –zoladura jarriko dut–, eta beste baten erakutsiko dudana zoladuraren antzerki antzeko aurkezpena da, xehetasun batekin eskultura bat egitea.

**"Bakarkako oso erakusketa handia da, eta ez da ohikoa; handia da konpromisoa ere"**

**"Erakusketa honekin jendeak gehiago ezagutuko nauen itxaropena dut"**

**Eta Miamin egindako proiektu bat ere badago.**

Bai, Miamin erakusketa berezia egin nuen 2004an. 20 edukiontzi jarri zituzten hondartza baten, eta nik eskultura handi bat egin nuen leku txiki baterako. Orain, arotz batek kontainerraren tamainako kaxa egin du hemen erakusteko, eta barruan eskultura sartu dut, Miamin gertatutakoa antzezteko. Proiektu bakoitzak txarteltxo bat izango du, proiektuaren muina kokatzeko eta, hala, jendeak uler dezan zer den ikusten dabilena.

**Eboluzionatzen joan zaren margolaria zara, eta proiektu berrietara zabalik dagoena.**

Bai. Enkargu antza dute proiektu gehienek, batek proposatu zidan liburu erotikoa egitea, beste batek zubiaren proiektuan parte hartzea… Enkarguak baino gehiago, kanpotik etorritako keinuak dira. Koldo Mitxelenako erakusketa beste enkargu bat izan da, eta eginda nituen proiektu txiki horiek guztiak egokitu ditut.



Manu Muniategiandikoetxea margolaria. GOIENKARIA

**Hortaz, ausarta zara?**

Ez, ez naiz batere ausarta. Eskultura asko dago, marrazkiak, lurrean ispilua, baina ez naiz sentitzen apurtzailea. Nahiko arrunta da: pinturak eta eskulturak. Baina beti jo behar da aurrera.

**Donostian bizi zaren bergararra zara. Esaten dute inor ez dela profeta bere herrian.**

Egia da gauza gehiago egin ditudala kanpoan, azkena Burgosen. Komertzialki ere kanpoan hobeto: Valentzian, Madrilen… Jende gehiago dago, eta ohitura handiagoa. Baina erakusketa honekin jendeak gehiago ezagutuko nauen itxaropena dut.

---

**KONTZERTUA** > THE WOGGLES

# Estatu Batuetako The Woggles eta Alacanteko Las Membranas bihar Oñatin

## 60ko hamarkadako erritmoak, bluesa, soula eta batez ere garage doinuak eskainiko dituzte bi taldeek gaztelekuan

**M.A.** > OÑATI

50eko eta 60ko hamarkadetako musika doinuak izango dira bihar, 22:00etan, Oñatiko gaztelekuan. Sarrera 5 euro da.

Estatu Batuetako Athens hiritik (Georgia) datorkigu The Woggles laukotea. Erritmoa, bluesa eta soula, gitarra surferoak eta batez ere garage doinuak eskainiko dizkiete zale eta gainerako guztiei. Ibilbide luzea dute taula gainean, eta abesti borobilak egiten dituzte. *The Professor* Manfred abeslari berritsuak, esaterako, erritu bihurtzen du kontzertu bakoitza, eta zaleak zoratzen ditu dantzara bultzatuz eta rock-and-rolla entzuleen gorputzetan sartuz. *Rock and Roll Backlash* izeneko azken diskoa aurkeztera datoz, eta Estatu Batuetako adituek diote "azken urteetako disko eta abesti onenetakoak egin dituztela garage doinuan".



THE WOGGLES Laukote estatubatuarra. THE WOGGLES

**ALACANTEKO LAS MEMBRANAS**

Las Membranas taldea, ostera, Alacantetik dator. 50eko eta 60ko hamarkadetako erritmo zaharren, soularen eta twistaren zale amorratuak dira, baina, batez ere, gitarra zorrotzetatik ateratako garage doinuaren fanatikoak. Azken hilabeteetan lau erreferentzia atera dituzte merkatura –biniloa bakarrik–, eta orain LPa gertatzen dabiltza. Zalantza barik, kontzertu bizia eta dantzagarria bihar Oñatin.

---

> ANTZERKIA

### '¿Te acuerdas, abuela?' antzezlana bihar Oñatiko antzokian

Bihar, zapatua, *¿Te acuerdas, abuela?* antzezlana eskainiko dute Pok Produkzioek Oñatiko Santa Ana antzokian. 22:30ean izango da, eta sarrerak 10 eurotan dituzte salgai.

Alzheimerraren gaixotasuna da antzezlanaren ardatza. Amamaren oroimena ahultzen dabil, eta familia osoak lagundu behar dio memoria zatiak biltzen. Gaia kezkagarria izanda ere, fantasia eta alaitasuna erabilita agertuko dute, eta horrek originaltasuna eta izaera berezia emango dio antzezlanari. Familia osoarendako da, beroa eta goxoa, umore eta maitasunez landutako istorioa.

**TALDEEN ARTEKO ELKARLANA**

Pok Produkzioak eta Theatre Des Chimeres taldeek elkarlanean egindako antzezlan hori Herve Jaouen (Frantzia) idazlearena da. *Txiliku*-k eta Beatriz Zabalondok itzuli dute euskarara eta gaztelaniara. Protagonista nagusiak Axen Egaña, Olatz Beobide eta Yannick Bergara dira. Tartean, Kepa Errasti aretxabaletarra eta Mikel Laskurain bergararra daude.

---

> IPUIN KONTAKETA

### 'Izan ala ez izan, niri hala kontatu zidan' ipuina Bergaran

Helduendako ipuin kontaketa antolatu du Bergarako Kultura Sailak. Bihar, martxoak 8, izango da, eta Ixabel Agirresarobe ipuin kontalariak *Izan ala ez, izan niri hala kontatu zidan* ipuin bilduma ekarriko du Ar oztegi aretora, 19:00etan.

Ipuin bakarra izan beharrean hainbat istorio kontatuko ditu Agirresarobek, baina guztiek izango dute ardatz bat, emakumea. Istorio gehienak ipuin herrikoietatik jasotakoak dira, Agirresarobek oso gustuko dituelako: "Ipuin horiek benetakoak izaten dira gehienetan, nahiz eta gero denborak beste itxura bat eman". Sarrionandia idazleak idatzitako bat ere kontatuko du.

**ANTZERKIGINTZA ETA IPUINAK**

Antzerkian eta ipuin kontaketan jarduten du Agirresarobe usurbildarrak. 1990ean hasi zen, hain zuzen, ipuinak kontatzen eta umeendako zein nagusiendako egiten ditu saioak. *Mattin* komikilariarekin ere lan egin izan du, Agirresarobek ipuinak kontatu eta *Mattin*-ek marrazkiak egin.

INMOBILIARIA
Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**Bergara:**
- Zabalotegi 80 m². Eguzkitsua.
- Simon Arrieta 80 m². Eguzkitsua.
- Martoko 92 m². Prezio ona.
- Aranerreka 75 m². Eguzkitsua.
- Elusu baserria. Berritua.
- Bidekurutzeta 60 m². Berritua.
- Ibargarai 74 m². Ondo.
- San Juan. Bifamiliarra.
- Zubiaurre 70 m². Berritua.
- Matxiategi 61 m². Prezio ona.
- Zabalotegi 60 m². Berritua.
- Barrenkale 82 m². Berritua.
- Zubieta.75m². Txokoarekin.

**Antzuola:**
- Buztinzuri 76 m². Prezio ona.
- Aiherra 123 m². Duplexa.
- Antigua 80 m². Eguzkitsua.

**Eskoriatza:**
- Baserria. Berritua.

DEBA GARAIA
INMOBILIARIA
Telesforo Aranzadi 2
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37

**BERGARA**
- Matxiategi, 61m², oso ondo
- Martoko, 87 m², ondo, garajearekin
- San Pedro, 88 m², ondo
- Ibargarai, 80 m², oso ondo
- Artekale, 70 m², oso ondo
- Koldo Elizalde, 87 m², oso ondo
- Mugertza, 60 m², berria, aukera ona
- Zubieta 70 m², ondo
- Urdangarin p., 132 m², berritzeko
- Irizar p., 89 m², oso ondo
- Matxiategi, 73m², berritzeko
- Bidekurutzeta, duplexa, berritua
- Aranerreka, 80m², oso ondo
- Etxebizitza berrien eraikuntza Madura, Masterreka eta Zubiaurren.
- Zurradero, 81m², oso ondo

**SORALUZE**
- Baltegieta, 83m², berria

**ANTZUOLA**
- Duplex berria, erdialdean.
- Eguzki auzoa, 85 m², erdi berritua.

**ELGETA**
- San Roke, 75 m², ia berria.

# IRAGARKI SAILKATUAK

Eguazten eguerdira arte (12:00) jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

**943 25 05 05**

**sailkatuak@goiena.com**

**PARTIKULARREN IRAGARKIAK DOAN JARRIKO DITUGU; GAINERAKOAK 22 EURO ORDAINDU BEHARKO DIRA MODULUKO.**
**PREZIO BEREZIA: EGUBAKOITZETAKO ETA ASTELEHENEKO GOIENKARIA-N, BIETAN ARGITARATUZ GERO, 30 EURO.**
GOIENKARIAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

## 1/ ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Antzuola.** Sagasti auzoan etxea salgai. 90 m². Hiru logela, bi bainugela, sukalde-egongela handia, bi balkoi eta despentsa. Garajearekin. Erdi jantzita. 617 00 37 30 edo 943 78 71 35.

**Antzuola.** Sagasti kalean 85 m²-ko etxe berria salgai. Hiru logela, bi komun, sukaldea, egongela eta balkoia. Eguzkitsua, garaje eta trastelekuarekin. Erdi jantzia. 629 40 42 16 edo 656 75 86 97.

**Aretxabaleta.** Belorrietan. 110 m². Sukaldea, hiru logela, egongela handia, bi komun eta bi balkoi. Garajearekin. Igogailua. Toki lasaia. Erdi jantzita. 605 75 14 34 edo 649 47 50 75.

**Arrasate.** 117 metro koadroko etxebizitza salgai Zerrajeran. Lau logela, bi komun, sukaldea eta egongela. Garaje eta guzti. 650 10 02 10 edo 943 79 96 63.

**Arrasate.** Maalako Errabalean 72 metro koadroko etxebizitza eta 30 metro koadroko lokal komertziala salgai. 628 35 21 61.

**Arrasate.** San Andres auzoan etxebizitza salgai. 58 metro koadro. Bi logela, egongela, sukaldea, komuna eta trastelekua. Berritua. 210.350 euro. 943 27 71 50.

**Arrasate.** Udalpe kalean etxebizitza salgai. Guztiz jantzia. Hiru logela, egongela, sukaldea eta komuna. Balkoi zabala dauka eta dena kanpoaldera begira. Gasezko berokuntza indibiduala. 685 72 81 32.

**Arrasate.** Zerrajera kalean 80 metro koadroko etxea salgai. Bi logela eta bi komun. Dena kanpoaldera begira. 656 77 94 32.

**Bergara.** Erdialdean etxebizitza salgai: bi logela, sukaldea, komuna, sala eta despentsa; trastelekua eta garajea. 626 13 45 94.

**Bergara.** Erdialdean, Simon Arrieta plazan. 57 m². Bi logela, trastelekua eta igogailua. 649 63 11 74.

**Bergara.** Zabalotegin etxea salgai. Hiru logela, egongela, sukaldea eta bainugela. 653 70 84 04.

**Bergara.** Zubiaurren guztiz berritutako etxebizitza salgai. Berogailu eta ganbararekin. 619 41 39 72.

**Borda** daukat salgai Elgetan. 2.200 metro koadroko lursailarekin. 678 98 02 04.

**Durango.** Tabiran, parkearen ondoan 90 metro koadroko etxebizitza salgai. 4 urte. Hiru logela, bi bainugela, sukaldea eta balkoi bat. Oso eguzkitsua eta ia berria. 59,5 milioi pezeta. Aukeran garajea, trastelekua eta ganbara. 616 09 46 79.

**Elgeta.** Etxebizitza salgai. Bigarren solairua. Igogailua dauka, hiru gela, sukaldea, komuna eta ganbara. Aukera onean: 137.032 euro. 645 71 76 25 edo 946 81 21 97.

**Eskoriatza.** Etxebizitza salgai Dorleta auzoan. 82 metro koadro. Lau logela, sukaldea-jangela, bainugela eta lehortegia ditu. Berogailua. Oso eguzkitsua. 33 milioi. Aukera paregabea. 645 97 45 64.

**Eskoriatza.** Etxebizitza salgai San Pedro kalean. 73 m². Hiru logela, egongela, bainugela, sukaldea eta balkoia. Guztiz berritua eta eguzkitsua. 615 70 99 18.

**Nafarroa.** Urederra inguruan etxea salgai. Bi solairu ditu (123 metro koadro). Gutiz berritua. 943 76 00 03.

**Oñati.** 63 m²-ko apartamentua salgai Arantzazuko Ama kalean. Etxabea (baxua). Sukalde-egongela, bi logela eta komuna. Sukaldea guztiz jarrita, kalefakzioa, alarma, eta abar. Dena berria, estreinatzeko. 669 73 18 23 edo 657 77 91 74.

**Oñati.** 70 m²-ko etxebizitza berria salgai Kale Zaharrean. Bi logela, sukalde ederra, komuna, egongela argitsua eta trastelekua argi-patioan. Altzari berriekin oso ongi jantzita. 270.500 euro. 652 70 12 49.

**Oñati.** 70 m²-ko etxebizitza salgai Kale Zaharrean. Berria, igogailuarekin, guztiz jantzita. Leku onean kokatua. 617 05 86 27.

**Oñati.** Bidebarrieta kalean, Errementari plazan 100 m²-ko duplexa salgai. Guztiz jantzita. Balkoia. Garaje handia. 665 72 14 90 edo 615 70 35 18.

**Oñati.** Diseinuko duplexa salgai. 120 m². Kale Zaharrean. Argitsua eta material ederrekin egina. Hiru logela, bi komun, sukaldea, egongela eta estudioa. 676 39 36 93.

**Oñati.** Duplexa salgai erdialdean. 105 m². Lau logela , bi komun, egongela eta sukaldea. 635 71 41 39.

**Oñati.** Etxebizitza salgai Arantzazu kalean. Berri-berria. Garajearekin. Prezio onean. 608 54 40 44.

**Oñati.** Etxebizitza salgai Olakua auzoan. Hiru logela, sukaldea, bainugela, egongela, trastelekua eta garaje itxia barne. Guztiz eraberritua. Deitu 657 72 25 70 edo 665 72 87 89 telefono zenbakietara.

**Soraluze.** Hiru logela, bi komun eta trastelekua dituen etxebizitza salgai. Sukalde-jangela eta egongela, dena bat da. Lau balkoi eta terraza dauzka eta arropa barruan eskegitzeko aukera. 258.435 euro, negoziagarriak. Deitu 616 17 94 01 telefono zenbakira.

### 103. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Etxebizitza emango nuke errentan Erguin auzoan. Guztiz jantzia eta berogailuarekin. Eraberritua. Bizitzera sartzeko moduan. 617 17 18 23.

**ARRASATEN LOKALA SALGAI**

**Eskaintza berezia!**
**Erdiko kalean, 175 m². Egokitua.**
**Berogailua eta aire girotua.**
**240.000 €, negoziagarri!**
**Tel.: 943 42 42 74**

**ARRASATE**

**Ile-apaintzailea behar da**

**676 22 33 18**

**Bergara.** Etxea errentan Aranerreka kalean (Bolu). Hiru logela, bi bainugela. Berogailuarekin. 665 71 48 30.

**Bergara.** Logela emango nuke errentan Bolun. Sukalderako eskubidearekin. 260 euro. Deitu 616 14 72 67 telefonora.

**Bergara.** Oso egoera onean dagoen etxebizitza daukat alokatzeko. Deitu 20:00etatik aurrera. Deitu 626 00 96 32 zenbakira.

**Conil (Cadiz).** Aste Santurako eta udarako apartamentua alokagai. 656 77 94 32.

**Peñiscola (Castello).** Aste Santurako apartamentua errentan ematen da. 2-4 pertsonarentzat. Instalazio pribatua. Garajea. Hondartza 50 metrora. 610 87 83 57.

**Torremolinos (Malaga).** Aste Santuan eta Bergarako jaietan apartamentua emango nuke errentan. Bi logela, eta guztiz jantzita. Hondartzatik 150 metrora. Prezio onean. Deitu 657 01 18 16 zenbakira.

### 104. ERRENTAN HARTU

**Aretxabaleta** edo Arrasaten logela bila nabil hilabete batzuetarako, lan kontuak direla eta. 30 urteko neska bilbotarra naiz. 696 44 07 22.

**Arrasate.** Emakume arduratsu batek logela behar du. Presazkoa da. Hobe erdigunean badago. 666 21 88 95.

**Bergara.** Etxebizitza errentan hartuko nuke. Deitu 665 75 52 11 telefonora.

**Bergara.** Hiru logelako etxebizitza hartuko genuke errentan. 680 67 74 96.

**Bergara.** Lau helduk osatutako familia batek etxebizitza hartuko luke errentan. 634 40 75 52.

**Soraluze.** Apartamentua edo etxebizitza hartuko genuke errentan. 675 71 82 76.

### 105. ETXEAK OSATU

**Bergara.** Gela ematen da errentan, sukaldea erabiltzeko eskubidearekin. Bolun. 260 euro. 670 85 86 68.

**Debagoiena.** Logela bat hartuko nuke alokairuan apiriletik aurrera. 665 71 81 29.

## 2/ GARAJEAK

### 201. SALDU

**Aretxabaleta.** 17 metro koadroko garaje itxia salgai Mitarte auzoan. 661 80 00 32.

**Aretxabaleta.** Garajea salgai Loramendin. 10.000 euro. 656 77 64 64.

**Bergara.** 37 metro koadroko garajea salgai Zubiaurren. Deitu 606 65 97 82 zenbakira.

**Elgeta.** Auto bakarrarendako garaje itxia salgai Salbador kalean. 660 45 22 33.

**Garaje-trastaleku** txikia saldu edo errentan ematen da Bergarako Zurradero kalean, oso prezio onean. Neurriak: 5,80 x 1,80, motorra gordetzeko egokia. 678 43 31 07.

**Oñati.** 17 metro koadroko garaje itxia salgai Olakua auzoan. 943 08 18 13 edo 677 42 57 94.

**Oñati.** Bidebarrieta kalean. Deitu 695 75 85 26 telefonora.

### 202. EROSI

**Leintz bailara.** Autokarabana sartzeko modukoa. Deitu 605 71 10 95 zenbaira.

### 203. ERRENTAN EMAN

**Antzuola.** Garaje itxia emango nuke errentan. 650 55 44 98.

**Arrasate.** Unibertsitate ondoan garaje itxita errentan ematen da. 667 07 14 17.

**Elgeta.** Auto bakarrarendako garaje itxia errentan eman gura dut Salbador kalean. Deitu 660 45 22 33 telefonora.

## 3/ LOKALAK

### 301. SALDU

**Arrasate.** Lokala salgai Anboto kalean. 61 metro koadro. 656 73 34 84 edo 945 44 50 15.

### 303. ERRENTAN EMAN

**Bergara.** 80 metro karratuko lokala errentan emango nuke. Berriztatuta. 450 euro hilero. 645 00 80 55.

**Bergara.** 80 metro koadroko lokala ematen dut errentan. Berriztatuta. 450 euro hilero. 645 00 80 55.

### 304. ERRENTAN HARTU

**Bergara-Arrasate.** Musika talde batek lokala alokatu edo partekatuko luke. 618 02 03 00.

**Debagoiena.** Taberna edo jatetxea hartuko nuke errentan. 665 75 52 11.

## 4/ LANA

### 401. ESKAINTZAK

**Arrasate.** Emakumea behar dugu umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. 696 79 43 89.

### 402. ESKAERAK

**Arrasate.** Emakume euskalduna gertu edozein lanetarako. 659 82 75 18.

**Arrasate.** Ikaslea goizez lan egiteko prest. 625 70 15 99.

**Bergara.** Edozein lan mota egiteko gertu daude bi gizonezko. 696 48 42 50.

**Bergara.** Erizain laguntzaile titulua duen neska euskalduna zaharrak eta umeak zaintzeko prest. Esperientziaduna. 625 19 08 63.

**Bergara.** Mutil arduratsua atarietako garbitasun lanak egiteko gertu. Lan txukuna eta profesionala bermatzen du. 696 38 10 07 edo 649 63 23 24.

**Bergaran** umeak edo nagusiak zaintzeko gertu dagoen emakumea naiz. Horrez gain, garbiketa lanak ere egingo nituzke. 606 64 16 09.

**Debagoiena.** Atariak garbituko nituzke. Lan txukun eta serioa ziurtatzen dut. 696 38 10 07.

**Debagoiena.** Emakume arduratsua gertu etxeak garbitu, umeak zaindu edo garbitasun lanak egiteko. Orduka edo lanaldi osoa. 649 70 51 74.

**Debagoiena.** Emakume esperientziaduna gertu umeak zaindu edo garbitasun lanak egiteko: etxeak, tabernak, bulegoak... 696 11 01 94.

**Debagoiena.** Emakume gaztea edozein lanetarako prest. 678 40 57 04.

**Debagoiena.** Emakumea etxeko lanak egin edo nagusiak zaintzeko gertu. Etxean bertan edo kanpoan lo egingo luke. 630 82 15 57.

**Debagoiena.** Mutil bat edozein lan egiteko prest. 671 92 79 85.

**Debagoiena.** Mutil bat eskaintzen da zerbitzari edo sukaldari laguntzaile lana egiteko; oro har ostalaritzan lan egiteko. 629 23 93 87.

**Debagoiena.** Neska euskalduna etxeko lanak egiteko eta agureak zaintzeko prest. 943 76 04 18.

**Debagoiena.** Paperak dituen emakumea garbitasun lanak edo pertsonak zaintzeko gertu. 609 76 72 69.

**Debagoiena.** Paperak dituen mutil gaztea gertu eraikuntza alorrean lan egiteko. 617 85 32 72.

**Emakumea** edozein lan egiteko prest. Batez ere garbiketan eta nagusiak zaintzen. 666 21 88 95.

**Margolari** edo iturgin laguntzaile lanetan aritzeko lan bila nabil. 610 82 02 17.

**Ostalaritzan** lan egingo nuke sukaldari edo zerbitzari. Baita nagusiak zaintzen ere. Berehala lanean hasteko prest. 666 75 73 21.

## 5/ IRAKASKUNTZA

### 502. EMAN

**Aretxabaleta.** Ingeleseko eskolak ematen ditut. Deitu 943 79 03 83 zenbakira.

**Arrasate.** Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako eskola partikularrak ematen dira. Esperientzia handia. Deitu 658 70 67 84 zenbakira.

## 6/ MOTORRA

### 601. SALDU

**Audi A4** Avant 2.5 180 ZP Quattro autoa salgai. 2002koa. 17.000 euro. 629 46 19 35.

**Citroen ZX** 1.9i Volcane autoa salgai. 130 ZP. ABS, direkzio lagundua, kristal-igogailu elektrikoa, aire girotua eta itxitura zentralizatua. 900 euro. Deitu 686 91 45 37 telefonora.

**Ford Mondeo** salgai. 1.8 TD, 90 ZP, 5 ate, 8 urte eta 100.000 km. Beti garajean gordeta. 3.000 euro. 676 33 33 54.

**Karabana** 7 metrokoa, kalefakzio eta ur berogailua, komuna, dutxa eta sukalde osoa kanpoan, Mutrikuko Santa Elena kanpinean jarrita. 652 75 03 61.

**Karabana.** Knaus Sport 500 QDK modeloa. Sei plazakoa. Abantzea, berogailua, ur beroa, telebista antena eta 48 litroko ur depositua. Bi urte dauzka eta beti garajean egon da. 686 24 30 24.

**Karabana.** Knauss Sudwind 500. Urtebete dauka. Berri-berria. Aire girotua, berogailua. Sei pertsonarendako. Prezio negoziagarria. 661 80 00 46.

**Opel Astra** Caravan 1.7 TD autoa salgai. Matrikula: SS-AT. 2.000 euro. 690 36 86 66.

**Opel Corsa** 1.7 turbo diesela salgai. 2004koa. 50.000 km. Aire girotua, kristal jasogailu elektrikoa, itxiera bateratua eta hiru ate. Gorria da. 8.500 euro. 658 14 07 98.

**Opel Meriva** salgai. 2004koa. Gasolinazkoa. Egoera oso onean. 9.500 euro. 670 26 45 03.

**Opel Vectra** autoa salgai. Egoera onean. 658 73 40 21.

**Renault Laguna** 2.2 salgai. 1997koa. Kontsumo txikia du. Egoera onean. 1.800 euro. 677 93 83 19.

**Suzuki Vitara** salgai. Oso egoera onean. 665 74 91 27.

**Volkswagen Golf** autoa salgai. 1993koa. 1.000 euro, transferituta. 615 00 84 49.

**Volkswagen Polo** 1.4 salgai, 2004koa. 21.000 km eta 5 ate. Oso egoera onean dago. 658 71 25 84 edo 658 70 76 44.

**Volkswagen Sharan** 1.9 TDI. 1996koa. 6.000 euro. 618 02 02 58.

**Yamaha 426** motorra salgai. 2001ekoa. Egoera onean dago. 2.000 euro. 615 00 84 49.

## 7/ ANIMALIAK

### 701. SALDU

**Txakurkume bi** salgai. Emeak, zuri-beltzak. Lau hilabete dituzte. Txertoa jarrita. 200 euro bakoitza. 659 97 79 04.

## 8/ DENETARIK

### 801. SALDU

**Altus** markako mendiko umeen motxila gorria salgai. Egoera onean. 665 73 65 95.

**Atomic** markako eskiatzeko botak salgai. 37-38 zenbakia. Berogailurako instalazioarekin. Oso egoera onean, behin erabiliak. 100 euro. Astegunetan deitu 22:15etik aurrera. 667 94 52 12.

**Dynastar** markako Look eskiatzeko fijazioak salgai. Emakumezkoendako bereziak. Oso egoera onean. 100 euro. Astegunetan deitu 22:15etik aurrera. 667 94 52 12.

**Errepideko bizikleta** salgai. Aluminiozkoa. Oso egoera onean. Karbonozko urkila. Osagarriak: Ultegra. 550 euro. 635 71 94 66.

**Eskiak** salgai, Fischer markakoak eta 1.70 neurrikoak dira. 120 euro. Deitu eguerdian edo 20:00etatik aurrera 669 83 60 53 telefono zenbakia.

**Eskiatzeko botak** salgai, 41-42 zenbakikoak. Behin erabiliak. 90 euro. Eguerdian edo 20:00etatik aurrera deitu. 669 83 60 53.

**Karro-denda** salgai. Alpen-Kreuzer. Sukalde-denda independentearekin. Bi logela bikoitz, mahai-jantokia 4-6 pertsonarentzako, abantzea eguzkitarako biserarekin eta sukaldea. Ondo zainduta eta egoera onean, beti garajean gordeta. 1.800 euro. 615 72 47 43.

**Logela.** Gazte batentzako logela salgai. Armairua, 90cm-ko bi ohe (bata bestearen azpian), idazmahaia, apalak eta arkoia. Egoera onean. 300 euro. 656 73 80 92.

**Mahai obalatua** salgai. Neurria: 1,36x92. Luzagarriekin. Asier. 617 17 15 88.

**Olympus E-410** argazki-kamera digitala saltzen dut. ED 14-42 mm eta 40-150 mm-ko objektiboekin. Erabili gabe dago. 650 euro. 660 80 09 71.

**Orbea Arin bizikleta** salgai. 2005ekoa. Euskaltel-Euskadi taldearen erreplika. Dura-Ace osagarriak. 1.700 euro. 656 76 89 44.

**Peñiscola.** Bungalowa salgai. Hondartzatik 100 metrora. Logela, sukaldea, jangela, bainugela, terraza handia eta lorategia ditu. Kirolgunea txirristekin. 948 41 00 79 edo 616 95 04 00.

**Pultsometroa** salgai. S410 modeloa, CD-ROMa barne. Merkea eta egoera onean. Deitu 685 76 44 77 zenbakira.

### 804. HARTU

**Botatzeko** dauden ordenagailuak, monitoreak-eta jasoko nituzke. Deitu 605 71 71 62 telefonora.

### 806. GALDU

**Arrasate.** Belarritakoa galdu nuen, otsailaren 1ean, parrokiako irteeran. Perla borobila dauka. 669 52 69 62..

**Aretxabaleta.** Umearen txamarra galdu dut. Bakero txaketaren itxura du, beix kolorekoa da eta Bass markakoa. Deitu 659 92 49 31 zenbakira.

**Betaurrekoak.** Arrasaten, erdialde eta ospitale artean graduatutako betaurrekoak galdu ditut. Itxura zaharra dute: beltzak dira, eta borobilak. Deitu 678 30 42 02 telefonora.

**Oñati.** Otsailaren 9an, domekan, txaketa bat galdu nuen, urdin iluna, Benetton etxekoa, 4 urteko mutikoarena, Errementeri plazan. Aurkitu baduzu, udaltzainei eman edo Maibi dendan utzi, mesedez. 646 95 80 62 edo 943 78 14 80.

**Argazki kamera digitala** galdu dut Bergarako taxi geltokian. Sarituko da. 605 71 77 11

### 807. AURKITU

**Belarritakoa** aurkitu nuen, otsailaren 26an, Bergarako osasun etxearen eta taxi geltokiaren artean. Emakumezkoena da, eta bola zuri batekin. Deitu 943 76 46 90 telefonora.

**Forro polarra** aurkitu nuen otsailaren 9an. EHSF markakoa da, umeena. BAZen utzi nuen. Deitu bertara. 943 25 20 00.

**Belarritakoa** aurkitu nuen, otsailaren 26an, Bergarako osasun etxearen eta taxi geltokiaren artean. Emakumezkoena da, eta bola zuri batekin. Deitu 943 76 46 90 telefonora.

## LAN ESKAINTZA

**Alejandro Altuna S.A.** enpresak TXINAKO filialerako

**LANTEGIKO ZUZENDARIA**

behar du.

ARRASATEn formakuntza epe baten ondoren, bost urterako TXINAko filialean industria zuzendaritza bere gain hartu beharko du, produkzio saileko eginkizunak, erosketak, ingeniaritza, kalitatea, logistika eta lantegiaren antolaketa lanak beteaz.

**ESKATZEN DA:**
- Goi-mailako lanbide heziketa edukitzea (Ingeniaritza, Enpresa edo Ekonomia Zientzietan lizentziaduna).
- Ingelesa menderatzea.
- Erronka profesionalak bere gain hartu nahi duen pertsona izatea.

Proiektu enpresarial dinamiko batez arduratuko da eta ordainsari interesgarriak emango zaizkio.

Interesatuok bidali curriculuma helbide honetara:

Alejandro Altuna S.A.
Bidekurtzeta 6
20.500 ARRASATE

JMA

ESKER ONA

## Jesus Kalboetxeaga Zabaleta

Bergaran hil zen 2008ko martxoaren 3an, 71 urte zituela.

Eskerrik asko, aitxitxa.
Maite zaitugu.
Malen, June eta Paule.



Bergaran, 2008ko martxoaren 7an.

URTEURRENA

## Felix Uranga Iraegi

*Carlos*

Lehen urteurreneko meza
domekan, martxoaren 9an, 12:30ean,
Arrasateko Santa Teresa elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

IX. URTEURRENA

## Juan Jose Garmendia Berezibar

*Yanyo*

*Gogorra izango da onartzea
gehiago ez zaitugula ikusiko
baina bizitzen garen artean
ez zaitugu, ez, ahaztuko.*



Zure lagunak.
Arrasaten, 2008ko martxoaren 7an.

ESKELA

## Bixente Ibarguren Unanue

Zaldumendi baserrikoa

Argentinan hil zen 2008ko martxoaren 3an.

Haren arimaren aldeko
hileta elizkizuna bihar,
zapatua, martxoak 8,
19:00etan, Bergarako
Santa Marina elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

ESKER ONA

## Maria Piedad Ibañez Ibañez

Bergaran hil zen 2008ko martxoaren 2an, 80 urte zituela.

Modesto Alcalde, Blanca eta Anabel Retesek:

eskerrak eman nahi dizkizuete hileta-elizkizunetara
joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi.



Bergaran, 2008ko martxoaren 7an.

ESKER ONA

## Jesus Alberdi Garbizu

Egileor bertsolaria

Bergaran hil zen, 2008ko martxoaren 2an, 77 urte zituela.

Banan-banan eskertzea zaila zaigunez, hitz hauen
bidez ESKERTU nahi dizkizuegu bihotzez jasotako
elkartasuna eta bidalitako samin-agurrak. Mila
esker gurekin izateagatik egun triste hauetan.



Bere emazte, seme-alabak eta bilobak
Bergaran, 2008ko martxoaren 7an.

# ESKELAK

GOIENKARIAn eskela jarri nahi baduzu, deitu telefono honetara eguen eguerdia baino lehen:
**943 25 05 05**

Edo zatoz ordezkaritza batera, eguazten eguerdia baino lehen:

**Arrasate**
Goiena: Otalora lizentziaduna 31. 943 25 05 05. / Goiena: Nafarroa etorbidea 2. 943 25 05 05.

**Bergara**
Goiena: Barrenkalea 33. 943 25 05 05.

**Oñati**
Biklon publizitate agentzia: Olakua 9. 943 78 10 65.

**Aretxabaleta**
Goiena: Durana 11. 943 79 86 21.

**Aramaio**
Kintelena janaridenda: Nardeaga 11. 945 44 50 22

**Elgeta**
Ugari janaridenda: Andra Mari plaza 2. 943 76 80 98.

**Antzuola:**
Itzar liburu denda: Kalebarren 1. 943 76 60 62.

**Eskelaren prezioa: 100 euro.**
Prezio berezia: egubakoitzeko eta asteleheneko GOIENKARIAn, bietan, argitaratuz gero, **120** euro.
**ASTELEHENEKO GOIENKARIAko harpidedunak: 90 euro**
Prezio berezia: egubakoitzeko eta GOIENKARIAn, bietan, argitaratuz gero, **110** euro.

**Goienkaria: astero, 50.000 irakurle.**



## hildakoak

- **Maximo Garai Garai.** Arrasaten, martxoaren 2an. 70 urte.
- **Tomas Uranga Mendizabal.** Arrasaten, martxoaren 1ean. 73 urte.
- **Jesus Alberdi Garbizu.** Bergaran, martxoaren 2an. 77 urte.
- **Jesus Kalboetxeaga Zabaleta.** Bergaran, martxoaren 3an. 71 urte
- **Eugenio Sagasta Juaristi.** Arrasaten, martxoaren 4an. 77 urte.
- **Jesus Daroka De La Fuente.** Aretxabaletan, martxoaren 4an. 72 urte.
- **Inazio Galdos Urtzelai.** Oñatin, martxoaren 5ean. 70 urte.

Babeslea:

OROILORE Hileta eta Beilatoki zerbitzuak
Amillaga auzoa 27. 20570 Bergara
Tel.: 617 44 21 55 - 943 76 94 73 - Faxa.: 943 76 94 76
maribi@oroilore.com



Bidaia ezin hobea

OROILORE
Funeraria-Tanatorio
Hileta eta Beilatoki zerbitzuak

## bila-bila 7





## hitz gezidunak




GOIENKARIA

## soluzioak



Jeroglifikoa: Hotzez







## sudokua

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | 2 | 7 | | | | | |
| | 9 | | 2 | 5 | 1 | | | |
| 5 | 1 | 8 | | | | | | |
| | 2 | 3 | | 1 | | | | |
| | | 4 | | | | 6 | | |
| | | | | 8 | | 7 | 9 | |
| | | | | | | 9 | 5 | 6 |
| | | | 8 | 7 | 4 | | 3 | |
| | | | | | 6 | 8 | | |

## hieroglifoa

Nola hil zen?

**HATZ**
**HETZ**
**HITZ**
**HUTZ**

## hizki salda

Bost planeta

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| M | M | O | N | R | U | T | A | S |
| X | A | M | O | U | R | L | I | • |
| L | U | R | R | A | A | B | U | R |
| N | R | E | T | B | N | U | A | E |
| T | E | Q | T | E | O | B | D | T |
| N | L | P | X | E | T | U | O | I |
| A | A | Z | X | R | U | M | Z | P |
| I | E | T | Z | X | N | R | S | U |
| E | X | J | E | U | Z | U | M | J |

## bono fotoa



**Nori eskainia dago Oñatiko erdigune osoa kontrolatzen duen baseliza hau?**

**Argazkia eta galdera** > Iñigo Biain

Super BM

Super BMk emandako
**50 euroko erosketa-txartela**
zozketatuko du GOIENKARIAk asmatzaileon artean!

**ERANTZUNA** ..............................

..............................

IZEN-DEITURAK..............................
TELEFONOA..............................

Ekarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO
Goienako edozein egoitzara

**Foxy komuneko papera**
**26 erroilu + 6 doan**

**4,95 €**

Hiru eramanda, hirugarrena doan.

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

**AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA**

**Andoni Uribesalgo**rendako izan da erosketa-txartela. Zorionak!

**Galderaren erantzun zuzena: Altzibar baserria.**


Aurrezki Mistoa
EUSKADIKO KUTXA
Eramazu
mix
bat
ZURE INBERTSIOETARAKO
KONBINAZIORIK ONENA
3.000 €-tik gora
INBERTSIOAREN ERDIA, 6 HILABETEKO EPE FINKOAN
%7ko TAE
Interes nominala: % 6,882
Interesak mugaegunean ordainduko dira
ETA BESTE ERDIA, 2 URTE ETA 2 HILABETERAKO BERMATUTAKO FONDO BATEAN
%14*
* BBVAren, Santanderren eta Telefonicaren akzioek balioa irabazten badute epealdi horretan • BBVAren, Santanderren eta Telefonicaren akzioek balioa irabazten badute epealdi horretan • Alderatzeko egunak: Hasierakoa, 2008ko martxoaren 31ko eta apirilaren 1eko eta 2ko batez besteko prezio ponderatua • FBukaerakoa, 2010eko maiatzaren 21eko, 24ko eta 25eko batez besteko prezio ponderatua • Fondoaren mugaeguna: 2010/05/31 Alderatzeko egunak: Hasierakoa, 2008ko martxoaren 31ko eta apirilaren 1eko eta 2ko batez besteko prezio ponderatua • FBukaerakoa, 2010eko maiatzaren 21eko, 24ko eta 25eko batez besteko prezio ponderatua • Fondoaren mugaeguna: 2010/05/31
Eskaintza hau nominamulti-ren titularrei soilik zuzenduta dago
* Eskaintza martxoaren 31ra arte egongo da indarrean.
CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

**Maite Lazkano** > Dantzaria

# "Dantzariak belarri ona izan behar du, eta erritmo guztietara moldatzen jakin"

Maite Lazkano bergararrak urte asko daramatza dantza munduan modu batean edo bestean sartuta. 5 urte zituela hasi zen dantza egiten ikasten. 2001ean, Euskal Herriko dantza sueltoko txapelketa irabazi zuen eta 2005ean Donostiako Plazan Euskal Herri zapiak saria eskuratu zuen. Orain, umeei erakusten die dantzari trebeak izaten.

MIRIAN BITERI > BERGARA

**Dantza txikitako pasioa izan bada ere, beste zaletasun batzuk ere badituela azaldu digu datozen lerroetan Maite Lazkano bergararrak. Denbora zertan ematen duen esan digu Humanitate Enpresan lizentziatutako 28 urteko gazteak.**

**Noiz hasi zinen dantza egiten eta zergatik?**

5 urterekin hasi nintzen. Garai hartan gurasoek dantzarako zaletasuna zeukaten, eta, haiekin dantza saioren bat ikusi ondoren, "nik ere hori ikasi nahi dut" aipatu ei nien. Ni jaio bezperan ere Uberan izan ziren San Paulotako txapelketa ikusten, agian amaren sabeletik kilikatu ondoren hasiko zen interesa...

**2001ean, Euskal Herriko dantza solteko txapelketa irabazi zenuen. Zer oroitzapen gordetzen duzu egun hartatik?**

Egun oso berezia izan zen. Dantzari batek etxera dezakeen garaipenik pisuzkoena da. Gazteen mailan lorturikoekin ez zuen inongo zerikusirik. Bagenekien aukerak genituela, baina 3-4 bat bikoteren artean zegoen txapela jokoan eta edozein izan zitekeen garaile. Aurretik izandako entsegu, urduritasun, tentsio eta neke guztiek merezi izan zuten. Baina azken denboraldian (2005) Donostiako Konstituzio plazan lorturiko zapiak, Euskal Herrikoak, besteko pisua izan zuen.

**Zer behar du dantzari on batek?**

Gauza asko behar dira, baina erritmoari ematen diot nik bereziki garrantzia. Musikarik gabe ez dago dantzarik eta dantza bakoitzak bere erritmoa behar du. Belarri ona izatea komeni da. Dantzari on batek erritmo guztietara moldatzen jakin behar du eta hori norberaren gaitasunetan dago. Horrez gain, arintasuna, teknika eta indarra ere beharrezkoak dira. Baina azken horiek, hasiera batean ez izan arren, lortzera irits daiteke.

**Umeei dantza irakasten ere ibili zara. Oraindik zeregin horretan jarraitzen duzu?**

Bai. 4 eta 12 urte bitarteko 150 bat ume ditugu. Urtean zehar hainbat ekintzatan parte hartzen dute: erromeria eguna, ezkontzak, auzoetara egiten ditugun irteerak... Txikitatik izan dut ilusioa taldeko irakasle izatera iristeko, eta aukera sortu zitzaidanean ez nuen bi aldiz pentsatu. Orain, oso gustura nabil.










JASONE ZABALA

PERTSONALA

**Herria:** Bergara. **Adina:** 28 urte. **Ikasketak:** Humanitate Enpresa lizentziatura. **Zaletatsunak:** Dantza, kirola orokorrean, irakurtzea eta zinema. **Gorrotatzen duzu ezer?** Hipokresia eta txutxu-mutxuak. **Gomendatzeko moduko liburu bat:** Nicolas Evansen *A través del fuego*. **Musikari bat:** Denetarik gustatzen zait. **Parrandarako toki bat:** Hernani. **Dantza egiteko plaza bat?:** Donostiako Konstituzio plaza. **Amets bat:** Seme-alabaren bat izango banu, nik dantzan eman ditudan urratsak jarraitzea.

**Bergarako lantegi batean lan egiten duzu, administrazioan. Zenbakiak gustuko dituzu?**

Egia esan, beti nahiago izan ditut letrak zenbaki hutsak baino. Hala ere, bien arteko nahasketarekin gelditzen naiz.

**Gurasoek tindategia dute. Zuk beste bide batetik jo duzu...**

Bai, ikasketekin lotura zuen zerbaitetan lan egin nahi nuen. Ez dago nork bere lana gustuko izatea bezalakorik. Tindategiak ez nau batere erakartzen. Hala ere, pena pixka bat ere ematen dit. Denda birramamak zabaldu zuen, jarraian amama, orain ama... Badirudi hurrengoa neuk izan beharko nukeela, ezta?

**Kirola egitea gustuko duzu. Zein kirol dituzu gustukoen?**

Urte batzuetan futbolean ere aritu nintzen. Bergaran eta Arrasaten jokatu nuen. Gustura ibili nintzen, baina azkenean utzi egin behar izan nuen, ez ziren-eta bateragarriak. Futbolean aritzeak kalte egiten zidan dantza egiterakoan. Orain, igeri egitera joaten naiz sarritan.

**Zaldian ibiltzen ikasi zenuen. Zaletasun hori mantentzen duzu?**

Beti izan ditut zaldiak gustuko, eta behin dantza utzi ondoren ikasten hasi nintzen, Elosun bertan. Orain ez daukat denborarik eta astean zehar ezin izaten naiz igo. Baina udaberri edo udarako martxa hartu nahiko nuke.

**Zinemazalea zara. Zein da ikusi izan duzun azken filma? Eta gustukoen duzuna?**

Ikusi dudan azkena *Los crímenes de Oxford* izan da eta ez zait gustatu. Asko izan ditut gustuko, baina bat esan behar badut *La vida es bella* pelikularen geratzen naiz.

**Parrandan askotan irteten den horietakoa zara?**

Garai batean parranda asko botatakoa naiz, baina orain ia ez naiz irteten. Hala ere, behin irtendakoan, normalean ez dut etxera bueltatzeko presarik izaten.

**Bidaiatzea gustuko duzu?**

Bidaiatzea asko gustatzen zait. Edonora joango nintzateke. Nire ametsetan itsas bidaiak azaltzen ziren. 2006ko udan bat egin nuen Mediterraneoan. Esperientzia oso polita izan zen. Orain Fiordoetara joango nintzateke eta jarraian, Polinesia aldera, deskantsatzera.



**LAN TALDEA** Ubane Madera, Gaizka Vitoria, Jon Berezibar eta Maider Arregi mintzalekuan. GOIENKARIA

**INTERNET** > BLOGAK

# Arrasate Irratiak blog bidez sarean entzungarri ditu eguneroko edukiak

Elkarrizketak, albistegia, saioak eta edukiak entzuteko aukera dago honako helbidean: 'goiena.net/blogak/irratia'

**JON BEREZIBAR** > ARRASATE

Eguneroko saioaren edukiak entzungarri egongo dira aurrerantzean *Goiena.net* webgunean. Bloga estreinatu zuen joan den astelehenean Arrasate Irratiak eta egunero aurki daitezke bertan albistegia, elkarrizketak eta eguneko eguraldi iragarpena. Sarera egindako jauziaren lehen urratsa besterik ez da hori, on-line emititzea gura da-eta epe ertainera. Oraingoz, entzun daitezke azken saioetako albistegia eta makina bat elkarrizketa.

"Entzuleengana gerturatzeko bide berria da", azaldu dute irratiko kideek eta, era berean, "erraztasunak ere ematen ditu blogak entzuleak irratira jotzeko", gehitu dute. Abantaila ere atera diote irratikoek, izan ere "orain saioak beti egongo dira entzuteko moduan eta gure zuzeneko ordutegiarengatik entzun ezin gaituztenek orain badaukate aukera", azpimarratu dute. Oinarrian eguneroko saioa eta programazioaren zein lantaldearen aurkezpena dakar blogak. Asteko zozketak ere jasotzen dira eta baita entzuleek erantzuteko atala ere.

**BLOG IREKIA**

Atal bakoitzak gainera, erantzunak gehitzeko aukera ematen du eta irratiko kideen nahia da bertan eman ahal izatea entzuleek euren kexa, iradokizun zein aipamenak, baina zorion agurrak edota oharrak ere utz daitezke bertan.

Arrasate Irratiak 107.7tik sare zabalera egiten duen lehen urratsa da hau, baina ez da azkena izango. Sare bidez zuzenean emititzen hasiko da aurki *Goiena.net* webgunearen bidez. Oraingoz, atariko azalean aurkituko duzue bloga eguneko edukiekin.

teknologia berriak

> GPS

## Tom Tom GO 930 eta 730 modelo berriek errepide zailen irudikapen zehatzagoa dute

Astelehenean aurkeztu zituen Tom Tom enpresak GO gamako bi modelo berri: 930 eta 730 modeloak.

Errepide korapilatsuetan irudikapen zehatzagoa edo argiagoa izatea da, aparailu berriaren funtzio nabarmenena. Bestela, aurreko modeloekiko ezaugarri antzerakoak ditu: 4,3 hazbeteko pantaila, bluetooth eta FM igorlea.

Apirilean merkaturatuko dituzte: Tom Tom GO 730, 328 eurotan; eta 361 eurotan Tom Tom GO 930 modeloa.




Bi modelo horien mapak grafikoagoak dira eta irudikapen zehatzagoa dute.

> BILTEGIRATZEA

## Acer Altos EasyStore: zure etxeko sarean segurtasun kopiak egiteko aparailu erraza

Acer enpresaren Altos EasyStore modelo berria enpresa txiki, ertain eta etxeentzako bideratuta dago. Produktu berri horrek hiru terabiterainoko biltegiratzea du. Lau disko gogor eta RAID ezberdinak integra daitezke.

Linux, Mac eta Windows sistema eragileekin bateragarria da. Datuen berreskurapena eta datuen babesa pasahitz bidez ezartzeko konfigurazioa, webgune batetik egiten da.

Salneurria: 100 eta 170 euro bitartean.



Serial ATA y SATA I eta II disko gogorrekin bateragarria da.

> SAKELEKOAK

## Samsung G400: ukimen bidezko pantaila bikoitza duen tapadun lehen sakelakoa

Sakelako horrek ukimen bidezko bi pantaila ditu: bat kanpoaldean eta beste bat barrualdean. Kanpoko pantaila ukitzean, bibratu egiten du; pantaila horrek MP3 irakurgailua, kamera, argazki galeria, irratia eta mezuak kontrolatzen ditu.

Autofokus sistema duen bost megapixeleko kamera du, Bluetooth 2.0 eta USB 2.0.

Ekainean merkaturatuko dute Europan, baina salneurria ez dute aditzera eman.




Ukimen bidezko bi pantaila ditu; 2,2 hazbetekoa da bakoitza.

Zure negozioaren erakusleihoa Interneten

www.goiena.net-eko blog komertzialak

www.goiena.net/blogak

/aebpn
/aiastui
/arantxa
/aretxargi
/argi-plastik
/arregi
/atai
/azkarate
/bastida
/briz-aseguruak
/BZ-sistemas
/bolusukaldeak
/denetik
/dragon-oriental
/dukiena
/ego
/eguzkigraf
/ekilore
/ekin
/elejalde
/ezkutuorly
/galgorri
/gallastegi
/ganesha
/garaia
/gertu
/gorkataxi
/gorla
/gurea
/guztizeder
/hamaikataberna
/itxaseder
/irudisport
/ixaun
/izeder
/jcracing
/lamaino-etxeberri
/lorelan
/korozabaleta
/kizkur
/markiegi
/maulanda
/mayte
/merkeopari
/multiopticas
/ohiak
/ogizun
/okipark
/optico
/otzeta
/pando
/perfipar
/puerta-ingles
/richimaier
/tabernaberri
/udalatx
/udalaitz
/urdeki
/ugartearotza
/urbieta
/urko
/vitoria
/zainduz
/ziripot

Goiena.net
Debagoieneko Interneteko ataria

Eta baita ere:
www.aizue.com
www.amgautoak.com
www.baster-aldejatetxea.com
www.ehmff.com
www.gelatzu.com
www.goikobenta.com
www.haurtxoa.com
www.kizkur.com
www.klorofila.com
www.landaluze.com
www.lilura.com
www.toldoslete.com
www.uxarte.net
www.biark.net



## berriak

> 'MUSIKANTOI'

### Golpe de Estado taldeko kideekin elkarrizketa

Oñatiko Golpe de Estado taldeko kideak izango dira datorren astean Goiena Telebistako *Musikantoi* saioan. Punk-rock doinuak jorratzen dituen taldeak orain dela gutxi kaleratu du lehenengo diskoa: *Mi prision* izenekoa, hain justu ere.

*Musikantoi* saioan, Golpe de Estadoko kideekin elkarrizketa egingo dute eta taldekideen eskutik diskoaren gorabeherak ezagutuko ditugu.

> 'ZAHARRAK BERRI'

### Kanpoko zaratek nola eragiten diguten aztertuko dute

*Zaharrak berri* saioa eskainiko dute, eguaztenero bezala, GOITBn, 20:15ean. Aste honetan, asteroko Amaia Diaz de Monasterioguren dietistaren aholkuez eta tertulia tarteaz gain, abokatuaren txokoan zaratak izango dira aztergai. Kanpoko zaratek eta baita bizilagunek sortutakoen aurrean zer egin dezakegun eta legeak zer jasotzen duen azalduko du Arrasateko Bitart abokatu bulegoko Larraitz Ugartek.

> ARRASATE IRRATIA

### Arrasateko auzoak eta auzoetako alkateak ezagutzen

Arrasateko auzoetara gerturatu guran, datorren astean hasita, Arrasateko auzoetako alkateekin berbetan ibiliko dira irratiko lankideak. Helburua da udalerriko auzoetan zein kezka dituzten ikustea, zelako beharrak sortzen diren jakitea eta, oro har, agintaldi honetarako izendatu dituzten auzo alkate berriak eta orain arte jardunean ibili direnak ezagutu eta herritarrei ezagutaraztea.

> ARRASATE IRRATIA

### Astelehenean hauteskundeak eta ostiralean, zozketak

Hauteskunde ostekoa landuko dute astelehenean irratian. Datuak, gertaerak eta iritziak, besteak beste, jakinaraziko dituzte albistegiaren tartean, 10:00etatik 11:00etara.

Horrez gainera, egubakoitzean, asteroko oparien zozketak egingo dituzte. Oraingo honetan, *Inalanbrikak* izeneko antzezlana ikusteko sarrerak zozkatuko dituzte, besteak beste. Parte hartzeko: 943 25 05 05, *goiena.net* edo *irratia@goiena.com*

**'ILUNPEAN'** > EGUBAKOITZA, 22:15

# Edurne Azuara 'Balbemendi' telesaileko bergararra gaur

EITBko 'Hasiberriak' saioan eman zen ezagutzera eta orain 'Balbemendi'-ko protagonista da

**GOIENKARIA** > ARRASATE

Bergarakoa da Edurne Azuara, *Hasiberriak* telesailean ezagun egin zen aktorea. 30 urte ditu, Bilbon bizi da, eta egun EITBko *Balbemendi* telesailean dihardu. Telebistan aritzeaz gain, filmetan ere hartu du parte; hain zuzen ere, *Agujeros en el cielo* filmean aritu zen. Telebistak eta zinemak egin dute ezagun, baina gogoratuko duzue zelan ibili zen GOITBn ogitartekoak egiten erakusten. Oñatin egin zituen Ostalaritza ikasketak, eta ez ditu guztiz alboratu. Nahiz eta aktore lana gustura egiten duen, beste lan batzuekin tartekatzen du.



**EDURNE AZUARA** GOITBko platotik kanpo. IKER BARANDIARAN

**'ERREPORTAJEA'** > ASTELEHENA, 21:47

# BECen dauden Debagoieneko hamabi enpresak eta haien jarduna ezagutzeko aukera

**GOIENKARIA** > ARRASATE

1.761 enpresa daude egunotan Bilboko BECen egiten dabiltzan makina-erreminten azokan; horietatik 12 dira Debagoienetik joandakoak: Bergarako sei, Arrasateko hiru, eta Antzuolako, Elgetako eta Aretxabaletako enpresa bana daude, hain justu. Erakusketa sei sektoretan banatuta dago: makina-erremintak; beste makina batzuk; erremintak; piezak, osagaiak eta hornigaia; ekoizpen-sistematan automatizazio, metrologia eta kalitatekontrola; eta azkenik, zerbitzuak.

Julen Iriondo GOITBko kazetaria BECen izan da, azokaren nondik norakoak bertatik bertara jasotzeko. Hori horrela, Debagoieneko ordezkariekin izan da eta hainbat konturen gaineko iritziak eskatu dizie: ordezkatzen duten enpresaren jardunari buruz –zertan jarduten duten, duten merkatuaz, lehiakortasunaz – eta baita azokari ematen dioten garrantziari buruz ere. Horrez gain, azokara eraman dituzten hainbat makinaren funtzionamendua ere erakutsiko dute erreportajean. Hitzordua, bada, astelehenean izango da, 21:47an.

## telebegi

**Edu Mendibil**

### 'Pressing Catch' motela

Harrigarria Zapateroren (*Vota con todas tus fuerzas* leloa ez da eskatologiko samarra?) eta Rajoyren (*Con cabezón y coraza*) ditxosozko debateak izan duen audientzia: 13 milioi *El Debate Part Two* delakoan.

Harrigarriagoa oraindik zer-nolako aurre eta *post* debateak izan ditugun. Analistoek bi hautagaien keinurik hutsalena ere aztertu dute, baina debateak aspergarriak izan dira, bizitasun gutxikoak, etengabe entzundako argumentuekin. 50 baldintza adostu omen dituzte alde bateko eta besteko aholkulariek (haien ikasgaia buruz ikastera mugatzen diren ikastunak dira hautagaiak?): 21 graduko tenperatura estudioan, aulkiak ez dakit zelakoak, kronometratzaile ofizialak eta Campo Vidal eta Olga Viza zeremonia-maisu mutu gisa (noizean behin ikasleei isiltzeko agintzeko, besterik ez).

Bai, inprobisaziorako tarterik ez. Zera falta izan da: poligrafoaren erabilera, buruko *eskanerra* aurkariaz benetan zer pentsatzen duten jakiteko, lo geratu diren ikusleen kopurua ezagutzea eta, azkenik, dopinaren aurkako kontrola eta House doktorearen diagnostikoa, ZP eta Rajoy tipo fidagarriak diren jakiteko.

## arrasate irratia

**FM 107.7**

**Zapatua**

**10:00** Asteko gainbegiratua.
Xabier Silveira bertsolaria, *Ilunpean* saioan; hirugarren adinekoen gainekoak (dieta, tertulia...) *Zaharrak berri* saioan, eta sexologia kontuak, besteak beste.

**Domeka**

**10:00** Asteko gainbegiratua.

**Astelehenetik egubakoitzera**

**10:00-12:00** Igo Autobusera
Albistegia
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)
Ilunpean
Teknoberriak
Igo Euriborrera!
Kantaka
Zaharrak Berri
Astearen errepasoa
Zozketak
Zorion agurrak (parte hartzeko: 943 25 05 05 (*irratia@goiena.com, goiena.net*)
**11:55** Arrasateko albisteak, labur.
**12:05** Euskadi Irratiko albistegia
**12:10** Izarren ordua: abesti ezagunak
**13:00** Euskadi Irratiko albistegia.
**14:00** Igo Autobusera! (errep.)
**17:00, 19:00, 21:00, 23:00** albistegi laburra.

## GOITBko programazioa

**Egubakoitza,7**

**13:15**Emisio hasiera. **13:20**Marrazki bizidunak: Calimero. **13:45**Gaurkoak. **13:47**Kantari. **14:15** Animalia. **14:45**Albiste aurrerapena. **15:15**Berbaire. **15:45** Gaurkoak. **15:47**Musikantoi. **16:15** Ur eta lur. **16:45** Albisteak. **17:15** Calimero. **17:45**Gaurkoak. **17:47**Ilunpean. **18:15**Hitz bitan. **18:45**Albisteak. **19:15**Ikusmira. **19:45**Berriak. **20:15** Marrazki bizidunak: Calimero. **20:45** Berriak. **21:15**Erreportajea. **21:45**Gaurkoak. **21:47**Gertutik. **22:15**Ilunpean. **22:45**Berriak. **23:15**Musikantoi. **22:45**Gaurkoak. **23:30**Klip 28. **00:15**Emisio amaiera.

**Zapatua, 8**

**08:00**Emisio hasiera **08:05**Marrazki bizidunak: Horry, Calimero eta Trikitraka trikitron. **11:00** Ikusmira. **11:30**Ikusten. **12:00** Astekoak. **12:15**Klip. **12:30** Gertutik **13:00** Eltze beroa **13:30** Erreportajea. **14:00**Berbaire. **14:30**Errepor-ttipi ttapa. **15:00** Kantari. **16:00** Marrazki bizidunak. **19:00**Hitz bitan. **19:30**Klip@. **20:00**Ur eta lur. **20:30**Berbaire. **21:00**Euskal artzainak. **21:30**Ilunpean. **22:00**Gu ta gutarrak. **23:30**Musikantoi. **00:00** Emisio amaiera.

**Domeka, 9**

**08:00** Emisio hasiera. **08:05** Marrazki bizidunak: Calimero, Horry eta Trikitraka trikitron. **11:00**Kantari. **12:00**Ur eta lur. **12:30**Berbaire. **13:00**Euskal artazainak. **13:30**Jazmina. **14:00**Gu ta gutarrak. **15:30**Erreportajea. **14:00**Ilunpean. **14:30**Errepor ttipi ttapa. **15:00**Ur eta lur. **15:30**Eltze beroa. **16:00**Gertutik. **16:30**Marrazki bizidunak. **19:00**Jazz gauak. **19:30**Eltze beroa. **20:00** Ur eta lur **20:30** Erreportajea ttipì ttapa. **21:00** Ikusten. **21:30**Animalia. **22:00** Astekoak. **22:15** Gertutik. **22:45**Erreportajea. **23:15** Teknopolis. **23:45**Ilunpean. **00:15** Musikantoi. **00:30**Emisio amaiera

**Astelehena, 10**

**13:15**Emisio hasiera. **13:20**Marrazki bizidunak: Calimero. **13:45**Gaurkoak. **13:47**Erreportajea-Ttipi TTapa. **14:15**Eltze beroa. **14:45**Berriak. **15:15**Ilunpean **15:45** Gaurkoak. **15:47** Berbaire. **16:15**Berbaire. **16:45** Berriak. **17:15** Calimero. **17:45**Gaurkoak. **17:47**Ikusmira. 1**8:15**Ikusten. **18:45**Berriak. **19:15** Gertutik. **19:45**Berriak. **20:15** Marrazki bizidunak: Calimero. **20:45** Berriak. **21:15**Harmaillatik. **21:45**Gaurkoak. **21:47** Erreportajea. **22:15** Kirolari. **22:45**Berriak. **23:15**Harmaillatik. **22:45**Gaurkoak. **23:30**28 Klipa. **00:15**Emisio amaiera.

**Martitzena, 11**

**13:15**Emisio hasiera. **13:20**Marrazki bizidunak: Horry. **13:45**Gaurkoak. **13:47**Erreportajea. **14:15** Harmaillatik. **14:45**Berriak. **15:15**Gertutik. **15:45** Gaurkoak. **15:47** Kirolari. **16:15**Eltze beroa **16:45**Berriak. **17:15** Horry. **17:45**Gaurkoak. **17:47** 28 Klipa .**18:15**Musikantoi. **18:45**Berriak. **19:15** Marrazki bizidunak: Horry. **19:45**Berriak. **20:15** Kantari **20:45** Berriak. **21:15**Teknopolis. **21:45**Gaurkoak. **21:47** Berbaire **22:15**Animaliak. **22:45**Berriak. **23:15**Ikusmira. **22:45**Gaurkoak. **23:30**Erreportajea. **00:15**Emisio amaiera.

**Eguaztena, 12**

**13:15**Emisio hasiera. **13:20**Marrazki bizidunak: Calimero. **13:45**Gaurkoak. **13:47** Kantari. **14:15**Eltze berioa. **14:45**Berriak. **15:15**Berbaire. **15:45** Gaurkoak. **15:47**Animaliak. **16:15** Teknopolis. **16:45** Berriak. **17:15** Calimero. **17:45**Gaurkoak. **17:47**Gertutik. 1**8:15**Harmailatik. **18:45**Berriak. **19:15** Marrazki bizidunak. **19:45**Berriak. **20:15** Zaharrak berri. . **20:45** Berriak. **21:15** Ikusten. **21:45**Gaurkoak. **21:47**Euskal artzainak. **22:15**Ur eta lur. **22:45**Berriak. **23:15** Teknopolis. **23:45** Gaurkoak **23:47**Jazmina. **00:15**Emisio amaiera

**Eguena, 13**

**13:15**Emisio hasiera. **13:20**Zaharrak berri. **13:45**Gaurkoak. **13:47** Marazki bizidunak. **14:15**Euskal artzainak. **14:45**Berriak. **15:15**Berbaire. **15:45** Gaurkoak. **15:47**Animalia. **16:17**Teknopolis. **16:45** Berriak. **17:15** Horry. **17:45**Gaurkoak. **17:47**Gertutik. 1**8:15**Harmailatik. **18:45**Berriak. **19:15** Marrazkiak. **19:45**Berriak. **20:15** Kantari. **20:45** Berriak. **21:15**Erreportajea. **21:45**Gaurkoak. **21:47**Berbaire. **22:15**Musikantoi. **22:45**Berriak. **23:15**Ikusten. **22:45**Gaurkoak. **23:30**Ilunpean. **00:15**Emisio amaiera







Prezio baliagarria Penintsulan eta Balear uharteetan Captiva 2.4 LS bertsioarentzako (BEZa, matrikulazio zerga, garraioa eta promozioa barne). Eskaintza baliagarria hilabete bukaera arte. Kontsumo mistoa (l/100km): 7,2-11,5. CO2 emisioa (g/km): 191-264. Eta 5 urteko bermea: 3 urteko kontratu-bermea (3 urtekoa edo 100.000 kilometrokoa; kilometroen muga ez da lehen bi urteetan aplikatuko. 23/2003 Bermeen Legearen arabera) eta horri 2 urte gehitu behar zaizkio, Chevrolet 5 Zerbitzuak eskaintzen dizkizun kontratuaren baldintzekin.

# Martxoak 6-12

LEIRE KORTABARRIA
Zuon ekitaldien berri iragartzeko, bidali informazioa eguazteneko eguerdia baino lehen.
Posta elektronikoa: kultura@goiena.com
Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12

### Kontzertua



ARETXABALETA

**> Des-Kontrol, gaur, eta Governors zapatuan, Haizea tabernan**

Aretxabaletako Haizea tabernak musika emanaldien aldeko apustuarekin jarraitzen du. Gaur, 22:30ean Des-Kontrol taldeak egingo du kontzertua, eta bihar, zapatua Governors (23:00) taldeak hartuko du errelebua.

### Kontzertua



OÑATI

**> Oñatiko Gaztelekuan, The Wooggles eta Las Membranas taldeak bihar**

The Wooggles taldea Athens-etik (Georgia) dator, –REM taldea ere hangoa zen–, eta apartak dira 60ko bluesa eta soula egiten. Las Membranas, berriz, Alacantetik dator, fuzz estiloaren jarraitzaile sutsuak dira. (Zapatua, 22:00etan).

### Kontzertua



ARRASATE

**> Gaur, egubakoitza, Sunnpimp eta Los Cretinos 3.60 aretoan (23:00)**

Punk-rocka egiten duen Amsterdameko taldea da Sunnpimp, eta Arrasateko Los Cretinos rock-and-roll zaleekin partekatuko dute taula. Sunnpimp-ek AC/DC edo The Stooges taldeen eraginak euren estilora moldatzen dituzte.

## Musika

BERGARA

**> AIN_1 musika talde berriaren kontzertua Bergaran, domekan**

AIN_1 musika taldea berria da. Bost neskak osatu dute, eta musika, poesia, dantza eta marrazkiak elkartzen dituzte ekitaldietan. Bergarako kontzertua domekan izango da, baina, zapatuan, Emakumeen Nazioarteko Eguna dela-eta Arrasaten egingo duten kale agerraldiaren ostean ere joko dute.

Domekan, 18:00etan, Aroztegi aretoan.

BERGARA

**> Gabero abesbatzaren, Orfeoi Txikiaren eta Orfeoi Txikitxoaren kontzertua, gaur**

Aitor Biainek zuzentzen dituen hiru taldeek kontzertua egingo dute Mariaren Lagundiko elizan.

Egubakoitzean, Mariaren Lagundiko elizan, 19:30ean.

BERGARA

**> Bergarako Orfeoiaren kontzertua, domekan**

Bergarako Mariaren Lagundiko elizan egingo du kontzertua Orfeoiak.

Domekan, Mariaren Lagundiko elizan, 19:30ean.

BERGARA

**> Bergarako Udal Musika Bandaren kontzertua, domekan**

Udal Musika Bandak Udal pilotalekuan egingo du hileroko kontzertua.

Domeka, Udan pilotalekuan, 12:30ean.

ESKORIATZA

**> 'Sweet Rockers' taldearen kontzertua**

Aramaioko neska talde batek osatutako rock taldearen emanaldia izango da bihar Eskoriatzan.

Bihar, zapatua, Inkernun, 22:30ean.

BERGARA

**> DJ gaua Ziripot tabernan, bai egubakoitzean eta baita zapatuan ere**

Oraingo asteburuan DJ gaua egongo da Ziripoten. Gaur, egubakoitza, Koldo Intermusic eta Mitximal DJak izango dira. Bihar, zapatua, DJ Papi arduratuko da gaua girotzeaz.

Gaur eta bihar, 23:00etan.

OÑATI

**> V. Oñatiko Bertso Txapelketako bigarren saioa egingo dute bihar, zapatua**

Oñatiko Bertso Eskolak antolatuta txapelketa hasi zuten aurreko astean, eta bihar egingo dute bigarren kanporaketa, Pako tabernan, 18:00etan. Joseba Igartua, Xabier Pascual, Julen Romaratezabala, Mikel Kortabarria, Gorka Larrea eta Iñaki Olalde bertsolariek hartuko dute parte.

Bihar, zapatua, Pako tabernan, 18:00etan.

ARAMAIO

**> Ikuskizuna taldearen dantza eta musika emanaldia**

Ikuskizuna taldeak *Geroago* dantza eta musika emanaldia egingo du zapatuan. Ikuskizuna taldea zortzi pertsonak osatzen dute. Koreografo, musikari, dantzari eta dekoratzaileak daude tartean. Hala, *Geroago* antzezlanak hainbat gauza konbinatzen ditu: gorputzaren adierazkortasuna eta imajinazioa, besteak beste.

Bihar, zapatua, kultura etxean, 20:30.

## Antzerkia

ARRASATE

**> 'Eta guztiak arduratzen bagara' kale antzerkia Kontukantoi taldearen eskutik**

Bihar, zapatua, egingo dute kale antzerki hori, Arrasateko kaleetan barrena. Emanaldiak gizonen eta emakumeen rolak utziko ditu agerian.

Zapatua, Arrasateko kaleetan, 12:00etan.

BERGARA

**> Helduendako ipuin kontaketa**

*Izan ala ez izan, niri horrela kontatu zidan* helduendako ipuin kontaketa egingo du bihar, Ixabel Agirresarobe kontalariak.

Bihar, zapatua, Bergarako Aroztegi aretoan, 19:00etan.

BERGARA

**> 'Ay que los cuentos se me salen de la boca' ipuin kontaketa**

Mercedes Carrion ipuin kontalariak Oihulari Klown-ek antolatzen duen ipuin zirkuituan hartuko du esku. Hala, Pol-Pol tabernan egingo du ipuin kontaketa, eguenean.

Eguenean, hilak 13, Pol-Polen, 22:30.

PROPOSAMENA

OÑATI

### > Alzheimer gaitzaren inguruko antzezlana egingo dute domekan

Amamaren memoria ahultzen dabil. Alabaren etxera doa bizi izatera, denon artean oroimena berreskuratzen saiatuko dira, gaitzak gehiagora ez egiteko. Hori da Pok Produkzioak taldeak bihar, zapatua, egingo duen *Amamaren memoria* delako antzezlaneko haria; Alzheimer gaitzaren inguruko gogoeta, alegia. Antzezlanean daude Mikel Laskurain eta Kepa Errasti debagoiendarrak.

Bihar, zapatua, Oñatiko Santa Ana antzokian, 22:30ean.



LEINTZ GATZAGA

**> 'Zai beti zai' antzezlana eskainiko du Oihulari Klownek**

Martxoaren 14an, egubakoitza, Virginia Imazek egin eta zuzendu duen *Zai beti zai* antzezlana egingo dute Oihulari Klowneko pailazoek Leintz Gatzagan. Hainbat emakumek jasotako heziketa afektiboaren gaineko parodia egiten dute lan horretan.

Martxoaren 14an, 19:00etan, kultura etxean.

ANTZUOLA

**> 'Los cuentos de la bruja arruguitas' ipuin kontaketa**

Mercedes Carrion ipuin kontalariak Antzuolan egongo da datorren egubakoitzean, hilak 14. Ipuin kontaketa hori Antzuolako ikastetxean egingo du, gaztetxoei zuzendutakoa da-eta.

Egubakoitzean, hilak 14, Antzuolako ikastetxean, 11:00.

## Erakusketak

ESKORIATZA

**> 'Hondakinak: amesgaiztorik ez!' delako erakusketa dago**

Mankomunitateak antolatuta, hondakinen, beroien kudeaketaren eta gaur egungo egoeraren inguruko erakusketa dago. Helburua da jendeari hausnarketa eragitea, gaur egungo ohiturak eta egoera aldatzeko daukagun aukeraz ohartarazteko. Ibarraundi museoan dago.

Martitzenetik egubakoitzera: 09:00-14:00 eta 17:00-19:00; zapatuan, 17:00-20:00; eta domekan, 12:00-14:00 eta 17:00-20:00.

BERGARA

**> Celedonio Otañoren (1912-2003) erakusketa, Aroztegin**

Karikaturak, oliozko margoak, grabatuak eta kolonaurreko zeramikak. Bizitza ibiltaria izan zuen Bergaran hilobiratuta dagoen artistak. Otañoren erakusketa osatuena da Bergaran ikusgai dagoena.

Bisita ordutegia: Astelehenetik ostiralera 18:00etatik 20:30era. Zapatuetan 12:00etatik 14:00etara, eta 18:00etatik 20:30era. Domeketan 12:00etatik 14:00etara. Aroztegi aretoan.

BERGARA

**> Kute Erdabideren margolanak daude Nahikari tabernan**

Kute Erdabidek 14 lan ipini ditu erakusgai Nahikari tabernan. Akuarelak dira, eta Euskal Herriko txokoak hartu ditu gaitzat. Ricardo Azkargortarekin dihardu ikasten. Beart Bergarako arte elkartearekin hainbat taldeko erakusketatan parte hartu du, eta honakoa da bere lehenengo bakarkako erakusketa.

Masterreka kaleko Nahikari tabernan.

ELGETA

**> Elgetako emakumeen argazki erakusketa**

Gaurtik hasi eta martxoaren 26ra arte egongo da Elgetako emakumeek egindako argazki erakusketa zabalik.

Espaloia Kafe Antzokian dago erakusketa.

ELGETA

**> Emili Cadiñanosen eskulanak ikusteko aukera dago**

Emili Cadiñanosek eskulan erakusketa ikusgai dago Espaloia kafe antzokian.

Hil osoan egongo da erakusketa bisitatzeko aukera.

BERGARA

**> Diego Osuna bergarararren erakusketa ikusteko aukera**

Diego Osuna Hurtado margolari bergarararrak erakusketan ipini ditu hainbat lan. Kultura etxean dago beroiek ikusteko modua, astegunetan, 18:00-21:00, eta zapatuan, 12:00-14:00 ordutegian.

Martxoaren 8ra arte dago zabalik.

# Lehiaketak

BERGARA

**> Mendekoste lehiaketako kartel lehiaketa abian**

Bergarako Mendekoste jaiak laster iritsiko dira. Hala, jaietako programaren azala egiteko lehiaketa martxan jarri du kultura zerbitzuak. Kartelak Bergarako kultura etxean aurkeztu beharko dira, apirilaren 7ko 13:00ak baino lehen. Lehiaketa honetan Bergaran bizi edo erroldatutako edozein pertsonak har dezake parte.

Lanak aurkezteko epea, apirilak 7.

# Bestelakoak

ARRASATE

**> Sexologia tailerrak Arrasateko gaztetxoendako**

Larraitz Arando sexologa Arrasateko gazte txoko ezberdinetatik pasako da sexologia tailerrak ematera. Aste barruan Musakolan eta Erguinen egon da, eta gaur, egubakoitza, San Andresko Gazte Txokoan izango da.

Gaur, egubakoitza, 18:00etan.

ARRASATE

**> Martxoaren 8ko ospakizunak**

Emakume Langileàren Nazioarteko Egunean hainbat ekitaldi antolatu dituzte. Horien artean, 10:00etan emakumeen azoka Seber Altuben; 12:00etan kale antzerkia eta margolariak. 17:00etan umeendako jolas ez sexistak, eta 19:00etan kale agerraldia.

# Ikastaroak

ARRASATE

**> Baratze ekologikoari buruzko ikastaroa**

Bedoña Batu elkarteak antolatuta. Izena emateko: 630 05 91 98 telefonora, hilaren 13a baino lehen

Martxoak 15, zapatua.

# Zinema




## La guerra de Charlie Wilson ***

**Zuzendaria:** Mike Nichols.
**Aktoreak:** Tom Hanks, Julia Roberts, Philip Seymour Hoffman.
AEB, 2007.
97 min. 13 urtetik gorakoendako.

Badakit, hauteskundekanpaina bukaeran gaudenean, eta asko aspertuta gaudenean egun osoan komunikabideetan politikarien aurpegiak ikusten, zinemako karteldegian *La Guerra de Charlie Wilson* ikusterakoan eta filmaren gaia politika dela jakiterakoan, again, ikusleak beste film bat aukeratuko duela.

Dena den, Mike Ncholsen filma ikustera hurbiltzen den ikusleak ondo pasatzeko aukera izango du. *La guera de Charlie Wilson* 80ko hamarkadako Ameriketako Estatu Batuetako politikari buruzko komedia ironikoa, laburra eta dibertigarria baita.

Charlie Wilson 80ko hamarkadan partidu demokrataren kongresista zen. Alkohola, drogak eta parranda egitea oso gustuko zuen arren, Pakistaneko errefuxiatu afganiarren kanpamentuak eta, batez ere, hango haur elbarriak ikusterakoan, ahaleginak egingo ditu AEBko gobernuak afganiarrei armak erosteko —Sobiertar Errepublika Sozialisten Batasunaren inbasio erasoei aurre egiteko— ematen dien diru laguntza eskasa miloi askotan gehitzeko.

Eta prozesu honen kontaketa egiteko komedia tonona erabiltzen du zuzendariak. Hiru pertsonaia nahiko bitxiak: Wilson; Joanne Herring, milioi piloa duen emakume komunisten aurkako apetatsua; eta Gust Avrakotos, CIAko gizon erantzunkorra hain zuzen ere, eta horiek dituzten kontaktuak eta erabiltzen dituzten trikimailuak izango dira konplot politiko horren eragileak.

*La guerra de Charlie Wilson*-en esaten denez, politikariak aurretik sumatu ezin diren erabakiak hartzen dituzten gizakiak dira, eta azkenean denbora da portaera eta hartutako erabakien egokitasunaren epailea.

Antonio Zabala

### ARAMAIO
**KULTURA ETXEA**

**Beethoven 2**
Domeka: 17:00.

### ARRASATE
**AMAIA ANTZOKIA**

**Expiación: mas allá de la pasión**
Zapatua: 19:30 eta 22:00.
Domeka: 19:30.
Astelehena: 20:30.

**Mimzy: mas allá de la imaginación**
Domeka: 17:00.
(Haurrendako zinea)

### BERGARA
**AGORROSIN**

**Malabar Printzea**
Zapatua eta domeka: 16:30, 19:30.

**GAZTETXEA**

**Mataharis**
Domeka: 18:00.

### ELGETA
**ESPALOIA ANTZOKIA**

**Supertramps**
Domeka: 17:30.

**El amigo Americano**
Eguaztena: 21:30.

### OÑATI
**KULTURA ETXEA**

**Los crimenes de Oxford**
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

**Hiru mosketariak (euskaraz)**
Zapatua: 17:00.
Domeka: 17:00.

### EIBAR
**UNZAGA**

**10.000**
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena, martitzena eta eguaztena: 19:30, 22:15.

### GASTEIZ
**GURIDI**

**10.000**
Egubakoitzetik domekara: 17:00, 19:45, 22:20.
Astelehenetik eguenera: 18:00, 20:15, 22:30.

**En el punto de mira**
Egubakoitzetik domekara: 17:00, 18:45, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 18:00, 22:30.

**El último justo**
Egubakoitzetik domekara: 20:30.
Astelehenetik eguenera: 20:15.

**Mi monstruo y yo**
Egubakoitzetik domekara: 17:00, 19:45, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 18:00, 20:15, 22:30.

**Enfrentados**
Egubakoitzetik domekara: 17:00, 19:45, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 18:00, 20:15, 22:30.

**Los reyes del artico (euskeraz)**
Egubakoitzetik domekara: 17:00, 18:45, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 18:00, 20:15.

**No es pais para viejos**
Egubakoitzetik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 18:00, 20:15, 22:30.

**Buda exploto de verguenza**
Egubakoitzetik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 18:00, 20:15, 22:30.

**Sweeney Todd**
Egubakoitzetik eguenera: 22:30.
Astelehenetik eguenera: 18:00, 20:15.

**FLORIDA-GURIDI**

**27 vestidos**
Egubakoitzetik domekara: 17:00, 19:45, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 18:00, 20:15, 22:30.

**Juno**
Egubakoitzetik eguenera: 18:00, 20:15, 22:30

**Cometas en el cielo**
Egubakoitzetik domekara: 17:30, 20:00, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 18:00, 20:15, 22:30.

**En un mundo libre**
Egubakoitzetik domekara 18:40.
Astelehenetik eguenera: 20:15.

**Pozos de ambición**
Egubakoitza eta zapatua: 16:30, 19:30, 22:30.
Domeka: 17:00, 20:00.
Astelehenetik eguenera: 18:00, 21:00.

**Asterix en los JJOO**
Zapatua eta domeka: 16:30.

**Paisajes transformados**
Egubakoitza: 17:20, 20:00, 22:30.
Zapatu eta domeka: 18:45, 20:30, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 18:00, 22:30.

**Lo mejor de mi**
Egubakoitzetik domekara: 17:00, 20:30, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 18:00, 20:15, 22:30.

**Los perros dormidos mienten**
Egubakoitzetik eguenera: 18:00, 20:15, 22:30.

**YELMO CINEPLEX-GORBEIA**

**10.000**
12:15, 15:45, 16:45, 18:00, 19:00, 17:45, 20:15, 21:15, 22:30.

**Enfrentados**
12:15, 16:00, 18:10, 20:20, 22:30.

**Mi monstruo y yo**
12:15, 15:45, 17:55, 20:05.

**En el punto de mira**
12:15, 16:30, 18:30, 20:30, 22:30.

**Las hermanas Bolena**
12:15, 15:20, 17:45, 20:00, 22:15.

**Jumper**
12:15, 16:00, 18:00, 20:00, 21:00, 22:00, 23:00.

**No es pais para viejos**
12:15, 15:35, 17:50, 20:05, 22:25.

**27 vestidos**
12:15, 16:05, 18:15, 20:25, 22:35.

**Franklin**
12:15, 16:25, 18:25.

**Rise: Cazadora de Sangre**
20:25.

**Los crimenes de Oxford**
22:15.

**Ahora o nunca**
12:15, 16:15, 18:15.

**Juno**
20:15, 22:15.

**Asterix en los JJOO**
12:15, 15:40, 17:55, 20:10.

**Waz**
22:25.

**Mortadelo y Filemon**
12:15, 16:10, 18:10.

**La guerra de Charlie Wilson**
20:10, 22:10

**Alvin y las ardillas**
12:15, 16:45, 18:45.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan.
Eguerdiko saioak, domekan.
Astelehena, ikuslearen eguna (jaiegunak izan ezik).

**ÁBACO BOULEVARD**

**10.000**
15:50, 17:30, 18:10, 20:00, 20:30, 22:20, 22:45, 01:00.

**Mi monstruo y yo**
17:00, 19:30, 22:00, 00:30.

**En el punto de mira**
16:30, 17:00, 18:30, 19:00, 20:30, 22:00, 22:30.

**27 vestidos**
15:50, 18:10, 20:30, 22:45, 01:00.

**Las hermanas Bolena**
17:00, 19:30, 22:15, 00:45.

**El ultimo justo**
16:00.

**La guerra de Charlie Wilson**
18:05, 20:20, 22:30, 00:45.

**Jumper**
16:15, 18:15, 20:15, 22:30.

**Sweeny Todd: el barbero diabolico**
20:20, 22:45, 01:00.

**Asterix en los juegos**
16:15, 19:00.

**No es país para viejos**
16:30, 19:15, 22:15. 00:45.

**Mortadelo y Filemon**
16:00, 18:10.

**Los crimenes de Oxford**
22:15.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan.
Eguerdiko saioak, domekan.
Eguaztena, ikuslearen eguna.

Eskasa:* Balekoa:** Ona: *** Oso ona:**** Bikaina:*****

**Sweeney Todd** ****
AEB, 2006. Zuzendaria: Tim Burton. Aktoreak: Johnny Depp, Helena Bonham-Carter.
116 min. 13 urtetik gorakoendako.
Benjamin Barker kartzelara eramaten dute modu bidegabean. 15 urte eta gero, bizargin moduan bueltatzen da, mendekua hartzeko asmoz.

**Rise**
AEB, 2007. Zuzendaria: Sebastián Gutiérrez. Aktoreak: Lucy Liu, Michael Chiklis, Carla Gugino.
122 min. 18 urtetik gorakoendako.
Sadie izeneko kazetari bat Los Angelesko gazteak erakartzen dabilen sekta bat ikertzen dabil. Gazte asko hilda agertzen dabiltza, eta kazetaria bera ere hil egiten dute. Baina ez hilda ez bizirik dagoela konturatuko da, eta bizirik irauteko odola behar duela...

**Ahora o nunca**
AEB, 2007. Zuzendaria: Rob Reiner. Aktoreak: Jack Nicholson, Morgan Freeman, Sean Hayes.
97 min. 13 urtetik gorakoendako.
Carter Chambers filosofia irakasle ohiak aspaldiko ametsak bertan behera utzita ditu.

**Las hermanas Bolena**
Erresuma Batua-AEB, 2007. Zuzendaria: Justin Chadwick. Aktoreak: Natalie Portman, Scarlett Johansson, Eric Bana.
115 min. 18 urtetik gorakoendako.
Bolena ahizpak, Ana eta Maria, euren familiaren askoguraren biktima dira, eta euren artean lehiatuko dira Enrique VIII.a erregearengatik.

**Pozos de ambición**
AEB, 2007. Zuzendaria: Paul Thomas Anderson. Aktoreak: Daniel Day Lewis, Paul Dano.
158 min. 13 urtetik gorakoendako.
Plainview-k, isilpeko informazio bati esker, mendebaldeko herrixka baten petrolio-itsaso bat deskubriten du, eta H.W. semearekin joango da Little Boston-era zorte bila. Han, Eli Sunday apaizaren Mendekoste Eliza dago.

**La guerra de Charlie Wilson**
AEB, 2007. Zuzendaria: Mike Nichols. Aktoreak: Tom Hanks, Julia Roberts.
97 min. 13 urtetik gorakoendako.
Charlie Wilson AEBetako Kongresuko kidea afganiar gerlariei laguntzen hasten da Sovietar Batasunaren inbasio garaian.

**4 meses, 3 semanas, 2 días** ****
Errumania, 2007. Zuzendaria: Cristian Mungiu. Aktoreak: Ion Sapdaru, Anamaria Marinca.
91 min. 18 urtetik gorakoendako.
Otilia eta Gabita Errumaniako unibertsitate baten ikaskideak dira, komunismoaren azken urteetan.

**Juno** ***
AEB, 2007. Zuzendaria: Jason Reitman. Aktoreak: Jennifer Garner, J.K. Simmons.
92 min. 13 urtetik gorakoendako.
Juno nerabeak bere buruari ezarritako arauak bakarrik jarraitzen ditu. Halako baten, haurdun geratuko da.

## nire aukera



Maider Arregi
'Musikantoi' saioko aurkezlea
Oñati

## "Zapatuko poteoa oso gustuko dut "

Aste bukaerako une politena zapatu arratsaldeko poteotxoa da. Ondoren, kontzerturen bat ikusi edota parranda egitea lagunekin. Domekan, giro onarekin Arantzazura, baserrira, joaten naiz haize freskoa hartzera. Biharamuna izanez gero domeka osoa ohean egotea ere asko gustatzen zait astelehena indarrez asteko. Lagunekin aste bukaera osoko planak ere egiten ditut. Esaterako, Luz Ardidenen eskiatzen izan gara duela gutxi lagun koadrila. Ipurdiko ederrak hartuta itzuli ginen baina ederki pasa genuen; egun osoa barrezka.

**Ze irizpideren arabera erabakitzen dituzue GOITBko *Musikantoi* saioko taldeak?**
Debagoieneko musika taldeek egiten duten lana gertutik jarraitzen dugu. Ibarreko taldeak bultzatu nahi ditugu.

**Asteburuetan musika asko entzuten duzu zuzenean?**
Bai. Asko gustatzen zaizkit zuzenekoak eta gitarra hotsen zirrara barrenean sentitzea. Taldeek daukaten maila zuzenekoetan ikusten da.

**Zuzenekoa ez bada, noiz eta ze aparailurekin entzuten duzu musika?**
MP3an kargatzen ditut abestiak. Lastfm Irratia ere asko entzuten dut Interneten.

**Ze estilo duzu gustuko?**
Asko! Rocka, punka, indie, alternatiboa, soula, elektronikoa eta azken aldian grunge eta garage estiloak.

**Azkenaldian gehien harritu zaituen musika taldea?**
Zuzenean harritu eta txunditu nautenak: The Hot Dogs, Aby-Kem edota Sex Museum. Youtuben ezagutu ditudanen artean, berriz, Amy Winehouse edota MIA bakarlariak.

**Ze musika talde ikusiko zenuke gustura zuzenean?**
PJ Harvey eta Iggy Pop dira ikusteko desiatzen nagoen bi bakarlariak. Ea Euskal Herrira laster etortzen diren!

Goienkaria
EGOITZA NAGUSIA
Barrenkalea 33, 20570 BERGARA
Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12 • Posta-e: goienkaria@goiena.com
**Harpidetza:** 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com
2008-03-07

# Egurra mozteko asmakizuna

**BIZKALATZA BASERRIA** Jesus Etxeberria Bizkalatza baserrian jaiotakoa da; han ibiltzen da egurretan

**EGITURA SEGURUA** Egurra mozteko egitura bat asmatu du Etxeberriak; samurra eta segurua dela dio

**PATENTEA** Asmakizuna patentatu egin du; hori horrela, feria batzuetan ibiltzen da aparailua saltzen

**I.A./A.E.** > ANTZUOLA

Betidanik gustatu izan zaio Bizkalatza baserriko Jesus Etxeberriari gauzak asmatzen ibiltzea. Hala, azkenaldian, egurra mozteko aparailu bat asmatu du; mozteko baino gehiago, samur eta seguru mozteko balio du Etxeberriak asmatutakoak. Izan ere, Etxeberriaren asmakizuna egurrari eusteko egitura bat da.

**BEHARRAK BULTZATUTA**

Egurra mozteko egitura asmatzea nola bururatu zitzaion galdetuta, Etxeberriak hauxe dio: "Beharrak bultzatuta asmatu nuen; orain urte batzuk sua egiteko hiru kamioikada egur jaso genituen. Egur mordoa zen eta haiek mozten nahikoa lan izan genuen anaiak eta biok", dio Etxeberriak.

Hala, egitura seguru bat asmatzen hasi zen antzuolarra. "Betidanik gustatu izan zait soldatzea; poliki-poliki, gauza ezberdinak probatu eta gaur egun dudan aparailua asmatu nuen", esan du Etxeberriak. Egitura berri horrekin, egurra mozteko modu erraz eta segurua lortu du Etxeberriak. "Motozerrarekin egurraren azkeneko zatia moztea zaila izaten da; egitura horrek egurra modu seguruan moztea ahalbidetzen du", gaineratu du. Egitura horren gainean egurra pilan jartzen da eta kate baten laguntzarekin lotu egiten dira. Modu horretan, egurra ez da mugitzen eta samurrago eta seguruago moztu daiteke.

Lehen, Etxeberriak berak soldatzen zituen egituraren pieza ezberdinak; baina orain, galdarategi batek bidaltzen dizkio piezak gertatuta eta hark pieza ezberdinak torlojuz lotu behar izaten ditu.

**PATENTATUTA DAUKA**

Asmakizuna patentatuta dauka Etxeberriak: "Onena hori egitea zela esan zidaten", dio. Hala, ferietan saltzen du asmakizuna: "Gustura nago jasotako erantzunarekin, eta baita jendea ere. Inor ez da kexatu oraingoz!", dio Etxeberriak. 120 eurotan saltzen du egurra mozteko aparailua.



**BASERRIAN** Jesus Etxeberria baserri aurrean egurra mozten. IRATI AGIRREAZALDEGI

## ahobero

### "Azken bi hilabeteak Realak historia hurbilean bizi izan dituen onenak izan dira"

**Iñaki Badiola** >
Realeko presidentea

*60 egun eta gau bakar bat ere ez* izendatu du Badiolak bere Realeko ibilbidea. Haren berbetan, Realzaleek ilusioa berreskuratu dute. Ilusioa izatea beharrezkoa da, baina ikusiko dugu denboraldi amaieran ea zenbat egun eta zenbat gau izan diren.

## iturri onetik

### Txantxiku ikastolak maiatzaren 16an eta 17an ospatuko du ikastolako eguna

Urtero moduan, Oñatiko Txantxiku ikastolak maiatzaren 16an eta 17an ospatuko du ikastolako eguna. Ikastolako txikienei zuzendutako egunak izango dira, batez ere.

Egubakoitzean, ikastolako haurrek egindako antzerkia ikusteko aukera egongo da. Zapatuan, ikastola bisitatu gura duenak ateak zabalik izango ditu eta arratsalde partean, txikienentzako pailazo ikuskizuna egongo da.

## piperrautsa

**Mikel Irizar** > www.goiena.net/blogak/piperrautsa

### Nahiago

Askozaz nahiago nukeen domekako hauteskundeetan aukera guztiak baleude lehian eta nahi duen orok botoa emango ahal izango balu, emaitzen kalitatea hobetuz. Normaltasun erlatibo baten adierazle ere izan zitekeen, hau da, demokrazia inperfektuaren baitan agintariek eutsi egiten diotela disidentzia suntsitzeko tentaldiari.

Botoa emango ez diodan arren, nahiago dut Zapaterok irabaztea Espainian, PP ez dadin garaile gerta. Uste baitut beharrezko baldintza dela hori, pertza konpontzeko beste ahalegin bat egon dadin. Ez dut federik, nahia baizik. Eta nahiago nuke igandea pasatuta balego, eta alde guztiak gelditurko balira besteen premia izateko bezain ahul. Askozaz nahiago nukeen ondoa jo ostean bageunde, goranzko bidean hasita.

## ai, ene!



### Lekua ondo aprobetxatu dute eskailerapean

Etxean ditugun gauza guztiak gordetzeko nahiko toki izateko, eskailerapea aprobetxatzea erabaki dute.

www.dogguie.com

